2019-06-28 EGUBAKOITZA / 822. ZENBAKIA / 19. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

# goiena

Zu hemen zaude.



+

Garazi Garayo artxibozainari elkarrizketa

Raid probak Oñatin: abentura totala



## Eskoriatzan kokatuko da Jakion barazki eta fruta kontserben enpresa, Xoconostle-k erosi ostean / 5

## Sonografoa jarri dute Arrasateko azokan, bizilagunen kexak direla-eta zamalanen zaratengatik / 10

## Lope de Agirren gaineko argazki liburua aurkeztuko dute eguaztenean Oñatin / 41

## Eskubideen aldeko mendi martxa egingo du Arantzazutik Urbiara Gure Esku-k zapatuan / 9



## Lesbos-en (Grezia) daude hainbat debagoiendar, errefuxiatuentzako jakiak prestatzen / 6

## Antzuolako Eztala futbol zelaian aldagela berriak izango dituzte 2020ko abendurako / 33

## Debagoiena da EAEko eskualderik berritzaileena, industriaren pisuari esker / 4

**SINADURAK**


MAIALEN MADARIAGA / 26


RAFA MUNGIA / 8


MIEL GURIDI / 35


MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 12


IDOIA ETXEBERRIA / 48



# GENERO ETA SEXU AUKERA GUZTIAK, ERRESPETUZ ETA HARROTASUNEZ

LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna da gaur, eta hainbat ekimen egingo dituzte Oñatin, eskualdeko Koordinadora TransMarikaBollo Feministaren eskutik / 2

Debagoieneko gay, lesbiana eta trans batzuk, harrotasunez astintzen LGTBI bandera.

XABIER URZELAI



# Kolorez kolore, izaera guztiak

Gaur, ekainak 28, LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna da, sexu eta genero aniztasuna bistaratzeaz gain, kolektiboaren eskubideen alde borroka egiteko eguna; kolektiboko bost debagoiendar batu ditu GOIENAk, egun hau nola bizi duten jakiteko

**ENEKO AZURMENDI** ARRASATE

Esti Lobato, Mireia Gallastegi, Ethan Ugartetxe, Raul Madrid eta Aaron Peleteiro. Horietxek gaurko protagonistak.

Lehen biak bikote dira, eta Bergaran bizi dira. Alaba bat ere badute: Mae. "Egun berezia" da gaurkoa haientzako. "Gure eguna moduan kontsideratzen dugu. Gizarte oso heterosexual batean bizi gara, eta urtean zehar ahaztuta gaude gu. Beraz, hemen gaudela adierazteko egun bat da gaurkoa. Koloreak kalera atera eta aniztasuna adierazteko egun bat, aldarrikatzeko guztiok pertsonak garela", diote.

Azaldu dute gizarteak pertsona guztiak berdintasun baten barnean onartzea gura dutela. "Gure kolektiboko jendeak arazo asko ditu, eta oraindik ere leku askotan ezkutatu behar izaten da. Aldarrikatu egin behar dugu, baina egun hau ez litzateke ospatu beharko. Heterosexualitatea ez bada ospatzen, guk zergatik ospatu behar dugu? Normaltasun egoera batean biziko bagina, egun hau ez litzateke existituko. Hain zuzen, behar bat dagoelako existitzen da".

Gallastegik gogora ekarri du lesbiana bikote baten esaldi bat, kalera irtengo direla nabarmentzeko: "Izan gaitezen ikusgarri, indiferente garenera arte".

Lesbianen egoera, oraindik ere, guztiz normalizatzeke dagoela uste dute. Hain zuzen ere, normaltasunez jokatzea da horri buelta emateko gakoetako bat, haien esanetan. "Ume batek ikusten badu beretzat eredu den pertsona bat ezarrita dauden arauetatik kanpokoa dela eta normaltasunez bizi dela, berak ere hala ikusiko du. Hala, haiek ere sentitzen badute inposatutako normaltasun horretatik kanpo daudela, ez dira gaizki edo deseroso sentituko". Gaineratu dute ezarritako normaltasun hori apurtu egin dutela: "Eta harro gaude horregatik".

### Hasiera, zaila; gerora, ondo

Umeen hezkuntzari garrantzi handia ematen diote gaia normalizatzeko orduan. "Familiak, ikastetxeek, komunikabideek eta beste hainbat faktorek eragiten dute horretan. Estereotipoak, genero bereizketak, generoaren baitako rol banaketak… Hori guztiori gainditu behar dugu, eta gutariko bakoitzaren esku dago, hein handi batean".

Onartu dute "seinalatuta eta epaituta" sentitu izan zirela harremana hasi zutenean. "Oso gaizki pasatu genuen jende askorekin. Justifikatu egin behar izaten genituen gauza asko. Gero, ordea, pixkanaka, hori guztia desagertzen joan da, eta gaur egun ez dugu inolako erasorik nabaritzen", adierazi dute.

Haien inguruan "jende asko" ikusten dute euren izaera publiko egiteko beldurrarekin. Horren aurrean, mezu bat utzi gura izan dute: " Izan zaitez aske. Zure berdin bizitzen, sentitzen, maitatzen eta disfrutatzen dugu, eta hemen gaude. Hori da Harrotasun Eguna, eta hori aldarrikatzeko batuko gara Oñatin, bai kolektibokook, baita babesten gaituztenak ere".

### Familiaren babesa, hasieratik

Ethan Ugartetxe Arrasateko gazte bat da, transexuala. "Txikia nintzenean, ez nuen arazorik izaten eta guztia normaltasunez ikusten nuen. Hala ere, nerabezaroan, nesken eta mutilen kuadrillak bereizten hasi ziren, arropa ere garrantzi gehiago izaten hasi zen, eta genero bereizketa ere asko nabaritzen zen. Nire gorputza garatzen hasi zen, eta orduan hasi nintzen buruari bueltaka", azaldu du.

Etxean kosta egin zitzaion bere izaera azaleratzea. "Izan ere, ez nekien nola erreakzionatuko zuten. Nire amak bazituen susmoak, eta gurasoak joan ziren pixkanaka sokari tiraka. Horrek asko lagundu zidan. Familiaren babesa eduki dut hasieratik, eta hori oso garrantzitsua da. Badaude transexualitatea onartzen ez duten familiak, eta horrekin lortzen duten bakarra da semea edo alaba haiengandik urruntzea".

Egoera desatsegin eta deseroso batzuk ere bizi izan ditu den modukoa izateagatik: "Adibidez, nigandik urrundu zaizkit transexuala naizela esan diedanean; femeninoan tratatu izan naute nahita; nire lehengo izenez deitu izan naute; komentario desatseginak egin dizkidate, eta abar. Azazkalak margotzeko ohitura dut, eta esan izan didate arreta erakartzeko egiten dudala".

Izenak berak dioen moduan, "harro" daudela erakusteko eguna da gaurkoa, arrasatearraren esanetan. "Gu garen modukoak gara eta garenak gara, eta harro gaude horregatik. Gaurko egunez, kalera irteten gara hori erakustera, eta dagozkigun eskubideen alde borroka egitera. Eduki beharko genituzkeen eskubideak




## Transexualitatearen lege aldaketa

Atzo, ekainak 27, 2012ko Transexualitate Legearen 3. artikulua aldatu zen. Lehengo artikuluak pertsona transexualen sexu-nortasuna egiaztatzeko mediku-txostena edo psikologo-txostena eskatzen zuen, eta berriak sexu-nortasuna modu askean onartzen du. Lege berriaren arabera, transexualitate-nozioak erreferentzia egiten dio egoera bati zeinean pertsona bati jaiotzean jarri zitzaion sexua ez datorren bat sentitzen duen eta berea dela badakien sexuarekin. Transexualitatea, beraz, modu bakarrean jakin daiteke: libreki adierazten duen pertsona entzunda. Eta, sexu-identitatea bezalaxe, ezin da diagnostikatu. Ez da gaixotasuna, ez desoreka, ez anomalia bat, giza aniztasunaren parte baizik. Hala, eskubide hori ezingo da mugatua, murriztua, zaildua edo ezeztatua izan, eta transexualak baliatu ahal izango dira lege honetan ezarritakoaz, diagnostiko edo txosten psikiatrikorik, psikologikorik edo tratamendu medikorik gabe.

Naizen adin-txikiko transexualen familien elkarteko "ordezkaritza zabala", guraso, gazte zein haur, Eusko Legebiltzarrean izan zen atzo aldaketa ospatzen: "Urrats handia da transexualitatearen gaixotasun izaera baztertzeko bidean". Elkarteak, era berean, lanean jarraitzen du legea bere osotasunean eguneratu dadin Nafarroan ere.

## Debagoieneko manifestazioa

Koordinadora TransMarikaBollo Feministaren eskutik, bailara mailako manifestazioa egingo dute gaur, egubakoitza, Oñatin, *Mani-festa-akzioa* lelopean, plazatik abiatuta. Gero, 22:00etan, *ska-reggae-rocksteady pintxada* egingo dute, Antixena gaztetxean.

Bestalde, Bergaran, Gune Anitza zigilua jarri dute gune, elkarte eta leku ezberdinetan. Horietan, herritarrek errespetatu egin beharko dituzte sexu eta genero aukera guztiak.



Erreportajeko protagonistak, harrotasunaren banderarekin. XABIER URZELAI

aldarrikatuko ditugu, garen modukoak izateagatik kentzen dizkiguten eskubide horiek, hain zuzen", aldarrikatu du.

**Aurrerapausoak bai, baina...**

Transexualitatea normalizatzeko asko falta da, Ugartetxeren esanetan. "Transexualitatearen gaineko desinformazio asko dago. Lan asko dago egiteko oraindik".

Uste du hezkuntza ezinbestekoa dela horretarako. "Ikastetxeetan pertsona zisgeneroen gorputzak erakusten dizkizute, eta mutil bat neska batekin egon behar dela. Aniztasun hori ez digute erakusten txikitatik. Hala balitz, askoz aurreratuago egongo ginateke", adierazi du.

Aurrerapausoak izan direla uste duen arren, oraindik asko falta dela ere onartu du. "Komunikabide askok, adibidez, *gay harrotasuna* esaten dute, besteok existituko ez bagina bezala. Homosexualitatea ez dago oraindik normalizatuta, baina transexualitatea baino normalizatuago bai. Bestalde, gay bikoteak normalizatuago daude lesbiana bikoteak baino, bisexualitatea ere ez da batere ikustarazten...".

**Aldarrikatu eta ospatu**

Raul Madrid oñatiarra eta Aaron Peleteiro galiziarra ere bikote dira. "Zoritxarrez, oraindik normaltzat jotzen ez den egoera bat bistaratzen saiatzeko egun bat da gaurkoa, eta eskubideetan aurreratzen joateko aldarrikapena egitekoa ere bai. Horrez gain, orain arte lortutako aurrerapauso guztiak ospatzeko eguna ere bada. Aldarrikatu egin behar da, baina ospatu ere bai. Uztargarriak dira", diote.

Orain arte pasatzea tokatu zaien guztia gogorarazteko eguna dela ere azpimarratu dute. "Orain, badirudi guztia oso normalizatuta dagoela, baina duela 15-20 urte ez zen hain normala. Beraz, oraindik beharrezkoa da gaurkoa bezalako egun bat, gizarteak hausnartzeko, gauza asko ditugulako aldarrikatzeko. Zoritxarrez, eraso homofoboak gertatzen dira oraindik".

Horrekin lotuta, adierazi dute aurrerapauso handiak eman direla, baina kezka puntu bat azaldu dute Vox eta halako alderdiak agertu izanarekin. "Duela 15-20 urte, gay bat defendatzen zutenak arraroak ziren, eta gizartearen gehiengoak gay bat gutxietsi edo eraso zezakeen. Duela bost bat urte, arraroa zena zen norbaitek gay bat kritikatzea. Eta orain, berriz gutxiengo bat agertu da, lasaitasun osoz berriro ere gay bat kritikatzeko edo erasotzeko ausardia duena. Beraz, hauteskundeetan izan duen indarra kezkagarria da, zentzu horretan". Gaineratu dute dagoeneko normalizatutzat zeuden gauza asko berriro ere zalantzan jartzen dituela jende askok. "Vox moduko alderdiak agertu izanak eta lortu dituen emaitzak lortu izanak erakusten du hori. Horiek, adibidez, ez dute hain garbi ikusten".

**Egunerokoan, egun bat gehiago**

Oñatin bizi den bikotearentzat egun bat gehiago bezala dela diote. "Ez daukagu mobilizazio eta manifestazioetara joateko ohiturarik. Errutinaren baitako egun bat izaten da guretzat. Gure kolektiboak ez dauka ezer berezirik egin beharrik gaurko egunez, ardura gehiago izan behar da gizartearena eta komunikabideena, egoera bistaratzeko eta normalizatzeko. Zerbait normala izan beharko litzateke dagoeneko, eta jendea konturatu dadila leku guztietan gaudela. Ez dugu ezer demostratu beharrik", azpimarratu dute.

Bestalde, uste dute hezkuntzatik hasi behar dela normalizaziorako bidea, eta ikastetxeetan errealitatea erakutsi behar zaie umeei, oñatiarren esanetan. "Bestela heltzen da momentu bat zalantzak, kezkak eta abar sortu daitezkeenak. Eta ez bakarrik norberari, gainontzekoei ere eragiten die horrek, egoera ezberdinak hobeto ulertu ahal izateko. Ikastetxe oso gutxitan erakusten da gaia ondo. Bestalde, hezkuntza mailako kanpaina publiko bat sortzen saiatzen diren bakoitzeko, erantzun masiboak daude horren aurka. Ez dut uste inork nahi duenik beste bat gay bihurtu. Sinpleki, dagoena erakustea da kontua", azaldu dute. "Badirudi jaiotzez heterosexuala zarela, eta hori ez da horrela. Inork ez du asumitzen pertsona bat hasiera batetik izan daitekeela gay, lesbiana, transexuala, eta abar".

**Kolektibo irekia, askotarikoa**

Uste dute oraindik ere badagoela jendea identitate sexuala publiko egiteko beldurrarekin, eta horiek animatu gura izan dituzte pausoa ematera. "Kolektiboa oso irekia da, eta kolektiboan bertan aurkitu beharko lukete laguntza, egoera desberdinetan nola jokatu gomendatuko dietelako. Armairutik atera behar zarenean, pentsatzen duzu noiz, nola eta norekin egin. Normalena da zure ingurua ez izatea %100 mesedegarria zu armairutik ateratzeko, baina beti daude lehen momentutik babestuko zaituztenak, eta gehienak zure alde egongo dira".

Bukatzeko, aitortu dute transexualitatea baino aurreratuago dagoela homosexualitatea. Jende asko ez da gai pertsona transexual bat ulertzeko. Pertsona bat gehiago da. LGTBI kolektiboari letrak gehitzea modan dago orain, eta horrekin adierazi gura dena da identitate guztiak hartu behar ditugula kontuan. Zentzu horretan, asko dago hobetzeko oraindik".

**"ALBISTE IZATEARI UZTEN DIOGUNEAN, ORDUAN IRABAZIKO DUGU GUK"**

ESTI LOBATO

**"INPOSATUTAKO NORMALTASUNA APURTU DUGU, ETA HARRO GAUDE"**

MIREIA GALLASTEGI

**"DAGOZKIGUN ESKUBIDEAK KENTZEN DIZKIGUTE GARENAK GARELAKO"**

ETHAN UGARTETXE

**"BADIRUDI JAIOTZEZ HETEROSEXUALA ZARELA, ETA HORI EZ DA HORRELA"**

RAUL MADRID

**"INORK EZ DU INOR GAY BIHURTU NAHI; DAGOENA ERAKUSTEA DA KONTUA"**

AARON PELETEIRO



Ikerlan ikerketa zentroa, Arrasaten. IKERLAN

# EAE, Europako eskualde berritzaileenetatik kanpo

Regional Innovation Scoreboard 2019 ikerketaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa 110. postutik 132.era jaitsi da Europako eskualde berritzaileen rankingean. Eustat-en ikerketaren arabera, berriz, Debagoiena da EAEko eskualde berritzaileena

**Amaia Zabala Tolosa** DEBAGOIENA

Bi urtez behin kaleratzen den Regional Innovation Scoreboard 2019 ikerketaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa 110. postutik 132.era jaitsi da Europako eskualde berritzaileenen rankingean. Hain zuzen, 2017tik hona 22 puntu jaitsi da.

Mikel Orobengoa ISEA kooperatibako zuzendari kudeatzailearen esanetan, "datu kezkagarriak" dira: "Europako Komisioko hainbat adituk egiten duten ikerketa konplexua da; izan ere, hainbat faktore hartzen ditu kontuan".

EAEk hain puntuazio baxua lortu izanaren faktore nagusiak hiru direla nabarmendu du Orobengoak: zientzia eta teknologian administrazio publikoek diru gutxi inbertitu izana, enpresek ikerketa eta garapenerako aurrekontua murriztu izana eta egindako ikerketa eta inbertsioak nagusiki prozesuen eta produktuen arloan oinarritu izana.

### Administrazioen aurrekontua

"Zientzia eta teknologiaren alorrean Eusko Jaurlaritzak egindako inbertsioa asko jaitsi da eta, ondorioz, Europako beste eskualde batzuek aurre hartu diote. Urkulluren esanetan, aurrekontu osoaren %5 da egun arlo horretan inbertitzen dena".

Horrez gain, EAE postuz hainbeste jaistean "izugarri eragin" duena Espainiako Gobernuak zientzia eta teknologiara bideratzen duen diruaren mozketa ere izan dela arrazoitu du: "Enpresei berrikuntzan inbertitutakoaren %17 itzuli zitzaien 2017an; 2016an, %23; duela hogei urte, %33. Jaitsiera izugarria".

### Enpresen aurrekontua

Orobengoaren esanetan, EAE Europako eskualde berritzaileenetatik kanpo geratzearen beste arrazoietako bat enpresen inbertsioaren beherakada da: "Krisialdiaren eraginez, enpresek ikerketa eta garapenerako aurrekontua murriztu egin dute. 2008an, esaterako, EAEko produktu gordinaren %2,1 ikerketa eta garapenera zihoan eta Europako batez bestekoan geunden. Azken lau edo bost urteetan kopuru hori murriztu egin da eta egun, %1,92 da. Eta, aldiz, enpresen egoera ekonomikoa ez da murriztu".

Orobengoak gaineratu du Ameriketako Estatu Batuetako ikerketa batek dioela nahiz eta krisialdia gainditu, hori subkontzientean geratzen dela eta, ondorioz, enpresek diru gutxiago inbertitzen dutela marketin, berrikuntza, formakuntza eta halako arloetan.

### Prozesua eta produktua nagusi

Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren ikerketa eta garapenen ehuneko handi bat prozesura eta garapenera doazela dio Orobengoak, beste arlo batzuk kanpo utziz: "Ikerketak hainbat faktore hartzen ditu kontuan eta horietako askotan, berrikuntzan eta marketinean, esaterako, EAEn ez da prozesuan eta produktuan adina inbertitzen".

### Europa iparraldea nagusi

Europar iparraldeko herrialdeetako eskualdeak gailentzen dira berrikuntzaren ranking honetan, eta, Orobengoaren esanetan, ez da kasualitatea: "Alemania, Finlandia, Suedia eta Herbehereak bezalako herrialdeek urte asko daramatzate gizarte aurreratu eta garatu baten alde inbertitzen, eta hori ikusi egiten da".

### Ikerketaren ondorioak

"Ikerketa honen emaitzei garrantzia eman behar zaie eta Eusko Jaurlaritzak ez du hala egin. Datu hauetatik ondorioak atera eta ikasi egin behar dugu. Nire ustez, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek patronalekin eta sindikatuekin batera akordio bat sinatu beharko lukete, berrikuntzara dirua inbertituko dela ziurtatzen duena. Horrelako beherakadak saihesteko, hain zuzen", dio Orobengoak.

### Debagoiena nagusi EAEn

Eustat-ek apirilean kaleratu zuen ikerketaren arabera, Debagoiena da EAEn berrikuntzan gehien inbertitzen duen eskualdea, 6. urtez jarraian. "Zorionez, industriak pisu handia du gurean eta horrek garapen teknologikoa dakar; bestalde, unibertsitatea eta Ikerlan ikerketa zentroa ditugu gurean", dio Orobengoak.

**DEBAGOIENA DA BERRIKUNTZAN GEHIEN INBERTITZEN DUEN ESKUALDEA EAEN, 6. URTEZ**

# Mondragon-ek "positiboki" baloratu ditu 2018ko emaitzak

Egun, guztira, 81.837 langile daude Mondragon korporazioan, aurreko urtean baino %1,2 gehiago

**Amaia Zabala Tolosa** ARRASATE

2018. urtearen balorazioa egin du Mondragon kooperatiba taldeak, eta, oro har, kaleratutakoak pozik egoteko moduko datuak direla adierazi dute. Industria arloak, esate baterako, 1.700 enplegu baino gehiago sortu zituen iaz.

### Salmenten igoera

Korporazioa osatzen duten kooperatibek 11.581 milioi euroko salmentak izan dituzte 2018an; 2017ko datuekin alderatuz, igoera %2,7koa izan da. Inbertsioei dagokienez, 420 milioi eurora iritsi ziren. Gainera, nahiz eta nazioartean ziurgabetasun handia egon, 2019ko lehen lauhilekoaren datuek baikortasun moderatua adierazten dute.

### Berrikuntzaren alde

2018an, 175 milioi euro inbertitu dira I+G-n, eta arlo horretan, 2.018 pertsonari lanaldi osoko enplegua eman zaie. Horrez gain, aipatu behar da kooperatibek 120 proposamenetik gora aurkeztu dituztela Europako I+G-ko hainbat programatara.



Ulmako *showroom*-a. ULMA

### Eroski eta Erkop elkartea

Korporazioan enplegu gehien ematen duena banaketa arloa da. 2018an, 9,9 milioi euro irabazi zituen, eta, kasu horretan, Eroski eta Erkop elkartea dira aipatzeko enpresak. Izan ere, arlo horretan, guztira, 39.723 pertsona ari dira lanean eta 5.659 milioi euroko salmentak izan zituen.

# Jakion Eskoriatzara lekualdatuko dute

Jakion barazki eta fruta kontserben enpresa Xoconostle-k erosi zuen maiatzean, eta orain, enpresaren kokapen berria jakinarazi dute: Eskoriatzako Torrebaso poligonora eramango dute. Aldaketa gauzatu bitartean, baina, Leintz Gatzagan jarraituko dute

**Amaia Zabala Tolosa** DEBAGOIENA
Leintz Gatzagako Jakion enpresak kokapen berria izango du. Maiatzean, Xoconostle enpresak erosi zuen, eta orain jakinarazi berri dute enpresa Eskoriatzako Torrebaso Poligonoko lokal batera lekualdatuko dela.

Erabakia Deba Bailarako Industrialdea SArekin eginiko akordioari esker hartu dute, eta oraindik zehazteke dago aldaketa noiz gauzatuko den. Bitartean, enpresak Leintz Gatzagan duen lantokian jarraituko du lanean.

Susana Aiastui Jakion enpresako gerenteak jakinarazi du kontserben merkatua gero eta "konplexuagoa eta zorrotzagoa" dela eta egoera berrira egokitzeko beharrezko inbertsioari ezin ziola bakarrik aurre egin Jakion enpresak. Ondorioz, "merkatuan sendotu, indartu eta hazteko helburuarekin" Xoconostle enpresak erosi duela.

Aiastuik gaineratu du Jakionen inbertsioa "bat datorrela" Xoconostleren helburu sozialarekin: " Urte askotako lanaren ondorioz egindako Jakionen aktiboa galtzea saihestu nahi du Xoconostlek, eta, horretarako, ikuspegi berria eta ekoizpen eta merkaturatze ahalmen berriak emango dizkio".


Jakion enpresako bi langile Leintz Gatzagako lantegian. GOIENA

**Xoconostle, enpresen batura**
Xoconostle EAEko hiru lurraldeetako hainbat enpresaren elkartzearen ondorioz sortu zen 2018an. Bizkaiko Garaia eta Barrenetxe kooperatibek, Arabako Garlan kooperatibak eta Gipuzkoako Hortikultura Alberro enpresak osatzen dute. "Guztiak ere kalitate handiko euskal nekazaritza produktu askoren ekoizleak", dio Aiastuik.

Hain zuzen, Xoconostle enpresaren bosgarren bazkidea, berriz, Bilbon egoitza eta Londresen eta Liman filialak dituen Fresh Business Food & Nutrition enpresa da.

**Jakion, 1996a ezkero lanean**
Jakion 1996an Debagoieneko baserritar batzuek bailarako udalekin elkarlanean sortu zuten. Orain, jabetza aldaketa hau dela eta, Jakion enpresan partea zuten baserritar eta udal guztiek beren zatia Xoconostleri saldu diotela jakinarazi du Aiastuik. Ibilbide berri honetarako, Eskoriatzako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren oniritzia du Jakionek.


Iazko Hazilan proiektuko parte hartzaile batzuk. DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

## Martxan da eskualdeko gazteei zuzendutako Hazilan proiektua

Zazpigarren aldia irailaren 9an hasiko da, eta bertan izena emateko epea zabalik dago uztailaren 30era arte

**Amaia Zabala Tolosa** ARRASATE
Debagoieneko Mankomunitateak sustatzen duen proiektua da Hazilan, eta "eskualdeko gazte kualifikatuen laneratzea erraztea" du helburu. Euskadiko Programa Operatiboaren barne dago proiektua, eta, ondorioz, Europako Gizarte Funtsak %50 finantzatzen du.

Proiektuaren zazpigarren edizioa irailaren 9an hasiko da, eta bertan izena emateko epea zabalik dago uztailaren 30era arte.

Eskabide-orria Debagoieneko Mankomunitateko webgunean edota hara joanda jaso daiteke.

"Hazilan proiektuak eskualdeko pertsona kualifikatuen laneratzea erraztea du helburu eta bi fasetan banatzen da: hasteko, konpetentzia pertsonal eta profesionaletan trebatzeko 80 orduko tailer batean parte hartzen dute, eta, ondoren, eskualdeko enpresetan praktikak egiten dituzte, lan-merkatura hurbildu eta lan-esperientzia hartzeko helburuarekin", azaldu du Mankomunitateak.

Parte hartzeko baldintzak honako hauek izango dira: 20-44 urte bitartean izatea, goi-mailako ikasketak amaituta izatea –lanbide heziketako goi-mailako ziklo bat edota unibertsitate ikasketak– eta Debagoieneko herriren batean erroldatuta egotea. Langabe egotea ez da ezinbesteko baldintza izango.

**Aurkezpen jardunaldia**
Proiektuaren berri emateko eta zalantzak argitzeko, uztailaren 4an, eguena, 10:00etan, aurkezpen jardunaldi bat egingo du Mankomunitateak, Arrasaten duen egoitzan. Hara joateko interesa izanez gero, 943 79 30 90 telefonora deitu edo *hazilan@debagoiena.eus* helbide elektronikora idatzi behar da.




Nuria Agirre, Begoña Murguzur, Maria Agirre eta Idoia Imaz, Lesbosen (Grezia), errefuxiatuendako janariak gertatzen. MARIA AGIRRE

# Janari duinak prestatzen Greziako errefuxiatuei

Hainbat debagoiendar ari dira Greziako Lesbos uhartean, Zaporeak gobernuz kanpoko erakundearen ekimenez, egunero, 1.500 jatordu prestatu eta banatzen; errefuxiatuen bizi baldintzak gogorrak direla diote

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE
Nuria eta Maria Agirre ahizpa aretxabaletarrak, Begoña Murguzur oñatiarra –Hotz Oñatiko kidea– eta Idoia Imaz bergararra Lesbosen izan dira egunotan. Militene hiriburuan. Zaporeak gobernuz kanpoko erakundearen bidez, boluntario lanetara joanak dira. Egunero, 1.500 jatordu zerbitzatzen ditu Zaporeak-ek Greziako uharte hartan. Sukaldari eta zerbitzari lanetan dihardute debagoiendarrek.

**5.000-6.000 lagun kanpalekuan**
Oilaskoak, tipulak, patatak eta azenarioak ebakitzen harrapatu ditugu. Egueneko jatorduak gertatzen. Orotara, 10 bat lagun ari dira sukaldean. 10:00etan hasten dute lana. 16:00etarako metalezko ontzietan sartzen dituzte janariak, gero, furgonetan sartu eta banatzeko. 19:00etan banatzen dituzte menuak, egunero, Moriako errefuxiatuen kanpalekuaren –5.000 edo 6.000 lagun– atarian. Diotenez, "oso janari ona" egiten dute,"itxuraz eta zaporez". Ez dute edozer gauza banatzen. "Iraunkorrak diren elikagaiak Euskal Herritik datoz hona, baina galkorrak direnak hemen bertan eskuratzen dira". Europar Batasunak ere banatzen ditu jatorduak Lesbosko errefuxiatuen kanpalekuetan, *catering* zerbitzu bat kontratatuta, baina "oso eskasak" direla diote. Zaporeak-ek janari "duinak" banatzen dituela diote.

Kanpalekuetan, alkohol, droga, delinkuentzia arazoak, suizidio kasuak… daudela diote. "Haien egunerokoa da ilaran zain egotea, edozer gauza lortzeko".

Pozik daude egiten ari diren lanarekin. "Jaiotze tokiak baldintzatzen du zure bizia. Egia handia da, jakinekoa, baina hemen bizi izandakoak berresten du egi hori", dio Maria Agirrek, bere ahizpak bezala, bidaia bere poltsikotik ordaindu eta astebetez beste batzuen bizi baldintzak duintzen laguntzera Lesbosera abiatu dena.

## Errefuxiatuen tapoia

Turkia bihurtu da ihesean doazen milaka errefuxiatuen helmuga. "Erraza da Turkiaraino heltzea, bisarik ez dutelako eskatzen, pasaportearekin nahikoa da". Errefuxiatu haietako asko Istanbuletik, modu legez kanpokoan, Greziara heltzen dira, Lesbosera. Siriakoak ziren, lehen, gehienak; egun, Pakistan, Afganistan edota Afrikatik heltzen dira. "Europar Batasunak mugak jarri ondoren, Lesbosen errefuxiatu asko pilatu dira. Bisa lortzeko urtebete eta gehiago zain egon daitezke; lortzen ez dutenak Turkiara itzul ditzakete".

# "Nire zikloa amaitu da, baina EArena, zalantza barik, ez"

**PELLO URIZAR** EA-KO IDAZKARI NAGUSIA
10 urtez EAko idazkari nagusi izan ostean, badoa

**E.A.** ARRASATE
Ustekabean, San Juan egunez, iragarri du Pello Urizarrek (Arrasate, 1968) EAko idazkari nagusi izateari uztea. Goiena telebistan eman ditu azalpenak.

**Noiz hartu zenuen erabakia?**
Ez da egun batetik bestera hartzen, mamitzen doa. Proiektu batzuk esku artean geneuzkala sartu ginen, eta, horiek gauzatzen doazela ikustean eta zure parte hartzea horren ezinbestekoa ez dela ikustean, zikloaren amaieran egon zaitezkeela igartzen duzu.

**Amaitu da zure zikloa?**
Duela hamar urte, egoera politikoaren analisi sakona egin genuen. Kezkagarria zen egoera. Biolentzia gatazka errealitatea zen; legez kanporatzeak, egunkarien itxierak… Zerbait egin beharra zegoela argi geneukan. Elkarrizketa errondak, hartuemanak, eta abar egin genituen, konpromiso batzuk hartu genituen… Bildu sortu zen eta gaur egun EH Bildu errealitate sendoa da, momentuko egoeretatik harago. 2009an hasitako aroa; hortaz, amaitu dela esan genezake, beste ziklo bat hasten da. Ziklo hori beste batzuek hastea komeniko litzatekeela iruditu zitzaidan.

**"HARROTASUNEZ ESAN GENEZAKE EA-REN IRIZPIDE ETA OINARRIAK BEREZKO DITUELA EH BILDUK"**

**Duela urte bi egin zen kongresuan aukeratu zintuzten hirugarren aldiz idazkari nagusi izateko. Orduan, baina, Maiorga Ramirezi hamalau botogatik irabazi zenion... Horrek izan du eraginik zure erabakian?**
Ez. Egia da 2015eko udal eta foru hauteskundeen ostean, eta, batez ere, 2011ko emaitza oso onen ostean, egon zirela iritzi batzuk ziotenek EH Bilduk ez zeukala etorkizunik proiektu moduan… Guk argi geneukan, proiektu batean modu serioen sartzen zarenean, gauzak ondo eta ez horren ondo doazenean ere eutsi egin behar diozula. Ikuspuntu ezberdinak izan ziren alderdian. Baina hori izan balitz arrazoia, 2017ko kongresuan ez nuen neure burua idazkari nagusi izateko aurkeztuko.

**EH Bilduk aldatu ere egin zuen…**
Bai. Biltzar nagusi bat egin zen eta azken urte bietan nabaritu dira moldaketa horren emaitzak. Esaterako, emaitza historikoak lortu ditugu azken hauteskundeetan. Dena den, irakurketa ezberdinak egon arren, zuzendaritzatik ezberdintasunak kudeatzen jakin behar da.

**EAren zikloa ez da amaitu?**
Zalantza barik, ez. Harrotasunez esan genezake EAren irizpide eta oinarri batzuk modu naturalean bizi direla gaur egun EH Bildun. Badakigu EH Bildun jende berria sartuko dela eta alderdien erreferentzialtasunik izango ez duela, akaso, baina EAk badu bere tokia EH Bildu barruan.


Pello Urizar, Goiena telebistan, eguaztenean. ENEKO AZKARATE

## GUTUNAK

### Errauskailua substantzia berriak sortzeko laborategia da

**JOSU GARITAONANDIA**
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Argi dagoenez, inortxok ere ez du nahi bere herrian errefusa hondakin arriskutsu bihurtzen duen tramankulurik.

Izan ere, berriak seguruagoak direla esaten dute, baina, edozein modutan, horrek ez du esan nahi %100 seguruagoak direla.

Hain zuzen ere, errauskailu modernoek filtro gehiago dituzte, baina ez da tapoi bat; kanpora gauzak doaz, osasunarentzako kaltegarriak direnak, gainera: furanoak eta dioxinak.

Hauek substantzia jakinekoak dira, baina tximiniatik botatzen den erdia, berriz, zer den ere ez dakigu.

Kontuan hartu behar da tenperatura altuko laborategia dela errauskailua; alegia, erreakzio kimiko pila bat sortzen den lekua. Eta, horren ondorioz, substantzia berriak sortzen direnekoa ere bai, eta, hala, tximinietatik kilometroetara banatzen ditu substantzia ezagun eta ezezagunak hauek guztiak; lehenago edo geroago, arnastu, edan edo jan egingo ditugun substantziak.

### Bihotz-bihotzez mila esker Eskoriatzako Aste Zapatistaren izenean

**OIHANA IRAZU ETA AHINARA ZUBIZARRETA**
ESKOZAP KOLEKTIBOAREN IZENEAN
ESKORIATZA

Aurten, 19. Aste Zapatista ospatu dugu.

Beste behin ere, oso pozik gaude egitarauak edukitako arrakastarekin.

Horregatik, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu urteetan lagundu duzuen guztioi eta aurten lehenbizi laguntzera gerturatu zaretenoi:

Bereziki, Iñaki San Migueli, kartel zoragarria diseinatzearren; *Emakumeak ametsak ehuntzen* ekintzara gerturatu zinetenoi; Josefina Fraileri, esanak esan, botere faktikoak kolokan jartzeagatik; Buztinate elkartekoei eta Eñaut Zubizarreta musikariari; Sergio Alday tailagileari eta Jorge Arzuaga *El Process* liburuaren idazleari; Lumaltik elkartekoei, *11 demandas zapatistas* erakusketa uzteagatik; Antonio Jimenezi, *Revueltas* filma Eskoriatzan estreinatzeagatik; Aretxabaletako Jaiki eta Gu Haziak Gara elkarteetakoei; Eskoriatzako Udalari, Luis Ezeiza ikastetxeari eta Atxorrotz elkartekoei; Jose Arana egoitzako egoiliarrei, senitartekoei eta langileei; baita Alaitzen taldeari eta herriko trikitilariei ere; Mendibitzukoei, Jubilatuen Elkarteari eta zapatuan postua jarri zuten artisauei; Bizkai soinu-joleari eta D'Capricho bikoteari, bazkalondoa alaitzearren; baita Puro Chile taldekoei eta Margu DJari ere.

Sukaldean lagundu zenuten guztioi; bereziki, Durangoko Mariluri eta Rafari, eta bazkaltzera etorri zinetenoi; Gazta Porran eta Tonbolan parte hartu zenuten guztioi; baita takoak eta errifak erosi zenituztenoi ere.

Goiena Komunikazio Taldeko Imanol Beloki kazetariari eta Imanol Soriano argazkilariari; tabernakoei: espezialki, Hotela, Inkernu, Naira, Urrestilla, Goxotxiki, Toki Alai eta Jubilatuak.

Halaber, esker ona adierazi nahi diegu EskoZapeko kideei, eskoriatzar guztiei zein beste herri eta herrialde batzuetatik etorritakoei, modu batean edo bestean Aste Zapatistaren parte izateagatik.

Bihotz-bihotzez, mila esker.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HANDIK ETA HEMENDIK

### Judith Butler berrirakurtzen eztabaida ilun baten erdian

**GORKA BEREZIARTUA MITXELENA**
HTTPS://LABUR.EUS/MLNBI
'ARGIA'-N ARGITARATUA

Santi Leonéren *Erraietarik idatzia,* Lander Arretxearen *Kosta egiten zait* eta Twitterren ikusitako zenbait txioren harira.

Printzipio orokor gisa, XXI. mendeko Mendebaldeko gizarteetan, pertsona baten heriotza ekitaldi publiko batean ospatzea ez da jarrera onargarritzat hartzen. Salbuespenak egon daitezke, hildakoak krimen izugarriak egin izana adibidez, baina hau ez da kasua. Norbaiten heriotzaren aurrean jarrera hori hartzea ez dago debekatuta, baina egiten duenak ezin du espero hildako pertsona ezagutu zutenek, lagunek, senideek eta are, hildakoarekin kritiko izan zitezkeenek jarrera hori besterik gabe onartuko dutenik –ez dut uste esplikatu behar denik zergatik–. Printzipio hori eztabaidatu daiteke, noski, baina horrelako jarrerak onargarritzat jotzen hasteak sortuko lukeen gizarte mota egun ezagutzen duguna baino okerragoa izango litzatekeela uste dut, konbikzio handi samarrarekin gainera.

Ez dut uste hori pentsatzen duen bakarra naizenik. Eta ez dut uste, halaber, Lander Arretxeak Lucía Baskaranen adierazpenen harira *Berria*-n argitaratu duen artikuluaren amaieran seinalatzen duen bidetik, gai hau kontu morala denik. Sakoneko gaia da nola hautematen dugun bestearen bizitza. Zer balio aitortzen diogun bizitza horri bere horretan. Judith Butlerrek *Frames of War. When is Life Grievable?* liburuan esplikatzen du modu aski egokian: "Bizitza batzuk ez baldin badira bizitza gisa kalifikatzen edo hasieratik ez badira bizitza gisa ulergarriak zenbait marko epistemologikoren barruan, bizitza horiek ez dira inoiz bizitutzat joko, ezta galdutzat ere hitz horien zentzu osoan".

Horretatik zerbait sumatzen dut Katakrakeko liburu-aurkezpenaren audioan. Ez da bakarrik, Leonék zioen bezala, Hasier Etxeberria ez dagoela hemen horrelako zerbaiten aurrean bere burua defendatu ahal izateko. Inpresioa daukat "hilda eta ondo hilda" dagoela dioenak ez duela zentzu oso batean haren bizitza bizitutzat jo eta, beraz, ezta galdutzat ere.

Gauzak ulertzeko marko hori terriblea iruditzen zait.

Adierazpenari nahi besteko justifikazioak jartzen ahal zaizkio.

Zuhaitz baten inguruko eztabaida baso osoarekin estaltzen saiatzea da.

Post gehiago 8. orrialdean.

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**





ZABALIK

RAFA MUNGIA

# Beste mundu bat

Japonieraz *krisialdi* hitzak bi karaktere biltzen ditu; *arriskua* eta *aukera* hitz berean uztartuta ikustea arrotza egiten zaigu 14.000 kilometrora bizi garenontzat. Gizakiak pairatu duen sarraskirik basatiena sufritu izanak eragina izan dezake gizartearen antolaketan; nola ez du izango, ba? Hiroshimaren eta Nagashakiren seme-alabek herrialde bitxia eta berezia sortu dute, betiere, gure kode, ohitura eta funtzionatzeko erarekin alderatuta.

Takashi laguna aukeratu dut Japonia zer den eta zer izan nahi duen irudikatzeko. Tokioko udaletxera bertaratu eta atarian erakusten digun irribarreak konturatu gabe hurbiltzen gaitu dagoen lekura, baita ingelesez txukun moldatzen dela egiaztatzeak. Erretiroa hartu eta gero, boluntario gisa bere hiria erakusten die bisitariei hilabetean behin, 14 miloi biztanle biltzen dituen lur puska bistadizo batean erakusterik balego. Igogailu bat baino gehiago hartu beharrak aukera ematen dit bere bizipenen bitartez japoniar gizarteak nola funtzionatzen duen ezagutzeko, eta bai, *funtzionatu* hitza aukeratzea ez da kasualitate hutsa.

**IBILGAILUAK APENAS ENTZUTEN DIRA ERREPIDEAN; IZAN ERE, GEHIENAK ELEKTRIKOAK DIRA**

Exekutibo gisa egunean 12 orduz egin duela lan lotsaren lotsaz kontatzen digu; gaur egun zeharo aldatu den egoera dela gaineratzen du, guk ezer galdetu gabe. Europarekiko miresmen eta errespetu puntu hori etengabe antzematen diogu solasaldian. "Museoak, musika, eta kultura, orokorrean, zuen herrialdeetatik datoz, gu ikasleak baino ez gara alor horretan", dio.

Harritu ninduen eraiki duten gizartea gutxietsi nahi hori, ez zidan denborarik eman Takashiri kontatzeko badutela zertaz harro egon eta zentzu askotan aurretik doazela europarrekiko: zakarrontzirik ez dago zikintzen ez dutelako, garraio publikoan mugikorra soilik soinurik gabe erabili daiteke eta ibilgailuak apenas entzuten dira errepideetan, gehienak elektrikoak direlako. Detaile hutsak Takashik erakutsi digunaren aurrean, baleko jendea dagoela Japonian.

P.D.: Takashi izena da asmatu dudan bakarra.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

### Arrakala

**IÑAKI PETXARROMAN**

HTTPS://LABUR.EUS/YJEOU

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gizonek emakumeek baino %24 gehiago irabazten dutela jakinarazi zuen atzo Emakundek, txosten baten bidez.

Alegia, hiru probintzia horietako soldata arrakala modu gordin batean islatu du Jaurlaritzaren lan horrek.

Eta, egun berean, emakume bat hil zuen bikotekideak Bardozen (Lapurdi).

2003tik gertatutako 100. hilketa matxista izan da hori, hain justu.

Egun berean, emakumeek jasaten duten genero azpiratze gordinaren bi adibide ezin modu argiagoan erakutsi ditu aktualitateak.

Bien arteko loturarik ikusi nahi ez dutenek arazoak izango dituzte ulertzeko modu integral batean baino ezin dela lortu emakume eta gizonen arteko berdintasuna.

Bardozeko hilketak gizendu egin du matxismoaren biktimen zerrenda.

Lapurdin gertatu izanak oihartzun mediatikoa kendu dio Bidasoatik hegoaldera, nazio arrakala zeinen sakona den berriro erakutsiz.

Baina ikuspegi nazional sendoa lukeen hedabide sare batek ez luke oharkabean pasatuko 2003tik gertatutako bost hilketa matxistatik bat herrialde horretan gertatu dela, nahiz eta bertan biztanleen %8 bakarrik izan.

Hau da, beste herrialdeetan ospakizunetarako arrazoi gutxi badituzte ere, Lapurdin gogoeta sakona egin beharko lukete, erakundeetatik hasita, bertan gertatzen ari den feminizidioaren arrazoi propioak ulertu eta gelditzen hasteko.

Ahalik eta lasterrena, zerrenda gehiago gizendu baino lehenago.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagirre.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.

**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
**Administrazioa**
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 19.000 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

**Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

# "Erreferenduma posible egin arte, ez gara gelditukoˮ

## AMALUR ALVAREZ GURE ESKU-REN BOZERAMAILEA

**Eneko Azkarate Laspiur** ARRASATE
Gure Esku-k mendi martxa antolatu du zapaturako: Arantzazutik Urbiara. Mendiko zelaigunean ekitaldia eta mosaikoa egingo dute.

**Ze erantzun espero duzue zapatuko ibilaldian?**
Kataluniarekin elkartasuna eta elkarlana lantzeko espazio bilakatu da Gure Esku eta larunbateko mendi martxa bereziki baliatuko dugu Kataluniako epaiketa krudel eta bidegabe horren fokua oinarrizko eskubide eta askatasunen gain jartzeko.

**Jendeari eskatu diozue hori koloreko jantziekin edo osagarriekin joatea. Zein da asmoa?**
Kolore horia aldarrikapen kolore bilakatu da. Batetik, sinbolizatzen du Kataluniarekiko elkartasuna eta preso politikoen askatasunaren aldarrikapena, baina baita ere oinarrizko eskubideen defentsa eta, oro har, askatasuna.


Amalur Alvarez, Arrasaten. ENEKO AZKARATE

**Zein da mendi martxa honen helburua?**
Demokrazia bera eta herritar guztion eskubideak jokoan daudela kontziente garen denok protesta egitea, modu berezi batean; eta, elkarrekin, lazo hori itxurako mosaiko baten bidez elkartasunezko besarkada handia bidaltzea Kataluniara.

**Kataluniako auzipetuen, presoen eta erbesteratuen aldeko ekimena da.**
Bai, jakina. Erreferendum bat antolatzeagatik bidegabeki auzipetuta, espetxeratuta edo erbesteratuta dauden horiei guztiei elkartasuna adierazteaz gain, prozesu osoan zehar egindako lana aitortu nahi diegu. Bide berri bat urratu dute eta lezio garrantzitsuak eman dizkigute. Merezi dute.

**Baita Altsasuko liskarra dela-eta espetxeratuengatik. Hau berria da.**
Gure Esku-k beti izaten ditu presente Altsasuko gazteak. Ia 1.000 egun daramatzate espetxean tabernako liskar baten ondorioz. Bestalde, datorren irailean beste makro-sumario bat hasiko da 47 emakumeren eta gizonen aurka, berriro ere oinarrizko eskubideen jazarpena oinarri eta presoen defentsarako eskubideak kriminalizatzea helburu duena. Pertsona horien guztien eskubideak ere aldarrikatuko ditugu larunbatean.

**Gure Esku-k aro berria hasi du. Zertan izango da berria, zertan ezberdina?**
Orain arte egindako ibilbidearen jarraipena izango da. Helburu argi bat finkatu dugu: gure etorkizuna erreferendum bidez erabakitzea. Posible egin arte, ez gara gelditoko.

ITURRI ONETIK

## Badator Euskaraldia

2018an arrakastaz egin zen Euskaraldia euskararen aldeko ariketa sozialak beste urrats bat egingo du bigarrenean. 2020ean ospatuko da, baina datorren astean hasiko dira prestatze lanak. Datorren urteko azaroaren 20tik abenduaren 4ra arte, hau da, 15 egunez, egingo da. Hizkuntza ohiturak astintzeko ariketak *Ahobizi* eta *Belarriprest* rolak izango ditu protagonista berriro ere, baina beste figura bat sortuko da: *Arigunea*. Datorren astetik aurrera, herriz herriko batzordeak osatzea izango da lehen egitekoa.

ALBISTE IZAN ZEN

2006-06-28

## Elkargi-k bulegoa ireki zuen Bergaran

Enpresa ertain eta txikiei laguntzeko Elkargi finantza entitateak bulegoa ireki zuen Bergaran; Gipuzkoako bigarrena, Donostiakoaren ostean. Enpresei abalak emateko eta finantza alorrean lagundu eta aholkatzeko sortutako enpresak Debagoieneko enpresa txiki eta ertainei ematen die zerbitzu, Bergarako bulegotik. Confebaskeko, Adegiko eta Elkargiko buruez gain, orduko alkate Victoriano Gallastegi izan zen ekitaldian.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

### Sare sozialetan ere '#harrotasuna'



Sarea LGTBI Eguneko adierazpenekin bete da. Gaur, gainera, Stonewalleko istiluen 50. urteurrena ospatzen da –argazkia–:

*@Harro_EH*: "Irabaziko dugu! Harrotasuna ez da negozio bat, LGTB+ mugimenduen izenean ez!".

*@Komiteak*: "Ostiral honetan, Sexu Askapenaren Nazioarteko Eguna da. Denok kalera *#E28* koordinadorak deitutako mobilizazioetan parte hartzera! Stonewall-eko istiluen 50. urteurrenean, harrotasuna borroka da!".

### Lauaxeta gogoan, sare sozialetan

Martitzenean bete ziren 81 urte frankistek Esteban Urkiaga *Lauaxeta* fusilatu zutenetik:

*@HaizetaraMungia*: "1937ko ekainaren 25ean fusilatu zuten faxistek Esteban Urquiaga *#Lauaxeta* Gasteizen. Laukiztarra jaiotzez, Mungian bizi izan zen umetatik. Gernikako bonbardaketatik hiru egunera kazetari frantziar batzuk lagundu zituen bertatik bertara ikus zezaten erasoaren eragina".

### Twitter utzi dute ohiko txiolari batzuek

Euskal txiolarien komunitatea utzi dute, asteon, jarraitzaile ugari zituzten hainbat erabiltzailek. Besteak beste, Santi Leone idazleak –@*ororostorm*–, Xabier Landabideak –@*txerren*–, Gehitu elkarteko koordinatzaile Aintzane Muguruzak eta Deustuko Unibertsitateko irakasle Jaume Gelabertek –@*bonbergant*–.

*@MKattalin*: "Barbara Goenaga bat egin' erabiltzen hasi gaitezke?".

# Goiz 'abesten' duten 'oilarrak', kezkatuta

Goiz 'abestearren' 'oilategia' –azoka– ez ixtea nahi dute 'oilarrek' –saltzaileak–; azoka inguruko bizilagun batzuek hainbat kexa jarri dituzte goizean goizeko zamalanen zaratagatik, eta, Arartekoak neurriak hartzera presatu ostean, Udalak sonografoa jarri du



Hainbat erosle, ohiko karrotxoekin, azokara sartzeko gertu. XABI GOROSTIDI

**Xabi Gorostidi** ARRASATE

Arrasateko azoka plazako saltzaileek arduraz hartu dute euren lanak eragiten duen zarata neurtzeko sonografo bat jarri izana. Urteak dira azoka "abandonatuta" ikusten dutela, eta, Arartekoak presatuta, Udalak jarritako neurgailuaren harira euren kezka eta ardura helarazi nahi izan diete agintariei.

"Ez dugu ulertzen gertatzen ari dena; mundua munduaren aurka. Bizi dugun garai honetan, edozer gauzak egiten du enbarazu, eta zentzua gailendu beharrean lege injustuak dira nagusi; isilarazte agindu modernoak, langile batzuen aurka. Bai, azokan produktu freskoak saltzen ditugun langileak gara: finkoak, ibiltariak, baserritarrak... Hona datozen bizilagunek beharrezko dituzten elikagaiak ekartzen ditugu", diote alkateari igorritako gutunaren lehen zatian.

## Bizilagunen kexak

Sonografoa jartzearen atzean inguruko bizilagun batzuen kexak daude. "Bat edo bi dira, asko jota. Jakin dugunez, azokako zarataren kexaren aurretik, bizilagun horiek kexak jarri zituzten kale garbiketako makinek zarata ateratzen zutelako goizean goiz. Udalak arrazoia eman ei zien, eta garbitzaileen ibilbidea aldatu egin zuten euren etxepetik beranduago pasatzeko. Eta, orain, azokako zaratengatik ari dira kexaka", azaldu dio GOIENAri saltzaileetako batek.

Udaleko Hirigintza Saileko iturrien arabera, 2017an jarri zuten lehen kexa, 05:00 aldera hasten dituzten zama lanen zaratarengatik, eta ostean, kexa horiek Arartekora helarazi dituzte.

Goizean goizeko zamalan horien harira, zera adierazten dute saltzaileek alkateari igorritako oharrean: "Goizean goiz hasten gara lanean, betidanik egin izan dugun legez: 05:30 eta 06:00 aldera. Gaueko lan-txandetatik isil-isilik irteten diren bezeroei ematen diegu zerbitzua, baita 07:00etan lanean hasten diren horiei ere, lanera joan aurretik azokatik pasatzen diren irakasleei, egunari probetxu handiagoa atera nahi dioten etxekoandreei, bilobak eskolara eraman aurretik errekaduak eginda uzten dituzten horiei... Alkate andrea, horiek guztiak herriko historiaren parte dira, eta hor gaude gu, elikadurarekin zorrotzak diren herritar horiei guztiei zerbitzua ematen".

**2017AN JARRI ZUTEN BIZILAGUNEK LEHEN KEXA ZARATAGATIK; OSTEAN, ARARTEKORA ERE JO DUTE**

## Zamalanen zarata

Saltzaileen arabera, 05:30ean hasten diren zamalanetan ez dago ulurik edo saihestu daitekeen bestelako zaratarik.

"Batzuentzako, traba moduko bat gara. Ordu horietan heltzea, kamioia edo furgoneta aparkatzea eta ateak zabaltzea enbarazu iturri dira. Ordu horietan ez da ahotsik entzuten, ez da ulurik entzuten... dagoen bakarra elikagaiak deskargatzeko karroak alderik alde daramatzaten langileak dira, erosle isilen karrotxoak, eta 'egun on' xumeren bat edo beste... besterik ez. Ez dakigu zenbat jenderi egiten dion traba gure jardunak. Baina badakigu 06:00 eta 06:30 artean jende asko gerturatzen dela azokara, eta guk prest egon nahi dugu bezero horiek heltzerakoan ahalik eta zerbitzurik onena emateko".

## Zentzuz jokatzea

Bizilagunen atseden eskubidearen eta azokako erabiltzaileen arteko interes talkaren aurrean "zentzuz jokatzea" eskatzen dute saltzaileek. "Goiz jaikitzen garen langileon zarata neurtzeko gailu bat jarri berri digute. Baina ondo legoke herritarrei ematen diegun zerbitzua neurtzeko zerbait jartzea ere. Sekula ez digu inork eskerrik eman gure lana-

## "Pena ematen digu uzteak, baina erreta geunden"

**MARIA ANGELES TELLERIA** 46 URTEZ ARITU DA ARRASATEN GAZTAK ETA ARRAUTZAK SALTZEN, ETA GAUR ETORRIKO DA AZKEN ALDIZ

Maria Angeles Telleriak eta Jesus Angel Muñoak "bizitza osoa" daramate Mutiloatik Arrasatera etortzen. Azoka plazako beteranoetako batzuk dira, baina Arrasatera etortzen ez jarraitzea erabaki dute, nahiz eta beste leku batzuetan saltzen jarraituko duten. Penaz hartutako erabakia izan dela diote, baina ez zuten beste biderik ikusten.

**Zenbat urte Arrasatera etortzen?**
46 urte eta hilabete batzuk. 64 urte dauzkagu; beraz, 18 urte genituenetik etorri gara hona. Bizitza osoa.

**Erretiratu egingo zarete ala jarraituko duzue beste plaza batzuetan?**
Beste batzuetan jarraituko dugu. Orain arte, astero zazpi plaza egiten aritu gara, eta, azkenaldian, lau plazatara jaitsi gara.



XABI GOROSTIDI

Arrasaten egoteko baimena ekainean bukatzen zaigu eta ez berritzea erabaki dugu, Arrasaten egoteagatik ordaintzen duguna garestiegia baita. Beste plaza batzuetan ordaintzen duguna baino hiru edo lau aldiz garestiagoa.

**Azoka munduan esperientzia mardula duzue. Nola ikusi duzue urte hauetan guztietan merkatuak izan duen bilakaera?**
Gure kasuan, salmenta onak izan ditugu beti, baina nekatzen hasiak gara. Adibidez, Arrasatera edo beste edozein plazatara joateko 04:00etan esnatu behar dugu. Eta gero, nabaria da belaunaldi berrien falta. Ez dago apenas erreleborik; ez saltzaileen artean, eta ezta erosleen artean.

**Lekuko falta hori ez da ona izaten...**
Hala da... zenbat eta saltzaile gutxiago egon, orduan eta traba eta arazo gehiago. Arrasaten, begira zenbat postu dauden hutsik. Penagarria da; erakargarritasuna kentzen dio. Zenbat eta saltzaile gehiago egon, orduan eta erosle gehiago.

**Zer falta du Arrasateko azokak, beste garai batzuetan zuen itxura berreskuratzeko?**
Nik ezagutu dudanetik, inork ez dio aurpegia garbitu azoka plazari. Duela gutxi egon zen ahalegin bat, saltzaileekin eta baserritarrekin elkarlanean azoka berritzeko, baina asmotan geratu zen.

**Aurpegia garbitu ez, eta orain sonografoa...**
Goizeko lehen orduan oso bezero fidelak ditugu, benetan erostera datozen horiek, baina traba egiten dugu, antza... erreta amaitu dugu horrelako gauzekin.

**Zer-nolako bezeroak dira Arrasatekoak?**
Bada, oso onak. Pena handia ematen digu uzteak, bizitza osoko bezeroak uzten ditugulako; baina erreta geunden.

**Bezero fidel horiek non jarrai dezakete zuen produktuak erosten?**
Arrasatetik gertuen Zumarragako azokan aurkituko gaituzte.

gatik, merkatuek herritarren bizitzan duten lekuagatik. Merkatuek eragin zuzena dute herritarren elikaduran, eta herritarrek eskubidea dute zein janari erosi nahi duten aukeratzeko eta non erosi nahi duten aukeratzeko ere. Hala, zentzuz jokatzeko eskatzen diogu Udalari, eta ez dezala *oilategia* itxi, *oilarrek* goiz *abestearren"*.

**Udal Gobernuaren erantzuna**
Saltzaileen kezka ikusita, Udal Gobernuak haiekin bat egiten duela adierazi du, "Arrasateri historikoki eman dioten zerbitzuaren jabe" direla iritzita. "Arartekoak neurriak hartzera presatu gaitu, eta zarata hori objektiboki neurtzeko jarri dugu sonografoa. Baina ez dugu oraindik gaiari buruzko erabakirik hartu".

**Egungo funtzionamendua**
Azoka astelehenetik zapatura egoten da zabalik, eta astean birritan merkatua egoten da: eguaztenetan eta barikuetan. Bi egun horietan, 06:30ean irekitzen dituzte ateak bezeroentzat, eta zamalanak 05:00 eta 05:15 artean hasten dira, Hirigintza Sailaren arabera.

Gainontzeko egunetan, 07:30-13:30 ordutegiarekin funtzionatzen du azokak. Une honetan, bi postu finko daude –Polleria Clari eta Congelados Ana–, eta hamahiru saltzaile ibiltari.

**Udaltzainik gabe**
2019ko urtarrilaren 1a ezkero, azokan ez dago udaltzainik. Ordura arte, udaltzain bat egoten zen bertan, azoka ixten eta zabaltzen, edota aparkalekuen funtzionamendu egokia zaintzen. Haren funtzio administratiboak –informazio banaketa eta saltzaileen eta Udalaren arteko bitartekaritza, kasu– udal langile batek hartu ditu eta trafikoarekin lotutakoak, adibidez, gainontzeko udaltzainek.

Aldaketa horien ondorioz, eguaztenetan eta egubakoitzetan –merkatua dagoenean– ordu erdi geroago zabaltzen da azoka. Saltzaileek kexa helarazi zioten Obren, Zerbitzuen, Mantenuen eta Auzoen batzordeari, baina hark atzera bota zuen, aldaketa horrek ez lukeela ondorio negatiborik ekarri beharko argudiatuz.

**Azoka biziberritzeko ekimena**
2014an, azoka berrizteko ekimena eman zuen aditzera Udal Gobernuak, Bagara enpresarekin elkarlanean garatutakoa. "Azokaren kudeaketa eredua zehaztu eta hori pleguetara eraman gura dugu. Orain arteko kudeaketa publiko hori partekatua izatea gura bada, hori pleguetan islatzea da asmoa", azaldu zuen Bagarako Nagore Iraolak, indarrean zeuden plegu eta ordenantzak agortzear zeudela.

Azoka berriaren diseinu arkitektonikoa Arrasateko Telleria arkitekto bulegoak egingo zuela ere jakinarazi zuten.

**500 herritarri inkesta**
2016ko maiatzean, 500 herritarri inkesta telefonikoa egitea enkargatu zuen Udalak, azokaren beharrei buruz galdetzeko. Kokapenari dagokionez, inkestatuen %60k erantzun zuten ez zela behar azoka jartzeko eraikin berri bat eta %33k, aldiz, baietz. %90ek erantzun zuten zerbitzu guztiekin hornitutako azoka moderno bat behar duela Arrasatek. Gehiengo handi batek eskatu zuen oraingo azokaren instalazioak birmoldatzea eta hobetzea, irekitze egunak eta ordutegia zabaltzea eta saltoki eta zerbitzu gehiago jartzea. %65ek adierazi zuten instalazioen egoera erdipurdikoa edo txarra dela, eta %92k bideak eskatu zituzten herritarrek azokarekin lotutako proposamenak egiteko. Hala, 2017ko martxoan, egutegi, zerbitzu eta baliabide alorrean zein aldaketa egin behar diren jasotzeko parte hartze prozesua abiarazi zuen OZMA batzordeak, eta bertako ondorioak mahai sektorial batean landuko zituela iragarri zuen, saltokien emakidadunekin, baserritarrekin eta udal teknikariekin.

## ARARTEKOAK PRESATU OSTEAN, ZARATA NEURTZEKO SONOGRAFOA JARRI DU UDALAK



Mondragones kaleko farola horretan jarri zuten sonografoa. X.G.

## Une honetan ez dago sonograforik

Udal iturrien arabera, duela bi aste jarri zuten zarata neurtzeko gailua, "Arartekoak neurriak hartzera presatu eta gero; bertako zarata kuantifikatzeko urrats bat izan da, baina ez dugu erabakirik hartu oraindik". Ekainaren 21az geroztik ez dute berriz jarri.






2017ko apirilaren 12an izan zen tiroketa, San Andres auzoko Bañez Doktorea kalean. GOIENA

# Akusatuak bere gain hartu du 2017ko tiroketa

Asteon egin dute 2017ko apirilean San Andres auzoan izan zen tiroketaren gaineko epaiketa; akusatu arrasatearrak onartu egin du berak egin zuela tiro; fiskalak zortzi urteko kartzela zigorra eskatzen du; hilabete barru jakingo dute sententziaren berri

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Hasiera batean, hiru saio egitekoak ziren, baina, akusatuak tiroketa bere gain hartu ostean, prozesua azkartu eta bi saio egin dituzte, astelehenean bata eta martitzenean bestea.

Akusatuaren arreba Esther Martinen esanetan, akusatuak azaldu du beldur zela eta erasotuta sentitzen zela. "Bera polizia edo militarra sentitzen da bere barruko istorio horietan, eta, horren ondorioz, joerak hartzen ditu, ikusten duenaren arabera. Gizon pakistandarraren kasuan, Al Qaedarekin lotu zuen, eta oso gogorra zen hori berarentzat". Arrebak dio akusatuak eskizofrenia daukala, eta tratamendua jasotzen ari zela gertakariak izan zirenean. "Nire neba hiru edo lau bider egon da Aita Mennin, baina, hortik irteten denean, Osakidetzako osasun mentalaren sailak tratatzen du", dio. Hala ere, garai hartan tratatzen ari zen medikuak epaiketan bertan onartu du dosia jaitsia ziola, "hobeto" ikusten zuela argudiatuz. "Gertakaria baino hilabete batzuk lehenagotik, ez zioten behar zuen tratamendua eman. Medikuak berak onartu egin du, baina zalantza adierazi du, ez dakiela zenbat eta ze egunetan jaitsi zion dosia", azaldu du arrebak. "Osakidetzan hilabetean behin joaten dira pazienteengana, hamar minutuz hitz egiten dute haiekin, eta listo. Horregatik, nik haiengana jo nuen, nire neba ondo ikusten ez nuela eta pistolen gaineko gauzak komentatzen zituela esanez. Hala ere, nik esandakoari ez zioten batere garrantzirik eman". Gaineratu du medikazioa kenduz gero "atzera" egiten duela nebak. "Aita Mennikoek ere adierazi dute haiek ez ziotela dosia jaitsiko. Azken finean, horretarako medikatzen da, ahalik eta bizitza normalena eramateko".

Biktimari barkamena eskatu dio arrebak. "Egin nezakeen gauza bakarra zen. Oso gizon sentibera iruditu zait, gainera; oso ondo erantzun dit".

**Zortzi urteko zigorra**

Fiskalak, hasiera batean, hamalau urteko zigorra eskatzen zuen, baina zortzira jaitsi du. Akusatuak Martuteneko kartzelan bete beharko luke kondena, fiskalaren iritziz. Defentsak eta akusazio partikularrak, berriz, Aita Mennin bete dezala eskatzen dute. "Kartzelan bere gaixotasunak okerrera egingo du", azpimarratu du arrebak. Hala, hilabete inguru barru jakingo dute sententziaren berri.

**Elkarte berrian sartu da arreba**

Esther Martin Katearen Loturak elkartean sartu da. "Horrelako gaixoak kontrolatuta egon daitezen gura dugu. Ez da bakarrik guri bizitza zapuzten digun gai bat, guztion segurtasuna dago jokoan, eta gizartearentzako oso garrantzitsua den gai bat da".

## Akusatuaren arrebaren gutuna

"Arrasaten pakistandar bat zauritu zuen tiroaren egilearen arreba naiz, hau esateak ez nau lotsatzen! Gaixo bat da, eta ez hiltzaile bat". Modu horretan hasten da Esther Martinek, akusatuaren arrebak, publiko egin duen gutuna.

Idatzi horretan hainbat gauza kontatzen ditu; eurek etxean bizi izandakoak, besteak beste. "Nire anaia 33 urteko mutil bat da, eta 20 urte inguru zituela eskizofrenia diagnostikatu zioten. Ordura arte, gazte bizia eta kirolaria zen. Agian, apur bat hiperaktiboa, baina inork ez zigun esan zerbait arraroa sumatu zionik, ez irakasleek, ez pediatrek... Nik bezala, *bullying*-a jasan zuen, eta hortik datoz egungo desoreka emozional asko, normalean haurrek izaten dituztenak", dio.

"Drogak kontsumitu zituen, baina kontsumitu barik denbora luzea zeraman haluzinazioak hasi zitzaizkionean, eta inoiz ez zuen abstinentziarik izan. Ez dut inoiz ahaztuko bera holako egoera batean lehen aldiz ikusi nuenean sentitu nuen hotzikara, burbuila batean zegoen, erabat sedatuta, errealitatetik kanpo".

Bere babesa ere azaldu gura izan dio nebari gutunaren bitartez. "Aste batzuk behar izan nituen nire beldurrak uxatzeko, eta bera ikusteko nire burua animatzeko. Ni urtebete nagusiagoa naiz, eta berak dio ni gogorra naizela. Beti errudun sentitu naiz berak bizi eta gozatu ezin dituen gauzak bizitzeagatik eta gozatzeagatik. Ahalegintzen naiz, munduak bizkarra ematen dion arren, ni beti alboan izango nauela azaltzen", azaldu du.

Gutun osoa *Goiena.eus* webgunean dago irakurgai.



NIRE USTEZ

**MARIXE RUIZ DE AUSTRI**

## San Juan alternatiboak

Txupinazoa izan da niretzat azterketarako astebete soilik falta dela konturatzea. Herri bazkaria izan da niretzat pisukideok makarroi eta gaztaz hornitutako makarroiak jatea. Akelarrea izan dira niretzat apunteen inguruan egin ditudan dantzak, saltoak eta imintzioak. Olinpiadak izaten ari dira azken orduko formulak ikasteko esprintak. Kontzertuak izan dira niretzat ez urtzeko ahaleginetan dutxa hotzaren azpian abestutako kantu guztiak. *Zeuk ein zeuk jan!* izan da niretzat desorduetako otordu bakoitza. (Ia) gaupasak izan dira niretzat kafeinaren albo-kalteak; ez alkohol eta lagun artean gozatutako orduak.

Aurten San Juan surik ikusi gabe pasa dut solstizioa; eta nire modura ospatu dut, ahal izan den modura. Ez dut gezurrik esango, faltan bota ditut: giroa, txosnako zerbeza epeldua, eguzkia atera arteko dantzaldiak... Eta ez, faltan bota ditudan gauza horien artean ez daude zezenak, ezta herri bizi hau isiltzen saiatzen den mozala ere. Zentsuraren gainetik Arrasatek duen kontzientzia politikoa jaietan islatu duzuenoi eskerrik asko, ez dugu postaleko herria izan nahi.

## Ikasturte bukaerako bazkaria egingo dute Atzegiko kideek

Urteroko ohiturari jarraituz, San Juan jaiak bukatzearekin batera, ikasturte amaierako bazkaria egingo dute Atzegiko kideek. Aurten, Mondragon hotelean egingo dute; beraz, leku mugatuak egongo dira. Hori dela eta, izena emateko gomendioa egin dute. Horretarako, 943 79 48 45 telefonora deitu, eta Juan Cruz Davilagatik galdetu.



Helduen danborrada. AITOR AGIRIANO



Eguzkilaru eguneko apar jaia. AITOR AGIRIANO



Errementari dantza. IMANOL SORIANO



San Juan suaren gainetik saltatzen. IMANOL SORIANO



80 urtetik gorakoen omenaldia, Etxaluzen. A.A.

# Jai beroak, zentzu guztietan

Irudi paregabeak utzi dituzte aurtengo Arrasateko San Juan jaiek; izan ere, gustu guztiak asetzeko moduko egitarau zabala izateaz gain, herritarren parte hartzea nabarmentzekoa izan da. Urteroko ekitaldi izarrek jendetsuenak izaten jarraitu dute

**Amaia Zabala Tolosa** ARRASATE

San Juan bezperako magiak inoiz baino biziago dirau Arrasaten; gutxi izan ziren ekainaren 23ko gauean etxean geratu ziren herritarrak. Baita jaiak ofizialki hasi aurretiko ekitaldietan ere; horien artean, zapatuan egin zuten dragoi-janean.

Domekan, sanjuanetako arbolaren igoera, errementari dantza, helduen danborrada eta San Juan sua, guztiak izan ziren ekitaldi jendetsu eta parte hartzaileak.

Ohiturari jarraituz, sanjuanetako arbola arrakastaz igo zuten Herriko Plazan bildu ziren gazte kuadrillek; aurrez bazkarian indarrak hartu zituzten, eta nabarmentzekoa da fin ibili zirela gazteak, lehen saiakeran igotzea lortu baitzuten.

Eta errementari dantzan parte hartu zuten 200 musikari eta dantzari inguruk sekulako maila erakutsi zuten, beste behin.

Helduen danborrada ere ez zen gutxiagorako izan; aurten, gainera, konpainia berri bat estreinatu da: Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak bultzatutako Herrikoia izenekoa, hain zuzen.

**Denetariko ekitaldiak**

Aurten ere, ekainaren 24an, herriko 80 urtetik gorakoei omenaldia egin zieten udal ordezkariek, eta ondoren, bazkari jendetsua egin zuten.

Martitzena, aldiz, haur eta gazteen eguna izan zen eta Txatxilipurdik antolaturiko askotariko jolasekin gozatu zuten.



*Zeuk iñ, zeuk jan* bazkaria. AITOR AGIRIANO



Dragoi-jana. IMANOL SORIANO



San Juan arbolaren igoera. AMAIA ZABALA

# Onenekin aritu ostean, bi garaipen eta hiru porrot

Euskadiko Txapelketa irabazi ostean, Espainiakoa jokatu du kimu mailako Mondragon Lingua taldeak, Valentzian. "Oso esperientzia aberasgarria" izan da eta maila txukuna emanda itzuli dira arrasatearrak, Gorka Alarcia entrenatzailearen esanetan

**Eneko Azurmendi** ARRASATE

Ointxe! saskibaloi taldeko kimu mailako neskek Valentzian jokatu zuten, pasa den asteburuan, Espainiako Txapelketa. 24 talde aritu ziren lehian, hiruko multzoetan banatuta. Beraz, lehen multzoan bi partidu jokatu zituzten arrasatearrek. Lehena, Mallorcako CB Pollenca taldearen aurka –Balear uharteetako txapelduna–. "Maila hobea eman genezakeen partidu hartan, baina ez ginen ondo sartu partiduan, eta ezin izan genuen irabazi", dio Alarciak.

Bigarrena Bartzelona handiaren aurka jokatu zuten. "Bigarren laurdenean hirugatik bakarrik gindoazen galtzen. Azkenean, 30 puntugatik galdu genuen, baina oso partidu borobila eginda".


Kimu mailako nesken taldea, Valentzian. OINTXE!

### Bigarren fasean, txukun

Multzoko azkena izan ostean, beste fase bat jokatzeko aukera izan zuten. Lehena CB Infante Murtziako aurkaria izan zen. "20-4 irabazten hasi ginen eta, azkenerako, 24 puntugatik galdu genuen. Horrek min eman zigun", azaldu du entrenatzaileak.

Hala ere, bigarrena eta hirugarrena irabazi egin zituzten. "Ardoiren aurka hirugatik irabazi genuen, murtziarren aurkako jipoiari buelta eman ostean. Eta azken partidua Lauro bizkaitarren aurka izan zen, Euskadiko Txapelketako finalean bigatik irabazi genien, eta oraingoan hamarregatik".

### Esperientzia aberasgarria

Entrenatzaileak adierazi du oso esperientzia aberasgarria izan dela hau taldeko jokalarientzat, eta indartuta atera direla datorren denboraldira begira. "Kimu mailan Espainian dagoen benetako maila ikusi dugu txapelketa honetan. Oso maila altua dago. Estatuko hiriburuetako taldeekin lehiatu dugu, teknika aldetik eta fisiko aldetik oso indartsuak diren taldeen aurka".


Aste honetako campuseko argazki bat. OINTXE

## Udako campusa, datorren astean

Asteon, sanjuanetako campusa egin du Ointxe!-k, eta 20 neska-mutiko aritu dira Iturripen. Astelehenetik egubakoitzera, berriz, udako campusa egingo dute, Musakolako kiroldegian.

2003 eta 2010 artean jaiotakoei zuzendutakoa izango da udako campusa, eta hauxe izango da egingo dutena: 10:00etatik 11:30era, taktika eta teknika entrenamendua; 11:30etik 11:50era, hamaiketakoa eta atsedena; 11:50etik 12:50era, jaurtiketa libreen, hirukoen eta bestelakoen lehiaketak; 13:00etik 14:30era, igerilekua; 14:30etik 15:30era, bazkaria; 15:30etik 16:00etara, atsedena eta ekintza ezberdinak; eta 16:00etatik 18:00etara, berriz ere entrenamendua eta zenbait ariketa.

Izena emateko, 629 80 47 82 telefonora deitu –Eneko Mata–. Aste osoa bazkariarekin, 120 euro, eta bazkaririk gabe, 75 euro.

# Josu Arizmendiarrieta, datorren denboraldirako lehen fitxaketa

Arrasatearra da, aurrelaria, baina 15 urtez aritu izan da UDAn; orain, "gogoz" hartu du etxean jokatzeko aukera

**E.A.** ARRASATE

Mondrak dagoeneko egin du datorren denboraldira begirako lehen fitxaketa: Josu Arizmendiarrieta arrasatearra (1993). Txiki-txikitatik UDAn aritu izan da, baina azpimarratu du azken bi urteetan ez duela futbolaz "batere disfrutatu". Hori dela eta, "aire aldaketa" behar zuen, eta etxera itzultzeko aukera suertatu zaio. "Mondrako zuzendaritzan familiar bat daukat, eta kuadrillako bi ere badaude lehen taldean. Eurek animatu naute", azaldu du.


Arizmendiarrieta, Mojategin. MONDRA

Taldera ondo egokituko dela uste du. "Izan ere, gehienak ezagutzen ditut. Orain arte aurkari izan direnak taldekide izango dira aurrerantzean", dio.

### Entrenatzailea, gustura

Jorge Davila entrenatzaileak begi onez ikusten du taldearen fitxaketa berria. Izan ere, profil honetako jokalari baten bila zebilen kluba. "Kategoria honetarako aurrelari egokia da, langilea eta goleatzailea. Golak sartzeaz gain, lana eta gogoa jartzen badu, daukan guztia ematen badu, gu pozik".

### Udako campusa

Bestalde, astelehenean hasi eta lau astez udako campusa egingo du Mondrak Mojategin. Izena emateko, *mondrafutboleskola@gmail.com* helbidera idatzi.


AITOR AGIRIANO

# Herriko hormetan gora

Txosnaguneak antolatuta, *street boulder* saioa egin dute asteon Arrasaten, San Juan jaien baitan, eskalatzea herritarren artean erakusteko. Geroz eta herritar gehiagok hartzen dute parte ekintza honetan, baina aste honetan bereziki umeak izan dira parte hartu dutenak. Eliza azpiko arkua izaten da "zailena", eskalatzaile batzuen arabera.



The Allnighters taldearen emanaldi bat Bergaran. GOIENA

# Arrasate Blues jaialdiak badu behin betiko kartela

Maiatzean aurkeztu zuten eskaintzari bost talde gehitu dizkiote: Blas Pikon & the Junk Express, Fredi Pelaez Trio, Jose Barrio Quartet Jim TNT eta Scareworks. Jaialdia uztailaren 4tik 21era bitarte izango da eta, denera, hamahiru kontzertu izango dira

**Amaia Zabala Tolosa** ARRASATE

Ibai-Artek, Arrasateko Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak, Udalarekin elkarlanean lehen Arrasate Blues jaialdia antolatu du uztailerako.

Hamahiru talderen kontzertuak izango dira Arrasateko zortzi tabernatan: Kajoi, Taupa, 1990 Gastroteka, Monte, Ezkiña, Tantaka, Aterpe eta Itzala. Herriko Plazan eta Euskal Herria plazan ere izango dira emanaldiak.

Gainera, kontzertuetako egunetan tabernetan edariak doan kontsumitzeko 2.000 txarteletik gora banatuko dituzte Ibai-Arteko kide diren komertzioen bezeroen artean. "Kontzertuak baino bi aste lehenago hasiko gara txartelak banatzen bezeroen artean, eta kontzertuko egunetan ardoa, zerbeza edo bermuta edateko balioko dute", azaldu du Jon Apraizek, Ibai-Arte elkarteko presidenteak.

Apraizen esanetan, talde gehienak Arrasaterekin lotura dutenak dira: "The Allnighters taldea da kartel-burua eta bertako saxofoi-jolea, esaterako, arrasatearra da, Zigor Martinez. Jose Barrio ere Arrasateko Musika Eskolako irakaslea izana da, eta egun, Nafarroako Kontserbatorioko irakaslea. Bestalde, aipatzekoa da, baita ere, Leikek euskaraz abestuko duela".

## Jaialdiaren egitaraua

**Uztailak 4**
- **19:00** Blas Pikon & the Junk Express

**Uztailak 9**
- **19:00** Fredi Pelaez Trio

**Uztailak 19**
- **19:00** Kritikal Latin Blues Band
- **23:00** The Song

**Uztailak 20**
- **12:00** Mario Fernandino
- **13:30** Blues Deluxe
- **19:00** Aldakan
- **21:00** Leike
- **22:30** The Allnighters

**Uztailak 21**
- **13:00** Garcia del Val
- **19:00** Jose Barrio Quartet
- **20:00** Jim TNT
- **21:00** Scareworks

Oharra: kontzertuen lekuak ikusgai *Goiena.eus*-en.

### Argazki lehiaketa eta murala

Apraizek jakinarazi du jaialdiak irauten duen bitartean argazki lehiaketa bat egingo dutela eta egun gutxi barru jakinaraziko dituztela xehetasunak.

"Bestalde, kontzertu batzuetan Arrasateko artista batzuek mural bat margotuko dute, adierazpen librean", gaineratu du Apraizek.

### Apar jaia haurrentzat

Blues jaialdiaz gain, haurrentzat apar jaia ere antolatu du Ibai-Arte elkarteak: "Uztailaren 20an, Biteri plazan apar jaia ospatuko dugu, Kids&Us ingeles akademiaren eskutik".



Arrasate Musikal Big Band taldearen emanaldi bat. EDORTA AYASTUY

# Arrasate Musikal Big Band-en emanaldia gaur Monterronen

Arrasateko Udalak antolatzen duen Udazabal programaren lehen ekitaldia izango da, 22:30ean

**Amaia Zabala Tolosa** ARRASATE

Urtero legez, uda honetarako ere egitarau zabala antolatu du Arrasteko Udalak Udazabal programaren barruan.

Egitarauari gaur emango zaio hasiera, Arrasate Musikal Big Band taldearen emanaldiarekin. Lehen ikuskizun hau Monterron parkean izango da, 22:30ean.

### Arrasate Musikal Big Band

Talde hau 2000. urtean Jose Ramon Elkorok jarri zuen martxan eta egun, Zigor Martinez bergararra da zuzendaria.

Partaide guztiak Arrasate Musikaleko ikasle eta irakasleak dira. 23 lagunek osatzen dute taldea eta musikariak Arrasate eta inguruko herrietakoak dira.

Gainera, denetariko instrumentuak entzuteko aukera izango da gaur gaueko kontzertuan, lau tronboi, lau tronpeta, bost saxo, pianoa, gitarra, bateria, perkusioa, baxua eta ahotsa lotzen baititu.

Errepertorioari dagokionez ere, oso zabala da, blues, jazz, latin, bossa, funk eta rock estiloak lantzen baititu, besteak beste.

### Hiru disko eta hainbat kontzertu

Taldeak hiru disko grabatu ditu dagoeneko; lehena Elgetako Espaloian 2005ean, bigarrena 2006ko azaroan eta hirugarrena Durangoko Plateruena Kafe Antzokian zuzenean emandako kontzertuan.

Kontzertuei dagokienez ere ibilbide luzea dute, Euskal Herri osoan zehar emanak baitituzte: Arrasaten, Gasteizen, Bergaran, Elgetan, Vianan, Durangon, Gatzagan, Donostian eta Amurrion, hain zuzen.

Estatuari dagokionez, berriz, Errioxan eta Katalunian eman dituzte kontzertuak eta nazioartean, Munichen.

## Sanjuanetako argazkien sari banaketa igandean

Artgazki elkarteak antolatutako Sanjuanetako V. Argazki Lehiaketaren sari banaketa egingo dute domekan, ekainak 30, Arrasteko Kajoi tabernan 19:00etan.

Lau argazki sarituko dituzte: 1. saria –300 euro eta trofeoa–, 2. saria –150 euro eta trofeoa–, 3. saria –100 euro eta trofeoa– eta argazki originalena –100 euro eta trofeoa–.

## John Anduezak liburu berria aurkeztuko du Kulturaten

John Andueza arrasatearrak eta Koldo Anasagastik elkarlanean kaleratu berri duten *El último fotograma* liburua aurkeztuko dute Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, uztailaren 3an, 19:00etan.

Bi egileak bertan izango dira eta ekitaldia aurkezteaz, berriz, Ane Odriozola idazle legazpiarra arduratuko da.



Udalbatza berriak egindako lehen osoko bilkura, hilaren 20an. J.I.

# Udaleko batzordeak eta arduradunak, erabakita

Aurreko agintaldiko zazpi batzorde berberak izango dira, atzera ere, oraingoan, eta EH Bilduko zinegotzi bakoitzak izango du horietako baten ardura. Cristina Etxenausia izango da alkateorde, eta, alkatearen soldatari dagokionez, 39.510 euro izango da

**Julen Iriondo** ARAMAIO

Aurreko eguenean egin zuen udalbatza berriak agintaldiko aurreneko osoko bilkura, ezohikoa –berez, atzoko egunez egitea tokatzen zen–; hain justu, bertan erabaki zen, esate baterako, hileroko bilkurak, orain arte bezala, hileko azken eguenetan egitea, 19:00etan. Uztaila eta abuztua izango dira salbuespenak; hilabete horietan presazko gairen bat jorratu beharra sortuko balitz, ezohiko osoko bilkura deituko lukete –datorren hilean, adibidez, egongo dela iragarri zuen Lierni Altunak–.

Alkateordeak ere izendatuta geratu ziren: Cristina Etxenausia izango da lehena; Ana Martiarena, bigarrena; eta Santi Balantzategi, hirugarrena. Batzordeak zazpi izango direla ere –orain arteko berak– eman zuen aditzera alkateak (ikus behean, batzorde bakoitza bere batzordeburuarekin). Batzordeak EH Bilduko hiru zinegotziz eta EAJ-ko batez egongo dira osatuta.

**Diru kontuak**

Aramaioko Udalak askotariko erakundeetan duen ordezkaritza dela-eta, haietako bakoitzean Udala ordezkatuko duten pertsonak eta ordezkoak ere izendatu zituzten osoko bilkuran.

Alkateak jasoko duen ordainsariaren gainekoa eta udal talde politikoek jasoko duten diruaren gaineko puntuak izan ziren onartutako besteak.

Alkatearen ordainsariari dagokionez, 39.510 eurokoa izango da urtean, hamalau pagatan banatuta. Udal langileentzako soldata igoerarik balegoke, alkatearen soldatan ere izango luke eragina.

Udal talde politikoek jasoko duten diruari dagokionez, berriz, 2019ko aurrekontuetan onartu zen moduan, 12.000 euroko partida honela banatuko da: 2.000 euro jasoko dituzte bai EH Bilduk eta bai EAJk osagai finko moduan; osagai aldakorrari dagokionez, zinegotzi eta batzordeburu kopuruaren arabera egiten da gainerako 8.000 euroen banaketa, eta 6.500 euro dagozkio, honenbestez, Gobernuko taldeari, eta 1.500 jeltzaleei.

**LGTBI Komunitatearen Eguna**

LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna da gaur, ekainak 28, eta hori gogoan izango du Aramaioko Udalak. Osoko bilkuran agertu zuen Lierni Altuna alkateak udaletxeko balkoian lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen eskubideen aldeko bandera jartzeko asmoa, eta denak agertu ziren ados.

**EH BILDUKO HIRU ZINEGOTZIZ ETA EAJ-KO BATEZ OSATUTA EGONGO DIRA BATZORDEAK**



**LIERNI ALTUNA**
OGASUNA ETA ANTOLAKUNTZA

Iaztik ezagun duen batzordea hartuko du; Euskara eta Hezkuntzako buru ez da izango, ordea.



**IBAN HERRARTE**
ZERBITZUAK

Ogibidez, mantentzelanetan dihardu, eta, batzorde gertukoena izaki, zerbitzuen ardura izango du.



**OIHANA AMESKUA**
EUSKARA ETA HEZKUNTZA

Irakaskuntzan dihardu urteetan lanean, eta euskalgintzako eta Txirritola elkartearen bueltako pertsona da.



**ANA MARTIARENA**
KULTURA ETA KIROLA

Irakaslea, kultura eta gizarte arloetako hainbat elkarte eta zereginetan ibilitakoa da urteetan.



**SANTI BALANTZATEGI**
INGURUMENA ETA BASOAK

Ingurumena eta mendia zaletasun eta ardura ditu. Baserrian jaioa, erronka handiko alorrak direla dio.



**GORKA ASTONDOA**
HIRIGINTZA ETA AUZOAK

Barajuengo auzo-alkate izan da azken lau urte hauetan; auzo-Udal harremana ezagutzen duen pertsona da.



**CRISTINA ETXENAUSIA**
GIZARTE ONGIZATEA

Kultura eta Kirolaren ardura izan zuen aurreko agintaldian, baina jardun zuen Gizarte Ongizatean ere.

# Onartu du Kuadrillak Berdintasun Plana

Gorbeialdeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lehen plana 2019-2022 aldirako izango da. Aurrez herrietan zeuden planetatik eta Kuadrillako emakumeekin egindako lanketatik abiatuta egin dute, besteak beste, lau ardatzekin

**J.I.** ARAMAIO

Kuadrillako Berdintasun Planaren oinarrian Gorbeialdean aurrez zeuden planen azterketa eta ebaluazioa dago –Aramaion, Zigoitian, Legution eta Zuian–, eta baita egindako aurrerapenen, egungo egoeraren eta etorkizuneko erronken analisia ere, Arratzua-Ubarrundia eta Urkabustaiz ere aintzat hartuz; planaren lehen atalek aurrekariak, erreferentziak eta kontuan hartu den marko legala azaltzen dituzte, lanketa prozesua eta lan metodologia deskribatzearekin batera.

Horrekin batera, baina, Berdintasun Sailak gidatutako hausnarketa estrategikoa ere izan da planerako iturri; bertan parte hartu dute ordezkari politikoek –zortzi lagun–, teknikariek –hamazazpi; askotariko arlotakoak, gaia transbertsala izaki– eta Gorbeialdeko elkarteetako emakumeek –Aramaioko talde feministakoak eta Itur Zurikoak, esate baterako– eta herritarrek –63 lagun–: horien ekarpena izan da erronkak eta lehentasunak zehaztea eta hurrengo lau urteetarako ekintzetarako printzipioak ezartzea.



Josebe Iturriotz, planaren lanketan egindako saioetako batean. GORBEIALDEKO KUADRILLA

### Lau ardatz

Planak lau ardatz nagusi ditu: gobernu ona; emakumeen ahalduntzea; bizitzaren jasangarritasuna, baliabideen eta zainketen banaketa; eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak. Eta Kuadrillako udalerri bakoitzerako ekintzak zehazten ditu, ardatzik ardatz.

Aramaion, gobernu onari dagokionez, adibidez, planak jasotzen dituen egiteko batzuk dira: Udalak sexuen arabera bereizitako datuak jasotzea eta erabiltzea; kontratuetan eta dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak sartzea; epaimahaietan emakumeen eta gizonen kopuru orekatua sustatzea;...

**28.560 EURO BIDERATUKO DITUZTE, DENERA, AURTEN GORBEIALDEAN PLANA SUSTATZERA**

Emakumeen ahalduntzearen gainean: herritarrak sentsibilizatzea beren komunitaterako berdintasuna onuragarria dela azalduz; egun seinalatuak ospatzea; kirolean genero arrakalak gutxiagotzea, emakumeen partaidetza areagotuz; kultura politikak genero ikuspegitik garatzea; autozainketa praktikak izan ohi dituzten emakumeen kopurua areagotzea eta arreta sanitarioa hobetzea, esku-hartzean genero ikuspegia txertatuz; mugimendu feminista sendotzea; erabakiak hartzeko postuetan emakumeen eragina areagotzeko laguntza zein trebakuntzarako programak areagotzea;...

Bizitzaren jasangarritasunari, baliabideen eta zainketen banaketari dagokionez: eskolan hezkidetza integratzen jarraitzea, kulturan, politikan zein praktiketan genero ikuspegia txertatuz, eta heziketa proiektuen edukien artean emakumeen zein feminismoaren ekarpen soziala barne hartuz; pobreziaren feminizazioa txikiagotzeko, gizarte zerbitzuak egokitzea eta landa-eremuko emakumeak Kuadrillako enpleguetara iristea sustatzea; pertsonen autonomia eta erantzunkidetasuna zein kontziliazioa erraztuko dituzten hirigintza plangintzarako eta garraio iraunkorrerako irizpideak gauzatzea;...

Eta indarkeria matxista desagerrarazteari buruz: desberdintasunaren eta indarkeria matxistaren arteko lotura agerian jartzen duten programetan zein jardueretan parte hartzen duten pertsonen kopurua areagotzea; azaroaren 25a *ospatzea*; indarkeria matxista gaitzesteko ekintza publikoak egitea; jaietan indarkeria sexista prebenitzeko ekintzak egitea;...

Berdintasun Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko organo arduraduna Kuadrillako Berdintasun Unitatea izango da. Kuadrillako herri guztiak aintzat hartuta, 28.560 euro bideratuko dira 2019an plana sustatzera; Aramaion, 2.500.

## Promozio txapelketa amaituta eta San Martinetakoa martxan

Irailean izango da Aramaioko txapelketa, baina izena uztailaren 28ra arte eman dezakete pilotariek

**J.I.** ARAMAIO

Irailaren 13an hasiko da aurtengo San Martin txapelketa, baina pilotariek datorren hilean eman beharko dute izena. Irailean, urrian eta azaro hasieran izango da txapelketa, asteroko maiztasunez –astean bitan, bariku arratsaldeetan eta domeka goizetan–, eta finalak azaroaren 9an jokatuko dira.

Lau kategoriatan jardungo dute pilotariek –benjaminak, 2008-2009; kimuak, 2006-2007; haurrak, 2004-2005; eta gaztetxoak, 2002-2003–, eta kategoria bakoitzean A eta B mailak egongo dira. Izena ematen duen pilotari kopuruaren arabera erabakiko du antolakuntzak txapelketa ligaxka erara edo kanporaketa modura jokatu.

Arautegiari dagokionez, partiduak ez dira atzeratuko, baina pilotariek ordezkoak izan ahal ko dituzte. Arabako klub bateko kide izan beharko dute denek.



Sari banaketan. GOIENA

**Promozio txapelketa**

Promozio txapelketan, bestalde, Danel Herrarte txapeldun eta Aner de la Torre txapeldunorde geratu ziren.

### Sastiñako Festibala amaitzeko, gaur, Discofagia, 20:00etan

Iker Atxagak eta Ruth Alvarezek osatutako bikote akustikoa da. Atxaga gitarra jolea eta konpositorea da, eta Bilboko gauetako rock eta musika beltz arloetako DJ esanguratsuenetakoa. Alvarezek, berriz, ahotsa jartzen du Discofagian; rockean eta jazzean esperientzia duen mezzo-sopranoa da. Rock, pop eta soul estiloetako klasikoak jotzen dituzte.



Iker Atxaga eta Ruth Alvarez. DISCOFAGIA

### Ur parkearen ordutegia zabaltzea erabaki du Udalak

Aurreko barikua ezkero, ordutegi zabalagoa du ur parkeak: 11:00etan jarriko dute martxan egunero, eta 19:00ak arte egongo da han jolasean ibiltzeko aukera. Neska-mutikoak oporretan daudela-eta erabaki du Udalak ur parkea egun osoz zabalik edukitzea. Aste honetako bero handiarekin, ziur eskertu dutela erabakia erabiltzaileek.

### Autobus zerbitzu berria, auzoak eta Ibarra lotzeko

Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan astelehenean, uztailak 1, Ibarra eta auzoak komunikatzeko. Erabiltzeko, derrigorrez egin behar ko da eskaera aurreko egunean, 20:00ak aurretik: www.araba.eus/alavabus helbidean edo 945-18 20 60 telefono zenbakira deituta. 1,70 euro izango da prezioa, BAT txartelarekin.



Iaz, Aretxabaletako udalekuetan, haurrak begiraleari aurpegia margotzen. GOIENA

# Ordutegi aldaketa, udalekuetako berrikuntza

Txatxilipurdi elkarteak koordinatuko dituen udaleku irekietan, 32 hezitzaile eta bi koordinatzaile izango dira, eta, guztira, 300 haur arituko dira uztailaren 1etik 19ra bitartean ondo pasatzen. Aurten, gainera, hainbat berrikuntza egin dituzte

**Imanol Beloki** ARETXABALETA

Uztailaren 1ean hasiko dituzte udaleku irekiak Aretxabaletako haurrek, eta uztailaren 19ko azken jaiarekin amaituko dira. Prestaketa lanak eginda, Txatxilipurdi elkarteak koordinatuko ditu aurtengoak, eta, Jone Ojea eta Jon Cano koordinatzaileen gidaritzapean, 32 hezitzaile izango dira egun horietan 300 haurrekin disfrutatzen, jolasten, ikasten eta lagun artean egun ederrak igarotzen.

Berrikuntzekin datoz udalekuak, eta adierazgarrienak ordu aldaketa eta Aretxabaletako natura lekuetara irteera hezitzaileak egitearen aldeko apustuak dira, besteak beste.

### Ordutegi aldaketa

Astelehenetan, martitzenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan, goizez bakarrik elkartuko dira, 09:00etatik 13:00etara. Eta eguenetan, ekintza bereziak egingo dituzte, egun osoz, 09:00etatik 17:00ak bitartean. 4 urtekoek, udalekuetako gazteenek, aldiz, aurreko urteetako ordutegia izango dute: 10:00etatik 12:30era.

Ordutegi aldaketa gurasoek egindako eskaerari erantzunez etorri dela jakinarazi du Jone Ojea koordinatzaileak: "Udalekuetan parte hartzeko adineko umeak bizi diren etxe guztietara gutun bat bidali genuen martxoan, ordutegiaren inguruko kontsulta egiteko. Bi aukera eskaini genizkien: goizez bakarrik egitea edo goizez eta arratsaldez, eta jasotako erantzunei jarraituz erabaki dugu ordutegia aldatzea".

### Irteeren aldeko apustua

Eguenetan, 09:00etatik 17:00etara daudenez, irteerak egiteko aprobetxatuko dute, eta programaren barruan honako hauek antolatu dituztela adierazi du Ojeak: "Pagoetara, Langraitzeko igerilekuetara… joango gara; hala ere, ez gara joango denok leku beretara, banatu egingo gara taldeetan. Eguenez gain, asteko beste egunetan lau ordu ditugu goizez, eta, beraz, ondo aprobetxatzea da asmoa. Herriko txoko ezberdinetan aritzeaz batera, Aretxabaletako naturaguneak gehiago erabiltzea da aurtengo asmoa. Urkulu urtegira igoko gara zenbaitetan, Eskoriatzara ere joango gara goizpasa… besteak beste".

Irteera horiez gainera, hezitzaileak ere izango direla adierazi du Ojeak. "Haur Hezkuntzako txikienak Pagoetara joango dira egun batean, eta bertan, erleak ikus ahal izango dituzte, eztiaren gaineko kontuak ikasi, argizarizko kandelak nola egiten diren ikusi… Beste egun batean, Mendibitzu baserrira joango dira, baserriko lanak bertatik bertara ezagutzera, garaiko ortuko produktuen bueltan, eta animalien gainean ikasteko aukera izango dute… Txikienek, normalean, irteera gutxiago egiten dituzte, eta hori ere aldatu gura dugu aurten".

### Sanferminak, moldatuta

Egunerokoan, ekintza ugari izango dituzte herriko txoko ezberdinetan: batzuk berriak, beste batzuk urterokoak, eta berritasunekin datozenak ere izango dituzte. *"Gaztekonkis* txiki bat egingo dugu LH-2ko eta LH-3ko mailetakoekin; zaborraren kontzientzia hartzeko Urkulu garbitzeko ginkana bat egiteko asmoa dugu Lehen Hezkuntzako lehen mailakoekin; sanferminak, bestalde, egingo ditugu, baina moldaketa batzuekin egitea erabaki dugu aurten. Egingo ditugu, baina betiko formatua aldatuta; zezenak ez dira egongo, adibidez".

**NATURA LEKUETARA IRTEERA HEZITZAILEAK EGITEAREN ALDEKO APUSTUA EGINGO DUTE AURTEN**

## 'Tulipan txikia' antzezlana martitzenean, Aratz-en eskutik

Musika oinarri, dantzaz betetako 10-15 minutuko lana eskainiko dute, 19:00etan, Arkupe aretoan

**I.B** ARETXABALETA

Azken asteotan mimo handiz prestatzen jardun duten *Tulipan txikia izeneko* antzezlana eskainiko dute Aratz elkarteko hainbat kidek martitzenean, uztailaren 2an. Arkupe aretoan izango da, 19:00etan.

Iurgi Etxebarria zuzendariaren esanetara aritu dira lanean, zortzi bat astez. "Prestaketa lanei dagokienez justu samar iritsiko gara emanaldira, baina ilusio handiarekin", adierazi du Etxebarriak. Hamalau bat lagunek jardun dute lanean, batzuk aretxabaletarrak eta beste batzuk Durana kaleko Atzegiko etxean bizi direnak. Ipuin laburra da *Tulipan txikia*, 10-15 minutukoa. "Eta lan horretan kide guztiek parte hartuko dute. Musika du oinarri, eta dantzekin osatu dugu", dio Etxebarriak.



Aratz elkarteko kideak talde argazkian. IURGI ETXEBARRIA

### Emaitzarekin pozik

Antzerkigintza ikastaro baten osteko emaitza da martitzenean Arkupe aretoan aurkeztuko duten lana. "Probatxo bat izan da oraingo hau, eta pozik nago emaitzarekin. Aratzeko kideek benetan ondo pasatu dute eta oso aberasgarria izan da guztiondako", eta gaineratu du: "Konfiantza landu dugu, elkarri asko lagundu diote eta umore bikainarekin jardun dute; talde oso jatorra da. Diziplinarekin gorabeheratxo batzuk izan dira, baina ondo bideratu dugu".

Datorren ikasturtean lanean jarraitzeko asmoa agertu du Iurgi Etxebarriak; martitzenetan elkartuko dira, mojen komentuan.

## Magia eta musika izango da gaur, egubakoitza

Aretxarte Merkatari Elkarteak antolatuta, magia ikuskizuna eta rock kontzertua izango da gaur Aretxabaletan. Antxon magoa izango da aurrena, eta Patxi Luqueren kontzertua ostean.

Lehenengo, Bedarreta tabernan, Antxon magoak ikuskizuna eskainiko du, 19:00etan. Adin guztietako pertsonei zuzendutako saioa izango da, askotariko trukoak egingo ditu magoak, eta emanaldi dibertigarria eskaini. Ostean, Amets tabernan, Patxi Luque gitarra-jolea izango da, 20:00etan, rock kontzertua eskaintzen. Berak sortutako kantak eta talde historikoen bertsioak eskainiko ditu.

# "Frontoian orduak sartu behar ditu pilotariak"

**JUAN MARI ERRASTI** PILOTA ENTRENATZAILEA

Urte mordoa daramatza pilotaren bueltan lanean herrian, koordinatzaile zein entrenatzaile; oraingoz, ez du ordezkorik topatu eta lanean jarraitzeko gertu dago

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Eskupilotaren bueltan ibili denak Aretxabaletan ondo ezagutzen du Errasti (Aretxabaleta, 1944). Entrenatzaile lanetan urte askoan jardundakoa, berriro ekin dio.

**Utzita izan dituzu pilota kontuak eta berriro itzuli zara, ala?**
Guztiz utzita sekula ere ez, Federazioarekin harremana nire esku egon da beti. Orain ere entrenatzaile ofizialak Unai Errasti eta Haritz Zugasti dira eta ni inguruan nabil.

**Zu zeu pilotaria izan zinen?**
Pilotarekin asko ibilitakoa bai. Goroetako elizpean asko jokatutakoa eta gero herrian ere bai.

**Eta zaletasun hori semeei transmititzen jakin zenuen…**
Oinez ikastearekin batera hasi ziren pilotan jokatzen; etxean gela batean jarduten zuten. Eta gero, egunero pilotalekura: goiz eta arratsalde, zapatu eta domeka.

**Zelako ibilbidea izan du pilotak Aretxabaletan?**
Beti egon da zaletasuna, eta sasoi onak izan ditu, baita okerragoak ere. Txapelketa guztietan egoten saiatu gara beti, baina orain kontua aldatuta dago. Debarroko txapelketa, esaterako, Aretxabaletan bertan sortu zen eta bakarrik hementxe jokatzen zen lehen urteetan. Pilotaleku zaharrean izaten ziren partiduak eta gero, Burgalesenean bazkaldu. Debarroko txapelketaren memorian dakar 1948an sortu zela; urte hartan, Aretxabaletako Elortondok eta Ezpeletak jokatu zuten Arrasateko Garitanoren eta Uribarrenen aurka, eta azken horiek irabazi zuten. Hurrengo urtean berriro ere finalean ziren aretxabaletarrak, eta orduan, Soraluzeren aurka jokatu zuten, baita irabazi ere.

**Ordutik, aldatu egin dira kontuak?**
Bai, bai. Lehen, lau talde osatzen ziren herri bakoitzean, baina pilotari kopuruak behera egin du herri guztietan, eta, ondorioz, herri batzuek ezin izan dute parte hartu aurten; adibidez, Elgoibarrek, Antzuolak eta Arrasatek.



Errasti, pilotak esku artean dituela, Iturrigorri pilotalekuan. MIRARI ALTUBE

**Asko jaitsi da pilotari kopurua, ala?**
Pentsa, Leintz Gatzagatik Debara bitartean bost kadete bikotek bakarrik hartu dute parte, gazteak lau izan dira, eta seniorretan gehixeago. Hain zuzen, nagusiak izan ohi dira kopuru handiena, baina hori ere jaisten hasita dago. Arrasate moduko elkarte bat ez aurkeztu izana ez Debarrokoan, ez herri arteko txapelketan…

**Aretxabaletan antzekoa da egoera?**
Aurten, mutiko asko izan ditugu, 60 inguruan ibili dira. Kantitatetik kalitatea ateratzen bada, ez gabiltza gaizki.

**Baina neska gutxi…**
Bi bakarrik. Oñatin eta Antzuolan badabiltza, baina hemen…

**Denboraldi polita izan da, edo?**
Joan den egubakoitzean, Txaber Etxabek garaipen bat lortu zuen eta horrek, egia esan, bete egin gaitu. Urtarril inguruan hasi zen entrenatzen Etxabe, eta pentsa, askok egin ez dutena egin du honek hilabete gutxian. Denbora izango da testigu, baina zerbait badu mutiko honek…

**Herri artekoan ere egon zarete…**
Bai; taldea osatu ahal izan dugun guztietan egon gara, baina 2003tik ez genuen parte hartzen; aurten, 16 urteren ostean, berriro lortu dugu. Ez dugu ezer egin txapelketan, baina aurkeztu beharra dago, beti. Partiduen ondoren afaria egoten da, beste pilotari batzuekin hartu-emana… Hori ere garrantzitsua da.

**Pilotari on bat sortzeko zer behar da?**
Gogoa; zaletasuna egon badago, baina… Nik uste dut 6 bat urterekin hasi beharra dagoela pilotan; geroago hasita, gehiago kostatzen da ikastea. Zaletasun handia behar da eta ordu asko sartu pilotalekuan; bestela, ez dago-eta ezer egiterik.

**Eta pilotari handiren bat badator harrobitik?**
Ezetz ez noa esatera, itxaropena beti dago; itxoin egin behar zaie batzuei. Nire semeak, esaterako, txikiak ziren eta indar gutxikoak, eta guztiek irabazten zieten. Baina jarraitu egin zuten. Eta gazte mailako bigarren urtetik aurrera –gorputza apur bat egindakoan– hasi ziren irabazten. Orain 14 eta 15 urte dituzten batzuekin badut itxaropena, ikusiko da aurrerago.

**Pilota asko jarraitzen duzu?**
Telebista bidez bai. Lehen, pilotalekuetara ere asko joaten nintzen; Bergarara, adibidez. Ez dakit zergatik kendu zituzten handik partiduak; Debagoienerako garrantzitsua izango litzateke, zaletasuna sortze aldera.

**Lanean jarraitzeko asmoarekin?**
Bai, ezinen bat ez badator, behintzat; utziz gero, ardura honekin ez ote duen inork jarraituko beldur naiz. Nik txanda emango nioke baten bati, eta ni inguruan izan laguntzen, baina, oraingoz, ez dut ikusten inor gertu horretarako.



Txaber Etxabe garaikurrarekin Juan Mari Errastiren alboan. M.A.

## Etxabe nagusi lau eta erdian

Eskuz banakako lau eta erdiko Gipuzkoako txapelketaren mendebaldeko finalak jokatu ziren joan den egubakoitzean Iturrigorri pilotalekuan, eta, bigarren mailako kadeteen artean, Txaber Etxabek mendean hartu zuen Oñatiko Etxegarai, 22-14.

## 'Gero sortuz' futbol campusean 54 neska-mutiko elkartuko dira

Bederatzigarrenez antolatu du Aretxabaleta Kirol Elkarteak *Geroa sortuz* campusa, eta, uztailaren 1etik 5era bitartean, 2006 eta 2010 urte bitartean jaiotako 54 neska-mutiko elkartuko dira.

Futbolaren bueltako kontu mordoa ikasiko dituzte adituak diren entrenatzaileen eta begiraleen eskutik; entrenamendu saioak Ibarra futbol zelaian egingo dituzte. Horretaz gain, ingelesa eta adimen emozionala ere landuko dute, eta aisialdiari eta jarduera bereziei ere eingo diete lekua; besteak beste, Landara edo hondartzara joateko asmoa dute, baita Zubietara, entrenatzera, eta Anoeta bisitatzera ere bai.

## Degurixa inguruak ezagutuko dituzte 11. ibilaldi historikoan

Hamaikagarren ibilaldi historikoa egingo du Loramendi elkarteko toponimia taldeak. Oraingoan, Degurixa inguruetara gerturatuko dira, eta hango kontuak aztertuko dituzte. "Hamaika asko ere badelako, eta aurtengoa, herritik gertu eta urruti ere badagoelako", adierazi dute taldeko kideek. Hala, toponimia zein inguruko bazterrak bertatik bertara ezagutzeko ibilaldia uztailaren 20an eta 21ean egitea pentsatu dute.

Hori ondo antolatzeko asmoarekin, uztailaren 9an Loramendin bilera egingo dutela iragarri dute, 19:00etan; hortaz, ekimenarekin interesatuta daudenek bertara jo dezatela.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Txistulari taldeko kideak, alkandora berriarekin, San Juan bezperako kalejira egin aurretik. MIRARI ALTUBE

# Alkandorak estreinatu dituzte txistulariek

Talde itxura handiagoa hartu du txistulari taldeak alkandora berriekin; taldekide batek diseinatu eta egin ditu, gainera: Modu Bat markaren sortzaile de Katalin Antxiak. Pozik estreinatu zituzten domekan, San Juan bezperako ekitaldietan

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Aretxabaletako txistulari taldeko kideek alkandora berdeak estreinatu zituzten joan den domekan, San Juan bezperako kalejiretan. Orain arte ez dute uniformerik izan, eta alkandora horrek talde itxura handiagoa eman die. Pozik jantzi zituzten, harro, eta herritar askok nabarmendu zuten taldearen dotoretasuna.

**Grisa, ekitaldi serioagoetarako**

Katalin Antxia Abasolo diseinatzaile eta jostunak egin ditu, txistulari taldeko kidea bera ere: "Orain arte, zuria jantzi izan dugu ekitaldi formaletan, guztiok dugulako alkandora zuri bat etxean. Baina orain, edozeinetarako dugu; bata, berdea, eta bestea, gris iluna, ekitaldi serioagoetarako". Uniformeak ez dituela gustuko aitortu du Antxiak, eta horregatik alkandora sortu izana: "Sekula ez zaizkit gustatu. Ondorioz, norberari egokitutako alkandorak egin ditut, pertsonalizatuak. Hainbat proba egin dizkiet, banan-banan. Samur erabiltzeko modukoak izan daitezen gura nuen". Eta bi modelo sortu ditu: mutilena, maho lepokoarekin; eta neskena, paparhegalekin.

Modu Bat markaren sortzailea da Antxia, moda jasangarria oinarri duen marka eta *slow fashion* mugimenduarekin bat egiten duena. Hala, oihalen ezaugarriak asko zaintzen ditu: "%100 oihal organikoa erabili dut, iraunkorra dena, mantentzeko erraza. Baina esan diet taldekideei ondo plantxatzeko gero!".

Udalaren laguntzarekin ordaindu dute oparia, eta txistulariek oso gustura jaso dituzte. Antxiak diseinatu duen bigarren uniformea da; orain dela lau urte, Tabakalerako informazio puntuko eta Mediatekako langileendako egin zuen.

**OTSAILETIK SARAN DU TAILERRA KATALIN ANTXIAK, ETA HANDIK EGITEN DU LAN MODU BAT MARKAREKIN**

**Tailerra Saran, martxoa ezkero**

Hainbat kokagune izan ditu Antxiaren tailerrak azken urteotan, baina otsailaz geroztik Saran (Lapurdi) dago. "Martxoan ireki nituen hango ateak eta benetan gustura nago. Herri txikia da, baina, era berean, mugimendu handia duena, inguruko herrien bilgune delako".

Lau ildotan banatuta du Modu Bat-en lana. "Batetik dago marka bera eta hor egiten ditudan lanak; bestetik, neurrira egiten ditudan jantziak, ezkontzetarako sarri, baina baita bestelakoetarako ere; hirugarrenik, ikastaroak eskaintzen ditut, eta harrera beroa egin didate horri dagokionez; eta azkenik, konponketa lanen zerbitzua eskaintzen dut".

Aretxabaletan ere eskainiko du patroigintza eta joskintza ikastaroa datorren astelehenean hasita, hiru egunez.



*Turistreando* laneko une bat. TRAPU ZAHARRA

## Trapu Zaharra-k jarriko du abian kale antzerkiaren zikloa

Lau emanaldi izango dira, uztaileko eguaztenetan, eta antzezlanak eta dantza saioak eskainiko dituzte

**M.A.** ARETXABALETA

Azken urteotan legez, oraingoan ere, kale ikuskizun sorta eskainiko du herriko erdigunean Udaleko Kultura Sailak. Herritarrek ondo ezagutzen duten Trapu Zaharra taldeak eskainiko duen *Turistreando* lana izango da lehenengoa, uztailaren 3an, Durana kalean (19:00). Opor pertsonalizatuak eskaintzen dituen San Fernando bidaia agentziaren gorabeherak ekarriko dituzte Santi Ugalde eta Mila Espiga aktoreek.

Bigarren antzezlana entzute handiko Markeliñe konpainiak eskainiko du: *Chef nature* obra, hain zuzen ere. Uztailaren 24an izango da, Herriko Plazan (19:00).

**Dantzak eta zirkuari keinuak**

Dantzek ere izango dute lekua kalean. Hilaren 10ean, Dikothomia konpainia etorriko da, *Spazi…o* lanarekin. Zirku garaikideko emanaldia izango da, mugimenduak oinarri izanda.

Kresalak, ostera, *Ikono-grafiak*-ak eskainiko du hilaren 17an, Herriko Plazan. Gene Yurre dantzariak 1963an sortutako talde aitzindaria da euskal dantzaren bilakaeran.

## GORA ETA BEHERA



ARETXABALETAKO UDALA

### Kurtzebarri BHIko gelan lapurreta

Kurtzebarri institutuak mojen komentuan erabiltzen duen gelan lapurrak sartu ziren joan den astean. Teknologiako tailerretik materiala eraman zuten, eta inguru guztia zikinduta utzi.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.


Eskoriatzako udalbatza berriaren lehenengo osoko bilkura egin zuten eguaztenean. IMANOL BELOKI

# Sei batzorde eratu dituzte agintaldirako

Eskoriatzako udalbatza berriaren lehenengo osoko bilkura egin zuten eguaztenean; batzordeen eraketa, alkatearen soldata eta Arlaban mendateko errepidea konpontzeko Foru Aldundiari bideratzeko eskaera izan zuten hizpide, besteak beste

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Eguaztenean egin zuen Eskoriatzako udalbatza berriak lehenengo osoko bilkura, eta hemendik aurrerakoak zenbatean behin egin behar diren eta zein egunetan adostu zuten lehenbizi. EAJren proposamena hileko laugarren martitzenean 18:00etan izatea izan zen, eta, EH Bilduk beranduago jartzeko eskatu bazuen ere, familiaren kontziliazioa dela-eta, planteamenduari eutsi zion EAJk.

Batzorde informatiboak eratu zituzten, gero, eta pasa den agintalditik hona aldaketak egingo dituzte. Bost batzorde izatetik, sei izatera pasako dira: Garapen Ekonomiko Jasangarrian, Antonio Regaño; Kultura eta Kirolean, Puri Regidor; Gizarte Zerbitzuetan, Maite Uribe; Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumenean, Josu Ezkurdia; eta Euskara, Gazteria eta Hezkuntzan eta Pertsonal eta Ogasunekoan, Joserra Zubizarreta izango dira batzordeburuak.

Horren aurrean, EH Bilduko ordezkariak lanerako prest agertu ziren, eta proposamen gehigarria aurkeztu zuten azpibatzordeak eratzeko. EAJk funtzionatzeko era horrekin hasi nahi duela adierazi zuen aurreko agintaldiko esperientzia kontuan hartuta, baina funtzionatzeko beste era batzuetara irekita daudela adierazi zuten.

### Alkatearen soldata igoera

Alkatearen soldata ere izan zuten hizpide. 59.188,22 euro kobratuko dituela adierazi zuten osoko bilkura aretoan. "Duela lau urte Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarri zuen ordena forala jarraituz, herriaren tamainaren biztanle kopuruaren arabera, soldata gutxiengoa eta gehiengoa dago, eta guk gehiengora jotzea erabaki dugu", adierazi zuen Josu Ezkurdiak. Honen aurrean, EH Bilduko Ander Errarte zinegotziak alkatearen soldataren igoerarekin desadostasuna agertu zuen. "Legalitatearen barruan dagoen arren, ez zaigu etikoa iruditzen soldata igoera hori, gaur egun, gure inguruko bizilagunek dituzten prekarietate, langabezia eta desbabes egoerak kontuan hartzen baditugu".

**OSOKO BILKURAK HILEKO LAUGARREN MARTITZENETAN IZANGO DIRA, 18:00ETAN**

### Arlabango errepidea hizpide

Amaitzeko, EH Bilduk GI 627 errepidea Arlaban mendatearen tartean konpontzeko Foru Aldundiari bideratzeko eskaera egin zuen mozio bidez, errepidearen egoera desegokiaren ondorioz hainbat istripu izan direla adieraziz. Mozioa ez zen onartua izan –EAJren ezezko botoekin, Elizateen abstentzioarekin eta EH Bilduren baiezkoarekin–, baina gaia lehenengo batzorde bileran landuko dutela adierazi zuten.


Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko hainbat kide Txoko Feministan. IMANOL BELOKI

## Txoko Feminista inauguratu dute Emakumeen plazan

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeko kideek informazio eta hausnarketarako gunea jarri dute bertan

**I.B** ESKORIATZA

Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldeak Txoko Feminista inauguratu zuen atzo Emakumeen plazan. Hau da, Inkernu tabernaren aurrealdean. Bertan, Leire eta Irati musikariak izan ziren ekitaldia girotzen, dantza ere izan zen, eta herritarrei Eskoriatzan Feminismoa Bizirik taldearen informazioa emateko ere tartea hartu zuten.

"Genero berdintasuna lantzea helburu duen emakumez eta gizonez osaturiko talde bat gara eta gai hau, noski, ez da urtean bizpahirutan jorratu beharreko kontua, genero desberdintasunak emakumeengan eragiten dituen ondorioak larriak baitira. Honekin batera, gure ikurrak honako hauek dira: feminista, aniztasuna, herrikoia, burujabea, eta ez dugu alderdi politikoekin loturarik. Gure leloa, berriz, *Beti umorez eta maitasunez* da", adierazi zuen Kristina Cardenal taldeko kideak.

### Plaka txokoan

Emakumeen plazan plaka jarriko dute aurrerago, eta bertan, informazioa eta hausnarketarako gaiak izango dira herritarrentzat, jarri duten leihoan.


I.B

## Suaren bueltan dantzan

2002an jaiotakoak izan ziren San Juan bezperan tantaia altxatu eta sua piztu zutenak, Fernando Eskoriatza plazan. Aurten, 47 lagun izango dira Santa Ageda neska-mutil, eta hauek izan ziren protagonista domekan. Hala, tantaia igo eta sua piztu ondoren, dantzan aritu ziren suaren bueltan. Gainetik salto egitera ere hainbat herritar animatu ziren.

# Danborren burrunbarekin hasiko dituzte jaiak

San Pedro jaiak gaur hasiko dira, eta uztailaren 1era arte ekintza mordoa izango dira herriko hainbat txokotan. Gaur, San Pedro bezpera, Eskoriatzako Txistulari Taldeak botako du pregoia, eta gauean, nagusien danborrada izango da, besteak beste

**Imanol Beloki** ESKORIATZA
Gaur, ekainaren 28a, San Pedro bezpera da, eta eguerditik aurrera hainbat ekintza egingo diren arren, ofizialki 19:00etan emango zaie hasiera jaiei, txupinazoarekin eta pregoiarekin. Horren ardura Eskoriatzako Txistulari Taldeko kideek izango dute. Gauean, herritarren partaidetza handia izaten duen danborrada izango da, 22:30ean.

## Danbor hotsen gogoz

San Pedro jaiei hasiera emateko ekintza nagusia izan ohi da nagusien danborrada Eskoriatzan. Gaur arte, hainbat entsegu egin dituzte Joseba Iñurrategi pilotalekuan, eta, guztia prest, 22:30ean emango diote hasiera danborradari.

Aurten, bigarren urtez arituko da Andoni Moto eskoriatzar gaztea zuzendari, eta zortzi konpainiak hartuko dute parte bertan. Guztira, 257 pertsonak hartuko dute parte ekitaldian, eta honako kantu hauek eskainiko dituzte herriko kaleetan zehar: *Marcha San Sebastián, Diana, Iriyarena, Tatiago, Marcha Deba, Gau Ibillera, Marcha de Viejas* eta *Katiuska*.

Hau amaitzean, Puro Relajo taldea izango da Fernando Eskoriatza plazan, 00:30ean. Nafarroako taldeak kantu mexikarrak eta euskarazko kantu klasikoak eskainiko ditu.

## Txosnagunean, The Big Mac

Txosnagunea, berriz, 18:30ean irekiko dute, eta nagusien danborrada amaitu bezain pronto izango da eguneko ekitaldi nagusia. Hau da, The Big Mac saioa. 01:30etik aurrera, Eñaut Zubizarretak DJ lanak egingo ditu, bertaratzen direnak dantzan jartzeko asmoz.

## Txosnaguneko egitaraua

### EGUBAKOITZA 28

**18:30** Txosnagunearen irekiera eta Txorimaloaren jaitsiera.

**Ostean** Txaranga ibiltaria.

**01:30** The Big Mac.

### ZAPATUA 29

**03:00** Kontzertuak: Kilimak, Hortzaka eta Sofokaos.

### DOMEKA 30

**12:00** Sagardo dastaketa.

**14:00** Kuadrilen arteko bazkaria.

**Ostean** Bingoa eta jolasak.

**01:30** DJ Txorimalo.

### ASTELEHENA 1

**19:30** Kontzertuak: Wood String eta John Dealer And The Coconuts.

**00:00** Txorimaloari agurra.

## 2019 Egitaraua

### EGUBAKOITZA 28

**12:00** Umeentzako MARRAZKI LEHIAKETA, herriko plazan (4-12 urte).

**17:30** Chef Nature, Markeliñe taldearekin, Gorosarri plazan –euria egiten badu, Zaldibar antzokian izango da–.

**18:00** Gesaltza TXARANGA, herriko kaleetan.

**18:30** Arientzako kanpai joleen saioa kanpandorretik.

**19:00** Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA eta PREGOIA herriko plazan. Aurtengo pregoilariak herriko txistulariak izango dira. Ondoren, Musika Eskolako banda, txistulariak, buruhandiak eta Gesaltza TXARANGA kalejiran.

**19:30** Parrokiako abesbatzak Eduardo Gorosarriren SALBEA abestuko du San Pedro elizan.

**22:30** NAGUSIEN DANBORRADA.

**00:30** Dantzaldia Puro Relajo taldearekin, plazan.

### ZAPATUA 29

**10:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN

**11:00** GOITIBEHERA JAITSIERA herrikoia egingo da, bigarren urtez, Bolibarko errepidetik.

**11:45** ELIZBIRA.

**11:50** Udalbatza elizara joango da, txistulariek lagunduta.

**12:00** MEZA NAGUSIA San Pedro elizan, parrokiako abesbatzarekin.

**12:30** Apaxi ipuin kontalaria, Zaldibar antzokiko plazan (0-6 urte).

**13:00** Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA, herriko plazan.

**17:30** Kuadrillen arteko jokoak –6-12 urte, PLAZAN; eta 12-17 urte, GERNIKA PLAZAN–.

**18:30** ESKUPILOTA partidak, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Sarrerak: 5 euro: 1. partida: Aritz Zubia/ Mikel Etxezarreta vs Aritz Zugasti/Asier del Campo. 2. partida: Urbieta II.a/ Beroiz vs E. Labaka/ Merino.

**18:30** Hiri-dantzak, breakdance eta rap saioak, plazan –euria egiten badu, kiroldegian–.

**19:30** MEETING POINT dantza ikuskizuna Ertza taldearekin plazan.

**20:00** Dantzaldia Nuevo Talisman orkestrarekin.

**20:30** Kuadrillen arteko jokoetan parte hartzen dutenentzat afaria gaztelekuan.

**22:00** Disko festa liburutegiaren kanpoaldean 12-17 urte bitarteko gaztetxoentzat –alkoholik gabeko koktelak, musika, opari zozketa...–.

**22:30** MUSIKAL GUZTIAK IA IA ikuskizuna DEMODE QUARTET taldearekin, Gorosarri plazan.

**23:30** Dantzaldia, plazan, Nuevo Talisman orkestrarekin.

### DOMEKA 30

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**12:00** Herriko hildakoen aldeko MEZA.

**12:00** Entzierro txikia Apotzagako bidetik Intxaurtxuetara. Bertan, errekortadore eskola ibiltaria.



**13:00** SONIDOS DE MEXICO mariatxi taldea, plazan –euria egiten badu, Zaldibar antzokian–.

**16:00** 28. MUS TXAPELKETA, erretiratuen tabernan.

**18:00** Irulitxa TXARANGA, herriko kaleetan zehar. Erretiratuen tabernan.

**18:30** HAURREN DANBORRADA.

**22:30** ZAPATOS EN EL AIRE ikuskizuna, Gorosarri plazan –euria egiten badu, kiroldegian–.

**23:00** Kontzertuak: Onki Xin eta Nogen, plazan.

### ASTELEHENA 1

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**12:00** TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELA, herriko plazan.

**12:00-14:00 eta 17:00-20:00** Haurrentzako parkea: uretako txirrista erraldoia eta rokodromoa tirolinarekin, Zaldibar antzoki aurrean.

**12:00** Musika Eskolako DANTZA TALDEA, plazan.

**13:00** TRIKITILARIEKIN KALEJIRA.

**15:00** HERRI BAZKARIA, herriko plazan. Prezioa: 17 urtera arteko menuak, 10 euro; 18 urtetik gorakoak, 18 euro.

**Ondoren** Kantu txapelketa. Oinarriak: webgunean eta *app*-ean.

**19:00** VI. buruhandien txirrindulari lasterketa, plaza ondoan, 16 urtetik gorakoentzat – Hiru sari egongo dira: lehenengoa, 80 eurokoa; bigarrena, 50 eurokoa; eta, hirugarrena, 30 eurokoa–.

**Ondoren** Buruhandiak eta Laket taldearekin dantzaldia.

**22:00** Dantzaldiak jarraituko du Laket taldearekin.

**00:00** BANDERA JAITSIERA eta suzko erruberak –suak Gernika plazatik botako dira–.

# 'San Pedro txiki' jaiak berreskuratu nahi dituzte

Irailaren 14an egitea adostu dute San Pedro eta Intxaurtxuetako jai batzordeko kideek

**I.B** ESKORIATZA
*San Pedro txikiak* izenez ezagunak ziren jaiak San Juanen aurretik egiten ziren lehen, eta, urte batzuetan egin ez badira ere, jai batzordea osatzen duten auzo horietako kideek hainbat hilabetez prestaketa lanak egin ostean, irailaren 14an egitea adostu dute. Horiek gauzatzeko laguntza ekonomikoa eskatu dute; atari bakoitzeko 30 euro. Hau da, kantitate sinbolikoa, hiru euro etxeko. Batutako diruarekin, Udalaren eta tabernen laguntzarekin eta antolakuntza lanetan arituko diren boluntarioekin jaiak gauzatzea posible izango dela adierazi dute jai batzordekoek. Auzotarren ekarpenak Compostela eta O'Dogherty tabernetan jasoko dituzte, eta ekarpen horiek egiteko azken eguna uztailaren 26a izango da. Hain zuzen, haurrei zuzendutako jokoak, herri bazkaria, dantzak, parrilada eta DJak antolatuko dituztela adierazi dute.

Herri bazkarirako txartelak erosteko epea dagoeneko zabaldu dute. Horretarako azken eguna irailaren 6a izango da, eta Compostela eta O'Dogherty tabernetan erosi daitezke, 10 euroren truke. Menua itsaski-fideua izango da.

# Zarimutzeko jaiak zapatu honetan ospatuko dituzte

Urtero moduan, San Pedro egunean ospatuko dituzte Zarimutz auzoko jaiak. Egitarau xumea antolatu badute ere, herritarrei gonbidapena egin gura izan diete antolatzaileek: 12:00etan, meza izango da Zarimutzeko San Pedro elizan, eta Santa-Agedako korua izango da bertan abesten. Ondoren, luntxa izango da, trikitilariek girotuta.

# Nahia Arguiz Espainiako Txapelketan arituko da

Asteburuan jokatuko da, Zaragozan, Espainiako gimnasia erritmikoko kopako bigarren fasea, eta Eibar Ipurua taldeko kideekin batera taldekakoan lehiatuko da Arguiz, bi uztai eta hiru mazo pareko ariketan. Banakakoan, berriz, mazoekin eta zintarekin

**Imanol Beloki** ESKORIATZA

Asteburu honetan, Espainiako gimnasia erritmikoko kopako bigarren fasea jokatuko da Zaragozan. Gaur hasiko da, eta domekara bitartean gauzatuko da, eta bertan, indibidualki eta taldean egingo dituzte ariketak parte-hartzaileek. Hori horrela, Eskoriatzako ordezkaritza ere izango da bertan. Izan ere, Nahia Arguiz gimnasta eskoriatzarra Eibar Ipurua taldeko kideekin batera arituko da lehian.

Senior mailan, taldekakoan arituko da Arguiz, alboan izango dituen Alaitz Arabarri, Jennifer Hernandez, Nahia Gonzalez eta Arrate Baroja gimnastekin, eta domekan, 13:30ean egingo dute bi uztai eta hiru mazo pareko ariketa. Beraiekin batera izango dira tapizaren alboan babesa eta laguntza ematen talde teknikoa osatzen duten Tania Nagornaia, Miriam Merino, Natalia Urmakaeva eta Helena Jauregi.



Nahia Arguiz gimnasta. ANGELA

**Ariketak, gaur eta zapatuan**

Taldekako ariketaz gain, banakako saioa ere egingo du Ipurua taldeko Nahia Arguiz Eskoriatzako gimnastak. Senior mailan, mazoekin arituko da, gaur, 17:24an. Bihar, zapatua, aldiz, zintako ariketa egingo du, 14:54an.

**Denboraldi borobila**

Denboraldi bikaina egiten ari da Ipurua gimnasia taldeko senior mailako Nahia Arguiz gimnasta. Izan ere, Gipuzkoako txapelduna da, senior kategorian urrezko domina lortuta mazoen ariketan. Gasteizen jokatutako federatuen maila absolutuko taldekako Euskadiko Txapelketan, berriz, Alaitz Aranbarrirekin batera urrea lortu zuen, eta gimnasia erritmikoko Euskadiko txapeldun izendatu. Horrekin batera, brontzezko domina lortu zuen taldekakoan, apirilean, Guadalajaran jokatutako Espainiako kopako lehenengo fasean. Hori horrela, asteburu honetan, Espainiako gimnasia erritmikoko kopako bigarren fasean orain arte egindako bideari jarraituz, ahalik eta emaitza onena lortzera joango da Arguiz taldekideekin batera.





Haizea Egiguren eta Edurne Mendizabal *Alu Ulu* antzerki eskaintzen. ARREMANITZ

## Sexualitatea umoretik kontatu ostean, foroa izango da

Uztailaren 11n, 18:00etan, kultura etxean izango da 'Alu Ulu' antzerki foroa, emakumeei zuzenduta

**Imanol Beloki** LEINTZ GATZAGA

Arremanitz kooperatibak eskainita, emakumeei zuzendutako *Alu Ulu* antzerki foroa izango da uztailaren 11n, Leintz Gatzagako kultura etxean, 18:00etan.

Lehenengo eta behin, 45 minutu inguruko bakarrizketa eskainiko dute Haizea Egiguren eta Edurne Mendizabal protagonistek; Plax! sexologia zerbitzuko itxaron gelan gertatzen da. Bertan, emakumeen sexualitatea umoretik kontatuko dute, onarpenetik, plazeretik, bertaratzen direnei plazaratzeko asmoz. Hala, sexualitateaz gain, parekidetasuna, hezkidetza eta tratu onak ere izango dituzte hizpide.

**Foroa, entzundakoa hausnartzeko**

Bakarrizketa amaitzean, foroan, talde txikitan lan egiteko aukera zabalduko dute ordubetez. Saioa eskainiko dutenek sexualitatearen gaia bizipenetatik lantzea da parte hartzaileei proposatuko dietena, eta, horretarako, saioa entzuten izan direnen sormena baliatuko dute. Hala, parte-hartzaileek marrazkia, bertso-rap kantua, mugimendua... erabiltzeko aukera izango dute.

## Travelling Brothers taldeak irekiko du aurtengo Errekan Gora

Atxorrotx Kultur Elkarteak antolatutako kultura jaialdiaren hamabigarren edizioa da aurtengoa

**I.B** ESKORIATZA

Uztaileko hiru asteburutan eta iraileko beste asteburu batean izango dira saioak, eta herriko txoko ezberdinak erabiliko dituzte horretarako. Travelling Brothers –uztailaren7an, domekan, Fernando Eskoriatza plazan, 19:30ean–, Lau Eme –uztailaren 12an, Gorosarri plazan, 22:30ean–, Eskean Kristo –uztailaren 19an, egubakoitza, Gernika plazan, 22:30ean– eta Petti –Irailaren 14an, zapatua, Emakumeen plazan, 22:30ean– izango dira egitaraua osatuko dutenak. Lehenengo hirurak uztailean eta azkena, irailean.

Hainbat helburu dituen egitasmoa da; betiere, kultua uztartu eta hedatzea ardatz direla. Uztaileko asteburuak girotzeko asmoz antolatzen dute Errekan Gora jaialdia. "Hausnarketa bat egin dugu Atxorrotx Kultura Elkarteko kideok, eta salto bat gurako genuke egin. Kalitate aldetik uste dut talde onak ekartzen ditugula, baina kantitate aldetik gehiago ekarri nahiko genituzke", adierazi du Edorta Barandiaran elkarteko kideak.

**Hasteko, bluesa**

Lehenengo emanaldia uztailaren 7an izango da, eta Travelling Brothers talde bizkaitarra izango Errekan Goraren hamabigarren edizioaren egitarauari hasiera emango diona. Zuzeneko emanaldi bizi eta ikusgarria eskaintzen duten blues alorreko musikariak dira. Estatuko jaialdi, klub eta areto handi askotan eskaini dituzte emanaldiak, eta Europako herrialde askotan birak eta itzuliak egin dituzte; horrez gain, AEBetan jotzen ere izanak dira.

Barandiaranek adierazi duenez, ez da lehenengo aldia bizkaitarrak Eskoriatzara datozela: "Hirugarren edo laugarren edizioan izan ziren, baina beste formatu batean. Seikote moduan izan genituen, eta orain, zortzikote moduan datoz".



GARAZI OROBENGOA

## Gatzagarrak, suaren bueltan

Ekainaren 23an, San Juan bezperan, sua piztu zuten gatzagarrek herriko plazan, ohiturari jarraituz. Horren aurretik, baina, ekintza ugari izan zituzten, eguna aprobetxatzeko asmoz; besteak beste, bolo jokoa, ira sortak etxez etxe banatzea, haurren jolasak eta parrilada. Horren ostean, sua piztu zuten, espiritu txarrak uxatzeko asmoz.



Hainbat herritar soltean dantzatzen San Martzialgo erromeriaren amaieran, iaz. IMANOL SORIANO

## Egitaraua

**EKAINAK 29, ZAPATUA (SAN PEDRO EGUNA)**

**18:30** Erraldoien KALEJIRA, Bergarako txistulari bandak lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Irizar pasealekua, Barrenkalea eta San Martin plaza.

**22:00** *Mila esker eta gero arte Alfredo* KONTZERTUA, Udal Pilotalekuan. Bergarako Orkestra Sinfonikoa eta lagunak.

**EKAINAK 30, DOMEKA (SAN MARTZIAL EGUNA)**

**07:00** KANPAI JOTZEA Santa Marinan.

**07:30** Santa Marinatik San Martzialera IGOERA, letania errezetatuz.

**09:30** ALBORADA: Lizarrako dultzaineroak, Zumarragako trikitilariak, Bergarako Txistulari Banda eta Incansables txaranga.

**10:00** San Martzialera IGOERA gurdiarekin.

**11:00** San Martzialen, MEZA NAGUSIA. Antolatzailea: Bergarako parrokia.

**12:00** DANTZA EMANALDIA. Jarraian, Sebastian Lizaso eta Maddalen Arzallus BERTSOLARIAK. Ondoren, ohiko AURRESKUA dultzaineroekin eta Zumarragako trikitilariekin. Segidan, abesti herrikoiak kantina ondoan eta, gero, ARGAZKI ERRALDOIA *47ak Herrian* ekimena babesteko, Gure Artera-k antolatuta.

**15:30** Umeendako eta gaztetxoendako JOLASAK eta HERRI KIROLAK.

**17:00** HERRI KIROLAK: Sokatira eta txingak. Izen-ematea 16:15ean hasiko da zelaian. Sokatiraren eta txingen arteko tartean IRRINTZI TXAPELKETA egingo da.

**18:00** ERROMERIA Ezten Giro taldearen eskutik.

**19:30** Incansables txaranga eta Zumarragako trikitilariak. Ondoren, Lizarrako LARRAIN-DANTZA dultzaineroen laguntzarekin.

**21:00** JAITSIERA, Bergarako txistulari bandakoek, Lizarrako dultzaineroek, Zumarragako trikitilariek eta Incansables txarangakoek alaituta. Santa Marinara heltzerakoan, geldialdia egingo dute guztiek batera dantzatu dezaten.

# Betikoa, herrikoiena eta dantzariena den erromeria badator

San Martzial eguna da domekan, bergarar askorentzat urteko jairik kutunena dena; mezaz gain, musikak, bertsolariek eta, bereziki, dantzak hartuko dute San Martzialgo berdegunea, eta Udalak dei berezia egin du "horren baliotsua den altxorra" zaintzeko

**Jokin Bereziartua** BERGARA

"Ez daukat zalantzarik, gehien bizi dudan jaia da. Dantzari moduan urte asko egin ditudalako izango da, akaso, baina San Martzialen egoten den giroa oso berezia da. Adin ezberdinetakoen artean izaten den harreman hori izugarri gustatzen zait". Hitz horiek ditu Xamatz dantza taldean urte luzez eta San Martzialen urtero dantzatzen duen Arkaitz Aranak domekan egingo den San Martzialgo erromeria deskribatzeko, eta 25 urte baino gehiago daroatza jaia ospatzen.

**Dantzarik gabe, erromeriarik ez**

Aurten, gainera, San Martzial egunean bertan tokatzen da ospakizuna eta badirudi eguraldiak lagundu egingo duela. Urteko erromeriarik bereziena izanik, dantzek berebiziko garrantzia izan dute historikoki. "Soka dantza betidanik ezagutu izan dut San Martzialen, hasi nintzenetik. Hain zuzen, Xamatzeko dantzariak ohikoak izan gara San Martzialgo erromerian", adierazi du Aranak.

Mezaren eta Sebastian Lizaso eta Maddalen Arzallus bertsolarien ostean hasiko dira dantzak. "Xamatzekook urte askotan egin izan ditugu taldeko dantza batzuk eta gero soka dantza, baina dagoeneko urte askotxo dira gure taldeko dantzak egiten ez ditugula. Soka dantza mantendu egin da, eta baita, nola ez, osteko erromeria ere", gaineratu du Aranak.

**SOKA DANTZAN ZAZPI AURPEGI BERRI IZANGO DIRA AURTEN, ETA ZINEGOTZIEK ERE HARTUKO DUTE PARTE**

**Udalbatzako kideak ere dantzari**

Udalbatzako ordezkarien dantza ere bada azken urteetan berreskuratu den ohituretako bat. "Entzunda daukat aspaldi korporazioak dantzan egiten zuela, baina, ni hasi nintzenean, duela 25 urtetik gora, udaletxeko parte hartzerik ez zegoen. Urte batetik aurrera, berreskuratu egin zen, eta, ordutik, urtero hartu izan dute parte. Aurten ere egongo dira soka dantzan".

Gainera, Aranak aurreratu du aurtengo soka dantzak aurpegi berriak izango dituela: "Aurreskua eta atzeskua dantzatuko dutenak berriak izango dira aurten. Eta hamalau dantzarietatik zazpi berriak izango dira. Haize freskoa ekarriko dute".

**Ingurunea zaintzeko dei berezia**

Erromerian sortzen den giroak urtero argazki ederrak uzten baditu ere, biharamunak argazki itsusiak utzi izan ditu, bereziki, azken urteetan: denetariko zaborra berdegunean zehar botata. Horren aurrean, Udalak hainbat eskaera egin izan ditu San Martzialgo eremua "modu jasangarrian" erabili eta herriko "altxor baliotsua" dena guztion artean zaintzeko. Batetik, zuhaitzak eta enbor zaharrak errespetatu egin behar dira; izan ere, San Martzialgo zuhaiztian haritzak, gaztainondoak, pagoak eta lizarrak daude, eta baita zuhaizti horretako elementu baliotsuak diren hildako enborrak ere: "Horiek denak kontu handiz zaindu behar ditugu". Hala, ezingo da zuhaitzetan iltzerik edo inolako beste elementu arrotzik sartu, eta ezingo da zuhaitzen adarrik moztu edo hostorik kendu. Gainera, hildako enborrak babesteko jarrita egongo diren egurrezko hesiak ere errespetatu egin behar dira.

**INGURUA ZAINTZEKO DEI EGIN DU UDALAK: "SAN MARTZIAL ZEGOEN MODUAN UTZIKO DUGU"**

**"Zegoen moduan utziko dugu"**

Hondakinak gaika bilduko dira, eta jaia amaitzean gune ezberdinetan jarriko diren edukiontzietara eraman: "San Martzial zegoen moduan utziko dugu". Hau da, bertara igotako elementu guztiak batzeko ardura izango dute horiek igo dituzten herritarrak: mahaiak, aulkiak, estalkiak, kupela...

Udalak gogora ekarri du, aldi berean, San Martzialen dauden azpiegitura eta elementu guztiak daudenetan utzi behar direla eta eskatu dute Udalarenak diren lurretatik kanpo mahairik ez jartzeko, baldin eta aurrez lur-jabeen baimenik lortu ez bada. Horrekin batera, ezingo da surik egin lurrean zuzenean: "Eta sua egiteko gailu guztiak tentuz erabili, betiere".

# Bergarako lekuen izenak eta beste, berbagai atzoko hitzaldian

Euskara Zerbitzuak nahi du 'www.bergarakoeuskara.eus' webgunea kolaboraziorako plataforma izatea, besteak beste

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Bergarako lekuen izenen gaineko hitzaldia eman zuten atzo, Irizar jauregian, Estepan Plazaolak eta Miren Azkaratek. *750 urte eta aurrera* hitzaldi zikloaren barruan antolatutako saioa izan zen, edonori zabalik: "Edozein herritako leku-izenak normalizatzeak hiru fase ditu: leku-izenak ikertzea; ikerketa horretan oinarrituta, finkatzea edo arautzea; eta finkatutakoa egoki erabiltzeko zabalkundea egitea. Hirugarren fasean kokatuko nuke hitzaldi hau", dio Plazaolak. Hain zuzen, aurreko bi faseetan Bergaran egin denaren berri eman zuten modu dibulgatzailean.

**Lekuen izenak, beharrak eraginda**

Baina nola sortzen dira lekuen izenak? Beharrak eraginda, Plazaolaren arabera: "Gauzak izendatzen ditugun moduan, lekuak ere izendatu beharra dugu. Leku-izenak sortu, berez, mila jatorrirekin sortzen dira: paraje bati izena eman diezaioke, adibidez, han ugariena izan den landare batek –Pagoeta, Aritzeta, Txillardegi–; etxeak ere har dezake parajearen izena –Pagoeta edo Aritzeta–; edo etxe horretan bizi izan den pertsonaren izenetik etor liteke –Belengoa, Gillengoa, Kalistokoa–; edo baita lanbidetik ere –Arotzena, Errementarikoa–.

Hain zuzen, Udaleko Euskara Zerbitzuak orain dela urte batzuk sortu zuen Bergarako euskararen gaineko webgunea –*www.bergarakoeuskara.eus*–, baina Plazaolak dio askok ez dutela ezagutzen: "Pentsatzen dut gutxi ezagutzen dela, eta, ondorioz, gutxi erabiltzen dela. Nahiko genuke jendeak kolaboratzeko plataforma izatea eta animatu nahi dugu jendea horretara; batzuek dagoeneko parte hartze nabarmena izan dute". Azken helburua delako, apurka bada ere, bergararrek euren herriko lekuen izenak modu zuzenean erabiltzea.



Iazko soka dantzaren une bat, lehenengoz erabat parekidea izan zena. GOIENA

## Dantza parekide egitea, "naturala"

Iaz, lehenengoz egin zen soka dantza erabat parekidea. "Neskak sartzen joan ziren gutxika eta bazegoen neska gehiagok parte hartzeko nahia; iaz, erabat parekidea egiteko helburua zehaztu genuen; gizarteak bultzatutako prozesu natural bat izan da", adierazi du Xamatzeko kide ohi Arkaitz Aranak. Aurten, 14 dantzari irtengo dira, eta, %100ean parekidea izango ez bada ere, emakumeen presentzia bermatuta egongo da. Gogora ekartzeko, soka dantzak hiru zati izango ditu: sokako azkenak atzeskua eta lehenak aurreskua egingo dute, desafio eran, hasieran eta erdialdean; gero, sokako partaide guztiek alpargata edo axeri dantza egingo dute; bukatzeko, sokako lehenak eta azkenak aurreskua dantzatuko dute. Borobiltzeko, herri guztia gonbidatuko dute fandangoa eta arin-arina dantzatzera.

# Kiroldegirako lanak, martxan

Astelehenean hasi ziren Labegaraieta auzoko kiroldegi ondoko biltegi zaharra botatzeko lanak, eta, Udalaren arabera, hilabete iraungo dute lan horiek. Hala ere, kiroldegi barruko lanik esanguratsuenak 2020an hasiko dira: kantxa berria, sarrera berrantolatzea, komunak eta taberna birkokatzea, igogailua jartzea, rokodromoa handitzea eta bi lokal berri egokitzea, besteak beste.



BERGARAKO UDALA



Mutil kuadrilla San Martzialgo erromeriaz gozatzen. PEDRO GARITANO

## 1960ko sanmartzialez gozatzen

San Martzialgo erromeria aspalditik errotuta dagoen seinale, *La voz de Guipúzcoa*-n Miguel de Unamuno filosofo ezagunak –aita eta aitajauna bergararrak zituen– 1888. urteko erromeriaren gaineko artikulu luze bat idatzi zuen; Unamuno irakurrita ondoriozta daiteke orduko eta egungo erromeria, izaten den giroari dagokionez, nahiko antzekoa dela. Horren atzera egin gabe, Pedro Garitanok bidalitako goiko argazkia 1960koa da. Bergarako mutil kuadrilla bat, jaiaz gozatzen; lehen lerroan, eskuinetik ezkerrera: Jose Luis Larrañaga, Iñaki Gabilondo, Markos Gisasola, Josu Eguren, Balentin Gantxegi eta Joxe Alberdi. Bigarren ilaran, ezkerretik eskuinera: Bixente Eguren, Pedro Garitano, Martin Gantxegi, Jose Mari Sasieta –tapatuta–, Jose Mari Larrañaga eta Antton Juaristi. "Ni naiz bizirik jarraitzen duen bakarra, hau da hau panorama...", adierazi du Garitanok.

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
Proiektuak - Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak - Eskailerak -
Leihoak - Tarimak -
Egur lanak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com
21K KALITATEA

# "Arazoak ditugun arren, Batzarra dut ondoan"

Ekainaren 23an egindako hauteskundeetan, Angiozarko bizilagunek Mila Elortza aukeratu zuten alkate hurrengo lau urteetarako; bailarak "hainbat behar" dituen arren, AHTaren obren kalteei aurre egitea eta barruko auzoen arteko komunikazioa hobetzea dira lehentasunak

**Jokin Bereziartua** BERGARA

Ekainaren 23an egin zituzten Angiozarren alkatea eta Batzarreko kideak aukeratzeko hauteskundeak. Zortzi auzotan banatuta, gaur egun, 311 bizilagun ditu Angiozarrek eta bizilagun horiek Mila Elortza aukeratu dute alkate hurrengo lau urteetarako; Elortzak badaki zer den hori, 1999tik 2011ra izan zen-eta Angiozarko alkate.

Angiozarrek "hainbat behar" baditu ere, bi nabarmendu ditu Elortzak: "AHTaren lanak sekulako sarraskia eragiten ari dira azken asteetan, eta bailara barruko komunikazioa ezinbestekoa zaigu; hauteskundeotan konturatu gara kaletik urrunen dauden auzoetan izan dela parte-hartzerik handiena. Eurekin kontatzea nahi dute".




Mila Elortza, Angiozarko sarreran, aurtengo martxoan. JOKIN BEREZIARTUA

### Gero eta populazio zaharragoa

Elortzak badaki "lan handia" izango duela: "300 bizilagun baino gehiago gara, eta gero eta populazio zaharragoa. Arazo mordo bat daude, baina badugu oso ona den zerbait: Batzarra. Ondoan hamalau batzarkide izango ditut lanerako gertu egongo direnak. Gainera, aldaketa batzuk egin nahi ditugu, lantaldeak autonomoagoak eta eraginkorragoak izan daitezen". Udal Gobernu berriarekin elkartu dira dagoeneko eta "jarrera aldaketa nabarmena" igarri dutela dio Elortzak: "Lehen aldia da Bergarako alkate bat Angiozarko hauteskundeetan egon dena; keinu hori asko eskertu dugu".

**ELORTZAK IRAILAREN 29AN HARTUKO DU KARGUA; 1999TIK 2011RA ERE IZAN ZEN ANGIOZARKO ALKATE**

### Lehen hauteskundeak, 1977an

Angiozarrek betidanik izan duen izaera propioaren adibide garbia dira hauteskundeak. Izan ere, 1977an, Franco hil osteko lehen udal hauteskundeen aurretik egin ziren lehen hauteskundeak; etxez etxe jaso ziren botoak, eta orduan, alkatea eta sei batzarkide aukeratu ziren. Ordutik, udal hauteskundeekin batera hautatu dira alkatea eta batzarkideak. Alkatearen kargu-hartzea eta Batzar berriaren eraketa San Migel egunez egingo dute; Elortzak irailaren 29an hartuko du kargua.

## Inoizko parte-hartzerik baxuena

Domekan, 253 bizilagun zeuden deituta botoa ematera eta horietatik 146k bozkatu zuten; parte hartzea %57,78koa izan zen, orain arte izan duten baxuena: "Aztertzen ari gara zergatik izan den beherakada; bizilagunekin egon beharra dugu". Mila Elortzak jaso zituen boto gehien eta bizilagunek beste 14 batzarkide ere aukeratu zituzten, auzo guztietako ordezkariekin.



Angiozarko bizilagun bat botoa emateko gertu, ekainaren 23an. MILA ELORTZA



NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA

## Harrotu arrokak

Harro egoteko eguna omen. Maindire, etxe zoko, hiri urrun eta kontaktu sareetan hautsak harrotu eta sexualitate aukera guztiak azaleratzekoa. Udaletxeetako balkoietako bandera koloretsuek ematen duten zilegitasuna baliatuz, zurikeriak botatzeko eguna ere bai. *Nik errespetatzen dut* eta *nik badut lagun bat* harrokeria susmagarri batekin entzungo dugu batzuen ahotan.

Hitzak bakarrik ez, jarrerak behar ditugu, ordea. Batzuek norberarekiko edo ingurukoekiko arroztasun sexualari aurre egin beharko diote, eta besteek beraien harrotasunik sekretuenak bistan jarri. Bistan jarri, nahi dugun eran. Gure sekretu guztiak publiko egiten ez ditugun neurri berean, sexualitatea gordetzeko ere askeak garelako. Norberaren aukerak egunero-egunero normaltasunez eta harro bizitzea baino jarrera eraginkorragorik ez dago. Harrotasunez, baina harrokeriarik gabe, bihur ditzagun gure, arrotzak zaizkigun aukera horiek guztiak. Gure etxeko egin ditzagun, eta kaleratu gaitezen elkarrekin harro egoteko moduko gizarte baterantz. Egon ziur, orduan leunduko direla arrokarik gogorrenak ere.

## 'Gara'-ri laguntzeko 80 harpidetza egiteko erronka zehaztu dute

*Gara* egunkariaren "espoliazioari" aurre egiteko 80 harpidetza berri egin nahi dituzte Bergaran. Isuna hiru milioi eurokoa da eta horretarako Euskal Herrian 10.000 harpidetza behar dira, gutxienez. Atzo egin zuten lehen saioa eta hurrengoa uztailaren 4an izango da, Iralan, 19:00etatik 20:30era. *Gara*-ri babesa adierazteko taldeak gogora ekarri du Bergarako alkate ohi Jose Luis Elkoro *Egin*-eko lantaldean zegoela 1998an: "1998an Espainiako Estatuak Baltasar Garzon epailearen bitartez *Egin* itxi, arduradunak atxilotu, epaitu eta espetxeratu zituen, zigor gogorrak ezarrita, eta tartean zegoen Jose Luis Elkoro".

Harpidetzez gain, *Gara*-ri babesa adierazteko ekitaldi txiki bat ere egingo dute uztailaren 4an: "Adierazpen askatasunarekin konprometitutako herria da Bergara, eta tamainako erantzuna ematea espero dugu".

## OHARRAK

### Bergararren arreta zerbitzua: udako ordutegia

Uztailaren 1etik irailaren 13ra ordutegia izango da 07:30etik 14:30era artekoa. Udalak herritarrei gomendatu die ez joateko 10:00etatik 13:00etara, jende pilaketa handiak egiten direlako.

### Azterketa sozioekonomikorako telefono inkestak

Astelehena ezkero 200 herritarri inkestak egingo dizkie IKEI enpresak, Udalak eskatutako azterketa sozioekonomikoari begira.

### Abian da euskarazko udako postal lehiaketa

Jardunen eskutik eta Udalaren laguntzaz antolatutako lehiaketan edonork har dezake parte, irailaren 16ra arte. Saria izango da 100 euroko bonua; argibide gehiagorako: 943 76 36 61 / 605 71 24 69.

### Udako aukeren azoka, Bedelkarren eskutik

Gaur egun osoan eta bihar goizean zehar, udako eskaintzen azoka egingo dute; denda atarietan egongo dira eskaintzak.

### Kartzela zaharra: udako afari girotuak

Uztailaren 5ean eta 12an egingo dira, 19:00etatik aurrera, eta bost euro ordaindu beharko da. Etekinak azken lapurretek eragindako kalte materialak ordaintzera bideratuko dira.

# Haurrak gustura udako II. futbol campusean

Bergara kirol elkarteak antolatuta, astelehenean hasi zuten udako II. futbol campusa 120 neska-mutikok. Bi txandatan banatu dute aurten, eta, hala, ekainaren 24tik uztailaren 5era, futbolaz gozatzeko aukera izango dute parte hartzaileek

**Jone Olabarria** BERGARA

Bigarren edizioa du aurtengoa udako futbol campusak, eta bi txandatan banatu dute oraingo honetan: ekainaren 24tik 28ra lehena eta uztailaren 1etik 5era bigarren txanda, nahiz eta bietan parte hartzeko aukera dagoen. Campuseko lehen egunez galdetuta, balorazio "oso positiboa" egin du Bergara kirol elkarteko lehendakari Iosu Elorzak: "Erantzun ona izan du eta haurrak gustura dabiltza. Lehen aste honetan 120 bat neska-mutiko ari dira parte hartzen eta datorren astean 40 bat izango dira. Batzuk errepikatu eta bi astez ere egongo dira campusean".

09:00etatik 13:00etara, futbolarekin lotutako ekintza ugari egiteko aukera izan dute bost edota hamar egunez haurrek: teknika hobetzeko ariketak, partiduak, txapelketa txiki bat, baita irteerak ere. Astelehenean ekin zioten campusari, aurkezpen saio batekin; taldeak banatu eta ongietorria egin zuten. 120 haurrak 10 monitoreren gidaritzapean egongo dira campuseko egunetan.



Aurtengo campuseko parte hartzaileak. BERGARA KE

Horretaz gain, futbolari gazteek hainbat profesionalen bisita jaso dutela azaldu du Elorzak: "Martitzenean, Jose Jabier Barkero jokalari profesional ohiaren eta datorren denboraldian gure lehen taldeko entrenatzaile izango denaren bisita izan zuten Agorrosinen". Hala, berarekin solasean aritzeko aukera izan zuten haurrek, baita bere esperientzia profesionala ezagutu eta zalantzak argitzekoa ere.

Eguaztenean, Iñaki Olartua eta Maialen Esnaola jokalari profesionalen bisita izan zuten: Olartua Santanderko Racing taldeko jokalaria da, Bigarren Mailara igo berria. Esnaola, berriz, bigarren mailako Monte taldeko jokalari ohia da eta Santanderko Racing taldeak Lehen B Mailarako fitxatu berria.

Esperientzia ezagutu soilik ez, haurrek futbolaren beste alderdi bat ezagutu dute, Elorzaren esanetan: "Prentsa galdetegi bat prestatzeko ariketa bat antolatu dugu. Lehen orduan haurrek galderak prestatu dituzte eta gero, prentsaurreko bat izango balitz bezala, jokalariei galderak egin dizkiete". Profesionalen bisitak "aberasgarriak" dira, eta haiekin zelaia partekatzeko aukera "asko" baloratzen dute haurrek.

Eguenean, irteera egin zuten Bilbora, San Mames zelaia ezagutzeko, eta, museora bisita txiki bat egin ostean, goiza igaro zuten Bilbon, 15:30era arte. Gaur, aste honetako campusari amaiera emateko, adin eta sexu ezberdineko jokalariz osatutako taldeak egingo dituzte, eta txapelketa txiki bat antolatu dute. Partiduen ostean, luntxa izango dute jokalari zein monitoreentzat.

Campuseko partaide gehienak mutilak direla azaldu du Elorzak, baina gero eta gehiago neskak ere animatzen direla dio: "Aurtengo campusean, guztira, 20 bat neska ditugu. Egia da mutil kopurua askoz handiagoa dela, baina urtez urte neska gehiago animatzen dira futbolera gerturatzera". Astelehenean ekingo diote campusaren bigarren txandari beste 40 futbolari txiki inguruk.

**Batzar orokorra uztailean**

Urteko batzar orokorra uztailaren 12an, egubakoitza, egingo du aurten Bergara kirol elkarteak. Irizar jauregian egin dute hitzordua, bi deialditan banatuta; lehena 18:30ean eta 19:00an bigarrena.

Bertara gonbidatu ditu bazkide guztiak. Lehendakariaren agurraren ostean, aurreko batzarreko aktak irakurri eta onartuko dira. Ondoren, kirol sailen txostena aurkeztuko dute, eta baita txosten ekonomikoa ere. Gero, datorren denboraldiko aurrekontua aurkeztu eta kuoten onarpena egingo da. Bukatzeko, galderak eta eskaerak izango dira.



Esnaola eta Olartua eguaztenean Agorrosinen. BERGARA K.E.

## Esnaolaren eta Olartuaren bisita

Iñaki Olaortua eta Maialen Esnaola jokalari profesionalen bisita izan zuten eguaztenean campuseko partaideek. Jokalarien esperientzia ezagutzeaz gain, haiekin jokatzeko aukera izan zuten campuseko gaztetxoek.

# Giro paregabea saskibaloiko hiruko txapelketan

San Martin plazan egin zuten, zapatuan, hiruko txapelketaren hamabigarren edizioa

**Jone Olabarria** BERGARA

Bergara kirol elkarteko saskibaloi sailak antolatuta, 75 taldek parte hartu zuten zapatuan hiruko saskibaloi txapelketan.

Goizean zein arratsaldean eguraldia lagun izan zuten txapelketako jokalariek, batzuetan "bero gehiegi" egin zuen arren. Antolakuntzatik ere pozik azaldu ziren, eta, Marian Mellado Bergara kirol elkarteko saskibaloi saileko arduradunak azaldu zuenez, txapelketa "arrakastatsua" izan zen: "Atzo hasi ginela ematen duen arren, hamabigarren aldia izan da gaurkoa eta geroz eta jende gehiago animatzen da urtetik urtera. Giro ederra egon da, eta inguruko herrietako jokalariak ere izan ditugu; Urretxu, Beasain, Arrasate edota Oñatikoak".

Aurten, nobedade bezala, enpresek ere parte hartzeko aukera izan dute: "Urtero saiatzen gara zerbait berria gehitzen eta aurten, enpresei luzatu nahi izan diegu gonbidapena".



Bi talde lehian aurtengo txapelketan. GOIENA



Aurtengo Pentekosteetako bandaren kontzertua. GOIENA

# Emozioz eta musikaz beteta, esker kontzertua

"Lanaren oroigarri eta agur modura" eskaintzeko asmotan antolatu dute 'Mila esker eta gero arte, Alfredo!' kontzertua Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta lagunek. Bihar, ekainaren 29an, egingo dute, Udal Pilotalekuan, 22:00etan hasita

**Jone Olabarria** BERGARA

Pentekosteetako kontzertuan esan zion agur Bergarako Musika Bandari Alfredo Gonzalez Chirlaquek, 54 urtez bertan aritu ostean, azken 32ak zuzendari.

Hark egindako lanari "aitortza bezala eta esker oneko keinu bat egiteko asmotan", haren omenezko kontzertua antolatu du Orkestra Sinfonikoak, urteetan zehar Gonzalez Chirlaquerekin batera aritu diren hainbat musikarirekin batera. Hala, Bandako kideek, Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Orfeoiak, Gazte Orfeoiak, Aritzeta abesbatzak eta musika eskolako haurren abesbatzak hartuko dute parte ekitaldian.

Orkestrako lehendakari Leire Ibarzabalek hauxe adierazi du: "Denok batera une asko bizi izan ditugu, eta, horregatik, oraingoan ere batera gozatu nahi genuen. Gonbidapena luzatu eta berehala eman zuten baiezkoa musikari guztiek; Alfredorekin ibili garen guztiok ilusioz biziko dugun kontzertua da".

Bi zatitan banatuko dute kontzertua, eta, aurkezle lanetan arituko diren Manu Diaz eta Aitziber Azkondoren eskutik, Bergarako musikaren historian zehar bidaia bat sortu gura izan dute; betiere, Bandaren, Orkestraren eta Gonzalez Chirlaqueren beraren historia uztartuz.

### Elkarlanetik sortua

Taldeez gain, hainbat bakarlari ere arituko dira kontzertuan: Asier Elorza, Maria Izaga, Ainara Ortega, Argiñe Agirrezabal, Aitor Garitano eta Aitzol Mujika. "Denak aritu dira noizbait gurekin, elkarlanean, eta honen guztionen parte egin nahi izan dugu". Haiekin batera, Manex Alberdi dantzariak ere parte hartuko du omenaldian, baita Alfredo Gonzalez Chirlaquerekin ibilitako musikari ugarik ere. Joko diren musika piezak ere "bereziak" izango direla esan du Ibarzabalek: "Orkestraren ibilbidean momentu garrantzitsuak islatzen dituzten obrak izango dira; Alfredok aukeratu ditu, eta guretzat ere, musikariontzat, berezia izango da horiek jotzea".

Sorpresa ugari egongo direla aitortu du Ibarzabalek: "Une hunkigarriak egongo dira, bai Alfredoren beraren partetik, baita denbora hau guztiau berarekin partekatzeko aukera izan dugun guztion partetik".

Hala, biharko kontzertuari begira, "ilusioz eta, batez ere, bihotzez" prestatzen aritu dira dena, Chirlaqueri "merezitako" agurra eskaintzeko.

### Lanaren esfortzua

Chirlaquek egindako lan guztia eskertu nahi izan du Ibarzabalek. "Hasi ginenean, ez genekien ezer; izan ere, Alfredok erakutsi zigun dena. Hizkuntza musikalik ez genuen, partiturak interpretatzen ere ez genekien", aitortu du. Musikarekiko errespetua eta lanaren esfortzua baloratzen irakatsi diela azaldu du Orkestra Sinfonikoko lehendakariak: "Alfredo bera oso perfekzionista da bere buruarekin, baita musikariokin ere, eta egon behar den lekuan egoten erakutsi digu, musikari egin gaitu. Era berean, musika babesleku izan da guretzat: gaizki egon garenean, negar egiteko lekua izan da; baina, pozik egon garenean, partekatu eta ospatzeko aukera eskaini digu". Esker oneko hitzak baino ez dituztela azaldu du Ibarzabalek; eguna iristeko "gogotsu" daude denak, eta helburua "ikusle zein musikariek kontzertuaz gozatzea" dela aitortu du.

**"BEREZIAK DIREN PIEZAK JOKO DITUGU, UNE GARRANTZITSUAK ISLATZEN DITUZTENAK"**



GOIENA

## Koldo Eleizalde sari banaketa

Aurtengoa 34. edizioa izan du Koldo Eleizalde lehiaketak eta aurkeztu diren lanek, oro har, "kalitate polita" izan dutela adierazi dute antolatzaileek. Zapatuan, hilak 22, egin zuten sari banaketa, Seminarixoan, kategoria ugaritan banatuta: ipuinak, bertsoak, olerkiak, komikiak, eta interpretazio sariak. Ipuin idatzien atalean sari gehien banatu dituzten arren, interpretazioaren aldeko apustua egin nahi izan dute: "Gero eta gehiago lantzen da, kalitatean inbertitu nahi dugu; ea sormen eskola bat sustatzen dugun".

## Uztail eta abuztuan, aire libreko zinema emanaldiak Espoloian

Datorren astean egingo dute aire libreko lehen zinema emanaldia. Uztailaren 2an, publiko guztiei zuzendutako *Ploey, bakarrik hegan inoiz ez* filma emango dute, arratsaldeko zazpietan. Espoloian antolatu dituzte emanaldiok eta udan zehar data ugari baieztatu dituzte: uztailean, 2an eta 16an; eta abuztuan, 6an, 13an, 20an eta 27an.

Seminarixoko zinema emanaldiei dagokienez, geldialdia egin dute uda sasoian, eta kurtso berriarekin itzuliko direla adierazi dute Udaletik. Zinemak "harrera ona" izan duela aitortu dute, eta balorazio "positiboa" egin: "Jende asko gerturatu da; eta ikusleak pozik irten dira".

## Trafiko aldaketak, 'La línea invisible'-ren grabaketa dela eta

Ekainaren 27tik uztailaren 15era bitarte, Movistarrek ekoitzitako *La línea invisible* telesaila grabatuko dute Bergaran. Aste honetan, Bidekurutzeta kaleko 15. zenbakian aritu dira lanean, eta, ondorioz, San Pedro kalea 08:00etatik 10:00etara moztuta egon da. Uztailaren 2tik 14ra ere hala izango da. Uztailaren 15ean, egun osoz egongo da itxita San Pedro kalea. Bidekurutzeta kalea zabalik egongo da, baina momentu puntualetan trafiko mozketak izango dira.

Astelehenean, uztailak 1, Udal Pilotalekuan egingo dute grabaketa, eta Fraiskozuriko aparkaleku batzuk produkzio kamioiak hartzeko erreserbatuko dira.




# 11 BIDER 1.000 ESKER!

**GOIENA TELEBISTAK 11.000 IKUS-ENTZULE DITU GIPUZKOAN ETA 6.000 DEBAGOIENEAN, EGUNERO,**
**CIES AUDIENTZIEN NEURKETA-ETXEAK EMANDAKO DATUEN ARABERA.**

**ESKUALDEKO HIRUGARREN TELEBISTARIK IKUSIENA DA, ETB2REN (17.000) ETA ETB1EN (8.000) ONDOREN.**
**GAINERA, DEBAGOIENEAN, HAMAR HEDABIDE JARRAITUENEN ARTEAN DAGO GOIENA:**
1: GOIENA ALDIZKARIA: 30.000 IRAKURLE ASTERO.
8: GOIENA.EUS: 7.000 BISITARI BAKAR EGUNERO.
9: GOIENA TELEBISTA: 11.000 IKUS-ENTZULE EGUNERO.
**HORREGATIK GUZTIAGATIK, 11 BIDER 1.000 ESKER!**

goiena“
Zu hemen zaude.



Paella banaketa iazko Herri Eguneko bazkarian. AITOR AGIRIANO

# Gozamenerako egunak Elgetan

Ferixa Nagusiko jaietarako alkate txikia izendatu ohi dute Elgetan, eta atzo hartu zuen aginte-makila 9 urteko Unax Agirre Osak. Brindisarekin eta Elgetako Emakume Taldeko kideek egindako pregoiarekin eman zieten hasiera festei

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Mozorro Eguna izan zen atzo, eta Erretiratuen eta Umeen Eguna da gaur. Jarraian etorriko dira zapatuko Herri Eguna eta domekako azoka nagusia. Ferixa Nagusiko jaiak hasi besterik ez da egin, hortaz, eta lau eguneko egitaraua dute aurretik Elgetan.

**Erdigunea, oinezkoendako**

Urtero moduan eta jaiek irauten duten bitartean, itxita egongo da Elgeta gurutzatzen duen errepide nagusia. Ibilgailuek Torrealdetik egin beharko dituzte sartu-irteerak. Autobus geltokia ere lekuz aldatuko dute, eta Berraondokoan egongo da.

Feria egunean, berriz, Berraondoko aparkalekua ez da erabilgarri egongo. Kanpotik bertaratzen direnei, Pagatza industrialdean aparkatzeko eskatu diete.

**Gaueko autobus zerbitzua gaur**

Azken urteetan moduan, jaietako egun batez gaueko autobus zerbitzu berezia ipiniko du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gaur gauean egongo da zerbitzua martxan, 00:00etatik 06:45era. Antzuola, Bergara eta Elgeta lotuko ditu.

**Jaietarako eskaera**

Iraitz Lazkano alkateak jaiak ondo pasatzea opa die herritarrei. "Denbora dezente ematen dugu jaiak antolatzen eta gure onena ematen saiatzen gara. Herritarrei berdina eskatuko nieke; jaiak modu naturalean bizitzeko, eta horrekin batera era parekidean eta euskaraz. Espero dugu aurten ez errepikatzea iaz gertatutako apurketak; izan ere, horrelakoek ilundu egiten dute jai giroa".

**JAIAK MODU NATURALEAN, ERA PAREKIDEAN ETA EUSKARAZ BIZITZEKO ESKATU DU ALKATEAK**

**Azokan 23 bat idi pare**

Bi gune nagusi izango ditu, aurten ere, domekako azoka nagusiak. Ganadua Berraondokoan egongo da eta artisauak eta jaki saltzaileak, plaza inguruan. "Elgetako ekoizleek ipinitako postak izango dira tartean, eta oraingo honetan ahalegin berezia egin dugu ekologikoan ekoizten duten eskualdeko saltzaileak ere gonbidatzeko. Helburua da gertuko komertzioa ezagutzera ematea eta bultzatzea", adierazi du Baserritarren batzordeko buru Sebastian Arantzabal zinegotziak.



Aurreko eta egungo udalbatzako kideak soka dantza prestatzen. L.Z.L.

## Agintarien dantza saioa, zapatuan

Seigarren urtez, soka dantza egingo dute udal agintariek, plazan. 2014an egin zuten lehenengo aldiz, eta ordutik urtero egin da. Udalbatza aldaketa izan denez, eta aldaketa hori irudikatzeko, aurreko eta egungo agintariek egingo dute dantza herritarrendako.

## Jaietako zapia jaioberriei

Aurten ere jaietako zapia jasoko dute aurreko urteko Ferixa Nagusiko jaietatik jaio diren elgetarrek. Hamabi ume daude deituta bihar eguerdian udaletxeko areto nagusian egitekoa den ekitaldian parte hartzera. Senitartekoz beteko da aretoa.

## Helduentzako puzgarriak

Gazte sentitzen diren helduendako puzgarriak eta oreka jolasak izango dira, aurten hirugarren urtez. Abilezia erakustaldiak egiteko aukera izango da domekako ordu txikitan. Biharamunean, formal-formal, denak azokara!

## Boloak eta areto futbola, domekan



**SEBASTIAN ARANTZABAL**
BOLO TXAPELKETA

"Lehen egiten zen bolo tiraldia Ferixa Nagusiko jaietan, baina azken zazpi edo zortzi urteetan ez. Berriz ekingo diogu aurten, eta zapatuarekin beharrean domekarekin izango da. Elgetar guztiei zabalik dagoen tiraldia da. 19:30ean hasiko da. Kanpotik ere bolariak etortzea aurreikusten dugu".



**ITZIAR URIZAR**
INTXORTAKO LEHOIAK

"Lagun arteko norgehiagokak antolatu ditugu aurten jaietako domekarako. Ideia da Athletic-Real partiduak jokatzea. 11:30ean, neska-mutikoen partidua izango da; 12:00etan, gizonezkoena; eta 12:30ean, emakumezkoena. Animatu eta etorri jokatzera! Eman izena Bolatoki tabernan".

## "Polita izango litzateke jendea ere animatzea"

**IMANOL ALBIZU 'GOIKOETXE'**
HARRI-JASOTZAILEA



L.Z.L.

Hiru harri-jasotzaile arituko dira gaur eguerdian plazan: Imanol Albizu *Goikoetxe*, Karmele Gisasola eta Inhar Urruzuno.

**Zer-nolako erakustaldia egitea duzue buruan?**
Saiatuko gara harri desberdinak ekartzen jendeak bereizi ditzan. Nik hamar arroako –125 kilo– kubikoarekin egin nuen apustua, eta harekin egingo dut saioetako bat.

**Zilindroarekin eta bolarekin ere arituko zarete?**
Bai, hirurok. Zilindroetan nik zaharra erabiliko dut. Badakit Urruzunok kopa ekarriko duela. Gisasolak ez dakit zer erabaki duen. Egunean bertan ikusiko dugu.

**Herritarrak ere gonbidatuko dituzue parte hartzera?**
Soka eta txingak ekarriko ditugu. Inor animatzen bada, hortxe izango du aukera. Polita izango litzateke!

## Zirku tailerra, zapatu arratsaldean

Hendaiako akrobazia eskolatik hainbat lagun etorriko dira zapatuan Elgetara. Bidasoaz bestaldekoekin harremanak sendotze aldera gonbidatu dituzte Ferixa Nagusiko jaietara, eta 55 bat lagun etorriko direla adierazi dute. Topaketari hasiera emateko, erakustaldia egingo dute Hendaiako akrobazia eskolako umeek eta gazteek. Adinka antolatuta, hainbat akrobazia ariketa egingo dituzte. Ez da saio luzea izango –ordu laurdenekoa inguru–; izan ere, asmoa da ondoren Elgetako gazteei zirku tailerretan parte hartzeko aukera ematea. Hermine Dikoume eta Alexandre Rodoreda dira Hendaiako akrobazia eskolako arduradunak.

Antolatzaileek jakinarazi dute komeni dela aurrez izena ematea *danonartian@elgeta.eus* helbidera idatzita.



**Eguaztenean Mendizaleen Plazan egindako prestaketa saioa.** L.Z.L.

## Jazinto Rivas 'Elgeta' gogoan

Txalaparta, alboka, soinu txikia... askotariko osagaiak izango ditu Jazinto Rivas *Elgeta* trikitilariaren omenez herritar talde batek Herri Egunerako prestatu duen saioak. Haren bizimodu gogorra eta trikiti munduari egindako ekarpen handia hartu dituzte oinarri.

GORA ETA BEHERA

### Udalekuetako neska-mutikoen horma-irudia

Azkenaldian, arazoak izan dira Domingo Iturbe kaleko hondakinak biltzeko gunean. Eñaut Aiartzaguena grafitilariaren laguntzarekin, mezu argia utzi dute horman neska-mutikoek. Hondakinak ageri dira ilaran, eta ordena eskatuz: "Bakoitza bere tokira", dio irudietako batek.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**
*berriak@goiena.eus*
edo 688 69 00 07.




L.Z.L.



JOSE ANTONIO OJANGUREN

## Ederki ibili ginen Enkarterrietan!

**Goiena komunitatea** / Xalbadorpe elkartea / ELGETA

Xalbadorpe elkarteak antolatuta urtero hainbat irteera egiten dituzte Elgetako erretiratuek. Hilaren 19an egin zuten azkena. "Egun osoko irteera antolatuta, 40 bat lagun joan ginen egun-pasa. Enkarterrietan dagoen Gallarta aldera joan ginen, eta Meatzaritzaren Museoa ikusi genuen, besteak beste", azaldu dute. Ferixa Nagusiko jaietan dute hurrengo hitzordua herriko erretiratuek. Gaur, urteroko bazkaria egingo dute, Espaloia kafe antzokian.

## San Juan suari salto eta salto

Guraso elkarteak jokoak eta ogitartekoak ipini zituen San Juan bezperan, eta ilundutakoan piztu zuten sua umeek. Berehala hartu zuen indarra eta su txikiagoak egin zituzten aldamenean gainetik salto erraz egiteko. Larrialdietako zerbitzu bat ere bertaratu zen Elgetara. Sute baten abisua jaso izanagatik heldu ziren, baina ez zuten horrelakorik aurkitu.



L.Z.L.




Mikel Bargiela, gaztetxearen egoera zein den erakusten GOIENAri. ARANTZAZU EZKIBEL

# Irailera arte gaztetxea itxita egongo da

Pasa den astean hartu zuen Antzuolako Udalak gaztetxea ixteko erabakia. Lokala ixtearekin, segurtasuna bermatu gura izan duela argitu du jarduneko zinegotzi Mikel Bargielak. 2018. urtearen hasieran utzi zuen eraikina gazteen esku Udalak

**A.E. / M.A.** ANTZUOLA

Antzuolako Udalak gaztetxearen eraikina guztiz ixteko erabakia hartu zuen pasa den astean. Azkenaldian izan diren apurketak eta arazoak kontuan hartuta segurtasuna bermatzeko asmoz itxi dutela, oraingoz, eraikina jakinarazi dute udal ordezkariek. Antzuolarrek ere egoeraren berri izan dezaten, gutuna argitaratu dute.

"Azkenaldian, arazo asko edukitzen genituen, eraikina ez zegoen-eta txukun, gauzak hondatzen zituzten, atea beti irekita uzten zuten eta sartu-irtenen kontrola ere ez geneukan –giltza elektronikoa du-eta ateak–. Leihoetatik ere sartzen ziren giltza gabeko zenbait gazte, eta, azkenengoz, gainera, gaztetxeko sofari su eman zioten. Kontrolatu ezin dugun egoerara eta unera iritsi gara", argitu du udal zinegotzi Mikel Bargielak.

Udal ordezkariak gaineratu du eraikinak jasandako utzikeriarengatik, goitik behera hondatzeko arriskua ere bazeukala; eta horrek ere gaztetxea, oraingoz, ixteko erabakia hartzera bultzatu duela Udala.

**Gazteria Plana**

2018ko urte hasieran utzi zuen Udalak eraikina gazteen esku. Ordura arte Gazte Asanbladak erabili izan zuen lokala gaztetxe modura; baina Gazte Asanblada desegin zenetik, hutsik zegoen lokala.

Eta Udalak abiatutako Gazteria Planari esker, 15 eta 20 urte arteko gazteen aisialdian hutsunea identifikatu zuten. "Bagenekien herriko 15 eta 20 urte bitarteko neska-mutikoen aisialdian hutsunea zegoela eta leku bat behar zutela eurak elkartzeko. Hala, erabaki genuen gaztetxearen lokala, hutsik zegoena orduan, eurei eskaintzea", azaldu du Mikel Bargiela zinegotziak.

**"ERAIKINAK JASANDAKO UTZIKERIAGATIK, HONDATZEKO ARRISKUA ZEUKAN"**

Herriko Idolaz aisialdi taldeak hartu zuen gazteen beharrak identifikatzeko prozesua dinamizatzeko ardura. Lokalaren erabileraren gaineko hausnarketa egin zuten herriko gazteekin, eta araudia ere elkarrekin sortu zuten.

Udal ordezkariek azaldu dute, baina, araudi hori ez dela bete eta gaia bideratzeko egin dituzten ahalegin guztiak alferrikakoak izan direla.

Segurtasuna bermatze aldera, irailera arte, behintzat, itxita egongo da gaztetxea.

GOIENA saiatu da gaztetxean azken urtean ibili diren gazteekin berba egiten, baina ezezkoa jaso du. Gainera, une honetan gaia pil-pilean egonik, Udalaren eta gazteen arteko harremana ez dagoela bere unerik onenean kontatu du udal ordezkariak.



GOIENA

## Antzuolar bat hil da auto istripuan

Eguazten arratsaldean, bi autok talka egin zuten GI-2632 errepidean, Antzuola eta Bergara arteko kamino zaharrean. Gidatzen zihoan 85 urteko Alejandro Mujika bertan hil zen; beste autoan zihoan emakume antzuolarra zaurituta eroan zuten ospitalera, Arrasatera. Mujika herrian ezaguna zen eta Mairuaren Alardean urte askoan parte hartu zuen artillero-buru.



JABI ETXANIZ

## Herritarren elkartasuna, agerian

Beste behin, antzuolarren borondate ona agerian geratu da. Sagirik antolatutako elkartasun festarekin herritar ugarik egin zuten bat pasa den astean. "446 pintxo saldu dira eta 1.071 euro batu ditugu. Pintxoak baino elkartasun handiagoa erakutsi dute Antzuolako herritarrek", azaldu dute Anelkarko kideek.

## Espiritu txarrak uxatuz



IKER AIZKORBE

San Juan bezperako ohiturari eutsiz, Herriko Plazan antzuolarrek sua piztu zuten ekainaren 23an. Herritar ugari batu zen, iluntzean, suaren bueltan udari ongietorria emateko asmoz eta udako solstizioa agurtzeko. Askok espiritu txarrak uxatzeko ere aprobetxatu zuten. Argazkiak Iker Aizkorbe argazkilariarenak dira: *Ikeraizkorbe.com*.



Jarduneko Kirol diputatu Denis Itxaso eta Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria hitzarmena sinatzen. TXOMIN MADINA

# Lau aldagela berri izango ditu Eztalak 2020an

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Sailak eta Antzuolako Udalak eguen goizean sinatutako hitzarmenaren arabera, Eztala futbol zelaiak aldagela berriak izango ditu 2020ko abendurako; Udalak 110.000 euro bi urtetan jartzea adostu dute

**T.M / M.A.** ANTZUOLA

Antzuolako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak atzo sinatu zuten Eztala futbol zelaian aldagela berriak egiteko hitzarmena. Lanek 300.000 euro inguruko aurrekontua izango dute, eta Diputazioko Kiroletako Departamentuak, Kirol Ekipamenduen Planaren barruan, 110.000 euro jarriko ditu. "Pasa den asteko martitzenean Diputatuen Kontseiluak onartutako dirulaguntza berezia bideratu dugu. 110.000 euroko laguntza izango da. Izan ere, autobideko obra egiterakoan, Eztala futbol zelaiko aldagelak kaltetuak izan ziren. Horregatik, bidezkoa iruditzen zitzaigun Antzuolako alkateak egiten zigun eskaera hori", argitu du jarduneko Kultura eta Kirol diputatu Denis Itxasok.

Antzuolako Udalak, Aldundiak bezala, 110.000 euroko ekarpena egingo du, eta aldageletan dauden arazoak autobideko lanen ondorio direnez, autobideko lanen sustatzaile den Bidegiren aseguruak beste 90.000 euro jarriko ditu. "Hitzartu dugunaren arabera, Gipuzkoako Aldundiko Kirol Sailak eta Udalak obraren kostuaren herena jarriko dute. Eta gainerakoaren kargu Bidegiren asegurua egingo da", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Kortabarriak aitortu du kosta dela aldagela berriak egiteko prozesua martxan jartzea, eta hitzarmenaren arabera, lanek, berez, 2020ko abendurako amaituta egon beharko luketela.

Era berean, Itxasok nabarmendu gura izan du Gipuzkoan kirola osasuntsu egoteko azpiegiturek ere duinak izan behar dutela: "Kirola horren osasuntsu egoteak Gipuzkoan eskatzen du kirol azpiegiturak ere aproposak izatea. Kasu honetan ere erabilera handia dago, eta horretarako beharrezkoa da aldagela duinak izatea".

**BI ALDAGELA IZATETIK LAU IZATERA IGAROKO DA EZTALA; PARETA ALDERA MUGITUKO DITUZTE, GAINERA**

### Aldagela berrien ezaugarriak

Orain arteko aldagelekin alderatuta, aldagela berriek izango dute ezberdintasunik. "Bi aldagela izatetik lau finko izatera pasako gara. Mendi aldera eramaten ere saiatuko gara; izan ere, orain terrenoa tinkatu egin den arren, uste dugu hobe izango dela pareta aldera mugitzea aldagelak", azaldu du Antzuolako alkateak.

### Eztalako funtzionamendua

Lanak amaitu bitartean Eztalak izango duen funtzionamenduari dagokionez, Antzuola Kirol Elkarteak Eztalan bertan jokatuko ditu partiduak, eta egun dagoen behin-behineko aldagelaren gainean behin-behineko beste aldagela bat jarriko du Futbol Federazioak.

## Irungo Alarde parekideari babesa adieraziko diote

Antzuolako Udaleko eta Alardearen Elkarteko ordezkariak Irungo alarde parekidean izango dira domekan, ekainaren 30ean. "Helburua da babesa eta onespena adieraztea alarde inklusibo baten alde lan egiten duten herritarrei", dio Alardearen batzordeak kaleratu duen oharrak.

"Izan ere, herri baten kultura-ondarea osatzen dute adierazpen eta ospakizun tradizionalak, alardeen kasu, ez dira estatikoak eta aldaezinak; unean uneko gizon eta emakumeek partekatzen dituzten balioen arabera bilakatu eta aberastu egiten dira. Eta horrela irauten dute mendez mende", gaineratu dute.

## Bihar emango zaie hasiera San Martzial jaiei, Lizarragan

Aurten ere ekintzez lepo datoz Lizarraga auzoko San Martzial ermitan ospatzen diren jaiak. Bihar, zapatua, egingo dute herri mailako plater tiroketa txapelketa. Iluntzean, trikitilarien doinuek lagunduta, herri afaria egingo dute eta ondoren, erromeria izango da.

Domekan, aldiz, 11:30ean, San Martzialgo igoera egingo dute gaztetxo txirrindulariek –12:00etan sari banaketa–. 12:00etan, meza egingo da eta ostean, luntxa erretiratuendako. Ondoren, herri bazkaria egingo dute auzotarrek. Eta bazkalostean hasi eta festa amaitu arte, erromeria Jon Ostolaza eta Andoni Ezkerra trikitilarien eskutik.



PATXI OLABARRIA

## Pilota txapelketako txapeldunak

Herriko eskupilota txapelketako finalak jokatu dira. Giro ezin hobean, pilotari gaztetxoen harrobiak maila ezin hobea duela erakutsi du. Emaitzak: Larreak eta Olabarriak 15, Alonsok eta Errastik 16; Iturbek eta Etxanizek 16, eta Aranburuk eta Altzelaik 8; eta azkenik, Galeano ahizpek osatutako bikoteak 16, Errastik eta Tenak 13.

## Presoen eta iheslarien eskubideak aldarrikatzeko

*Ez dot moztuko bizarra* taldeak euskal preso eta iheslarien aldeko ekimena jarri du martxan *Antzuolako jaixetaako... 100 baietz!* lelopean. "Helburua jaietan herriko leiho eta balkoietan euskal preso eta iheslarien etxeratzea eskatzen duten banderolak jartzea da. Mahaiak jarriko ditugu banderolak eskuratzeko aukera izan dezaten herritarrek".

## Lamariano azpikoa baserrira bisita gidatua egingo dute

Uztailaren 6an, Lamariano azpikoa eta Ama-txo gaztandegia ezagutzeko aukera izango da. Bisita 11:00etatik 14:00etara egingo da; izena emateko azken eguna uztailaren 1a. Horretarako, antolatzaileek *www.ongietorribaserrira.eus* ataria jarri dute eskuragarri. Bisita doakoa da eta parte hartzaileen artean zozketak egingo dira.



Oñatin egindako udaleku irekietan parte hartu zuten hainbat haur. TXATXILIPURDI

# 720 gaztetxo herriko uztaileko udalekuetan

Udaleko Gazteria Sailak antolatuta, bi udaleku egingo dituzte herrian aurtengo uztailean ere: udaleku irekietan 651 ume eta gaztetxeko ibiliko dira eta arte udalekuetan, 69. Inoizko jendetsuenak izango dira bata zein bestea

**Oihana Elortza** OÑATI

Aurtengo uztailean ere udaleku irekiak zein arte udalekuak egingo dira herrian eta inoiz baino jendetsuagoak izango dira: 651k hartuko dute parte udaleku irekietan eta 69k arte udalekuetan. Astelehenean hasiko dira udaleku biak.

### Talde arrosa irekietan

Udalak antolatuta, Txatxilipurdik kudeatuko ditu aurten ere udaleku irekiak. 4 eta 12 urte bitarteko 651 haurrek hartuko dute parte, kolore ezberdinetako taldeetan. Aurten, gainera, talde berria egongo da. "Aurreko urteetan baino gehiago apuntatu dira nagusienetan, LH-4, LH-5 eta LH-6 mailetakoak, eta kolore arrosa izango duen talde berri bat egitea pentsatu dugu. Nagusienak egongo dira talde horretan, 2007 eta 2008. urteetan jaiotakoak", dio Alazne Agirrek, udaleku irekietako koordinatzaileetako batek. Berarekin batera beste hiru lagun eta Gazteriako teknikaria, Jon Lopez, egongo dira eguneroko martxa koordinatzen. Gaztetxoekin 73 hezitzailek jardungo dute. Aurten ere, gaztelekua, berdura plaza eta Zuazola institutua izango dira topalekuak, umeen adinaren arabera.

### Irteerak

Urteko lehen hilabeteetan hasi ziren udaleku irekiak prestatzen eta prest dute umeekin batera egingo dituzten ekintzak eta planak. "Eguraldiak aldatu ditzake, akaso, planak, eta egun jakin baterako prestatuta daudenak beste egun batean egin beharra tokatuko zaigu, baina ekintzen zerrenda prest dugu, bai. Umeei eurei ere galdetuko diegu zer egin gura duten, eta proposamenak betetzen saiatuko gara. Eurek esango digute, esaterako, nolakoa gura duten izatea azken eguneko festa", dio Agirrek. Beste urteetan bezala aurten ere denetariko ekintzak egingo dituztela ere gaineratu du: "Uztailaren 8an sanferminak ospatuko ditugu, altxorraren bila ibiliko gara, ibilbideak egingo ditugu herriko auzo edo txoko jakin batzuetara, ur jolasak egongo dira... Eta Usakora, ur txorrotetara eta igerilekuetara ere joango gara, adibidez". Irteerak ere egingo dituzte: nagusienek, esaterako, bi gau egingo dituzte Orioko Zingira auzoan.

**ARROPA EROSOAREKIN ETA ONDO PASATZEKO ASMOAREKIN JOATEA AHOLKATU DUTE**

### Arte udalekuak, Eltzian

Bestetik, Eltzian egingo diren arte udalekuetan izena eman duten 9 eta 16 urte bitarteko 69 lagunek lau hezitzaile izango dituzte ondoan. Besteak bezala, 09:00etatik 13:00etara izango dira arte udalekuak ere.

## Abeltzaintza arloko formakuntza jasotzeko izen-ematea, zabalik

Irailetik urtarrilera izango dira eskolak, Olaburun, eta Debagoieneko langabeek izango dute lehentasuna

**O.E.** OÑATI

Abeltzaintzako jarduera osagarrien ziurtagiri profesionala eskainiko dute Olaburu zentroan datorren ikasturtean. HAZI Fundazioak prestatutako formakuntza da eta Oñatiko Udalarekin eta Gomiztegirekin egindako lankidetza hitzarmenaren bidez egingo dute, Zubillaga auzoko zentroan.

Lanbiden izena eman duten pertsona langabeei zuzenduta dago ikastaroa, doan izango da eta eskualdeko langabeek izango dute lehentasuna. Irailaren 12tik urtarrilaren 30era izango da formakuntza saioa, astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 14:30era; 510 ordu, guztira. Saio teoriko-praktikoak eta bisita teknikoak egingo dituzte. Izena Hazi Fundazioan eman behar da: *www.hazi.eus* wengunean edo *oaretxabaleta@hazi.eus* helbidera mezua bidalita.

Gai orokor hauek landuko dituzte: abeltzaintzako ugalketa-jarduera osagarriak egitea, ustiategietan ekoizpena kudeatzea, abereen artzaintza-lana egitea eta makinen mantentze-lana.

### Jaiak Zubillagan, Torreauzon eta Garagaltzan

Auzo batean ez, hirutan ospatuko dituzte jaiak asteburuan.

Zubillagakoak gaur, egubakoitza, hasiko dira, Pello basurdearen jaitsierarekin. Kontzertuak, haurrendako jolasak, auzo barbakoa, zinta jolasa, umore saioa eta urteroko mozorro festa egongo dira, besteak beste.

Torreauzon ere San Pedro jaiak ospatuko dituzte. Zapatuan, Potxmagoa, DJ Jabi Sound eta meza izango dituzte, adibidez. Domekan, berriz, krosa izango da ekitaldi nagusia; 10:30ean izango da. Luntxa eta Oñatz dantza taldekoen erakustaldia egongo dira ondoren.

Garagaltzan, berriz, San Juan jaiek jarraipena izango dute. Ermita ondoan auzo bazkaria egingo dute zapatuan, eta meza domekan.

Bestalde, Koixkarren, Jesusen Bihotza jaia ospatuko dute domekan, 12:00etako mezan.

### GORA ETA BEHERA



GOIENA

**Haserre, paketea lurrean ikusita**

Argazkikoa ikusita "min" hartu zuela dio irakurle batek: "Kaleak garbi egoten dira, baina, litxarreria paketeak edo poltsak lurrean ikusten ditudanean, haserretu egiten naiz".

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# Hasi dira jai nagusiak antolatzeko bilerak egiten

Hamabi kideko talde berri bat sortu da umeen danborradaz arduratzeko, eta astelehenean elkartuko dira, antolatzen hasteko. Jai batzordeak egin du lehen bilera, eta konpartsen eguna berreskuratzea izan da egindako proposamenetako bat

**Oihana Elortza** OÑATI

Irailaren 28an hasiko dira herriko jai nagusiak. Hiru hilabete barru. Abuztua tarteko, udako oporren aurretik lotu behar izaten dira gauza gehienak, eta aurten ere hasita daude horretan. Jai batzordeak egin du lehen bilera, eta urteroko hitzorduen datak zehaztuta daude.

**Batzorde berria danborradan**

Haurren danborrada egitea kolokan egon da aurten. Azken urteetan antolatzen ibili den taldeak ez duela jarraituko adierazi zuen, eta Udalak bi deialdi egin behar izan ditu talde berria osatzeko. Hamar edo hamabi laguneko taldea beharrezkoa izango zela aurreikusten zuen Udalak, eta dozena bat herritarrek eman dute izena. Taldea, beraz, osatu da. Orain, antolatze lanetan hasiko dira. "Aste honetan egin dugu eurekin lehen bilera. Datorren astean, eurak bilduko dira eta hasiko dira pentsatzen zer lan dagoen egiteko eta nola egingo duten. Eta gero, gurekin egongo dira euren erabakiaren berri emateko. Udalak egindako deialdiari erantzunda eman dute izena, eta antolatzeko gogoz daudela ulertzen dugu", dio German Meabebasterretxeak, Udaleko Kultura teknikariak.

Jose de Azpiazu musika eskola arduratuko da aurten ere entseguak egiteaz eta musika koordinatzeaz. Udalak beharrezkoak diren azpiegiturak, dirulaguntza eta materiala jarriko ditu antolatzaileen esku, baina danborradaren ardura hartuko duen batzorde horrek ere izango du lanik. Umeak izena emateko bideak eta epeak zehaztu, entsegu egunak eta tokiak erabaki eta arroparen ardura hartu, besteak beste.

**Bi asteburutan**

Umeen danborradarekin aurrera egiten badute, irailaren 21ean egingo da. Hurrengo egunean, berriz, Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa ohiko tokian. Eta, urtero moduan, astebete lehenago egingo da Haurren Eguna, irailaren 15ean.



Umeak danborra jotzen haurren danborradan. GOIENA

**EGITARAUAREN AZAL LEHIAKETA IZANGO DA; UZTAILAREN 15ERA ARTE AURKEZ DAITEZKE LANAK**

Bi asteburu hartuko dituzte aurtengo San Migel eta Errosario jaiek, eta betiko ospakizun finkoak zehaztuta daude dagoeneko. Irailean zehar egingo diren horiez gain, kiroldegiko eta balkoitik balkoirako bertso saioak ere, esaterako, adostuta daude. Irailaren 28a zapatua da aurten eta oraindik zalantzan dagoena da egubakoitzerako, 27, zerbait antolatuko den edo ez.

**Proposamenak**

Martitzenean egin zuten jai batzordearen lehen bilera eta herriko zazpi eragilek hartu zuten parte. Bakoitzak bere proposamenak egin zituen; adibidez, konpartsen eguna berreskuratzea. "Martiñolak egiten zuen lehen, eta duela bi urte desagertu zen. Hori berreskuratu eta egun batean kanpoko eta herriko erraldoi eta txorimaloen topaketa edo ospakizuna egitea proposatu dute", dio Kultura teknikariak. Oraindik herritarren nahiak jasotzeko prest daudela gaineratu du Meabebasterretxeak, uztailaren 25era arte jasoko dituztela kultura etxean. "Denak aztertuko ditugu eta aurrekontura egokitu gero, erabaki aurretik. 210.000 euro inguruko aurrekontua izango dute jaiek".

**Azal lehiaketa**

Bestalde, dagoeneko zabalik daude jaietako hainbat deialditako izen-emateak. Esaterako, Herri Egunean herriko taberna kudeatzeko izena eman daiteke dagoeneko, baita egun horretako herri bazkaria zerbitzatzeko ere eta artisau azokan parte hartzeko. Kultura etxean egin daitezke. Egitarauaren azala, berriz, lehiaketa bidez aukeratuko dute aurten, bi urteko hutsunearen ondoren. Uztailaren 15a da lanak entregatzeko azken eguna, kultura etxean.



Larrañako hainbat egoiliar eskolak hartzen maiatzean. A.Z.

## Eskolak emateko boluntarioak behar dituzte Larrañan

Errefuxiatuei mintzapraktikak, hizkuntza eskolak eta aisialdi planak eskaini gura dizkie udan ere CEAR-ek

**O.E.** OÑATI

Ikasturtean zehar hainbat herritar egon dira CEAR-ek Larrañan kudeatzen duen egoitzan errefuxiatuei hizkuntza eskolak ematen. Talde horrek atseden hartu gura du orain, baina zerbitzu hori ematen jarraitu gurako lukete Larrañako kudeatzaileek, eta, horregatik, deialdi bat egin dute. Boluntarioak behar dituzte uztailean, abuztuan edo irailean eskola horiek ematen jarraitzeko.

Larrañako egoitzan dauden egoiliar gehienak frantses hiztunak dira, baina arduradunek garrantzitsu ikusten dute gaztelera jakitea. Beraz, gaztelaniazko eskolak emango dituzten boluntarioak gustura hartuko lituzkete. Baita beste hizkuntza batean egin ahal dituzten mintzapraktikak egiteko edo aisialdirako planak antolatzeko gertu daudenak ere. Irteerak egitea edo eskulan ikastaroak eskaintzea ere izan daiteke. Ordutegia eta egutegia eskolak emango dituenak jarriko lituzke.

Interesa duenak Larrañako egoitzara deitu behar du. Telefonoa da: 943 00 90 49 (Erika edo Nerea).



NIRE USTEZ

**MIEL GURIDI**

## 'Eboluzioa'

Ez dakit konturatu zareten, baina gu bizi garen kalean, behintzat, katuek iturri berriak aurkitu dituzte elikatzeko, *eboluzionatu* egin dute. Gure eboluzioaren ondorio izan da katuena. Izan ere, gure arteko *eboluzionatuenak*, zabor organikoa ateratzeko ontziak erabili beharrean, zaborra poltsan ateratzen hasi dira; hori bai, poltsa konpostagarrian.

Kale-katuak tontoak ez, atzapar zorrotzak dituzte, eta poltsa horiek erraz asko hausten dituzte. Ondorioa? Zaborra lurrera, zikina eta kiratsa. Azkenean, Markel Olanori arrazoi eman beharko diogu: "Oñati oso zikin dago". Bada, katuen errua dela esan beharko diogu, edo gure utzikeriaren eta nagikeriaren ondorio?

Egia da, ontzia berriro jaso beharra lana da. Daitort, neuk ere astelehen batzuetan kartoizko kaxa edo paperezko poltsa erabiltzen dut pilatutako egunkari atzeratuak, eta abar ateratzeko. Baina, zabor organikoa katu eta arratoientzat janari-iturri den neurrian, askoz ere txukunagoa da ontzian ateratzea. Ez duzu uste?




Maiatzean, Ganbara Txikik kontzertua eskaini zuen Fagor Industrialeko *showroom*-ean. GANBARA FAKTORIA

# Ikuskizuna eta musika gaur gauean Arantzazun

'Kalean' egitasmoa gaur abiatuko da. Izan ere, Arantzazuko Santutegiaren kanpoaldea ikuskizun eta musika agertoki izango da 22:00etan, Ganbara eta Hots abesbatzek eskainiko duten 'Antzinako sekretuak' emanaldiari esker

**Maialen Regueiro** OÑATI

Ganbara eta Hots abesbatzek elkarrekin eskainiko duten kontzertuak, *Antzinako sekretuak* izena duenak, *Kalean* egitasmoaren aurtengo egitaraua irekiko du. Musika emanaldia gaur izango da, 22:00etan, Arantzazuko Santutegiaren kanpoaldean. Kontzertua ikustera joateko, herritarrek autobus bat izango dute Arantzazura igotzeko bi eurotan. Olaran, Kalegoiena eta Postetxeko geltokietan batuko da jendea, 21:15ean hasita. Ondoren, 23:30ean jaitsiko da autobusa herrira.

**Sua oinarri**

Ganbara Abesbatzako kide Xabi Mugarzak gaurko emanaldiaren nondik norakoak azaldu ditu: "Gaurko kontzertua solstizioen ingurukoa izango da, suan oinarritutakoa, alegia. Emanaldia Santutegiaren kanpoaldean egitearen arrazoia da ikuskizunerako argiztapena faktore garrantzitsua dela". Ganbarako abestiei dagokienez, honako hau aipatu du Mugarzak: "Ganbarako kideek euskal kantak abestu ditugu eta horietako batzuk sorginei eta suari egingo diote erreferentzia, besteak beste".

**Talde ibiltaria**

*Kalean* ekimenaren bigarren hitzordua uztailaren 4an, eguena, izango da, 19:00etan, eta Broken Brothers eta Brass Band taldeak erdiguneko kaleetan arituko dira.

**Cartonajes Arregi eta Stadler**

*Oñati ezagutzen* proiektuaren baitan, berriz, Ganbarak dagoeneko kontzertu ibiltari bat eskaini du, eta asteburu honetan, gisa horretako bi hitzordu izango dira: bihar, Ganbara Txiki eta Gazteko kideek kontzertua eskainiko dute Cartonajes Arregi enpresan. Domekan, Ganbara Abesbatza Stadler-en izango da, 12:00etan, enpresaren 50. urteurreneko jaiaren baitan kontzertua eskaintzeko.

## 'Kalean' egitasmoa

**Ekainaren 28an**
- **19:00** Ganbara Faktoria, Arantzazun.

**Uztailaren 4an**
- **19:00** Broke Brothers eta Brass Band, erdigunean.

**Uztailaren 10ean**
- **19:00** Aran Saiz, Lazarraga lorategian

**Uztailaren 17an**
- **19:00** Havana 537, San Lorentzon.

**Uztailaren 24an**
- **19:00** Parvathy Baul, Lazarraga lorategian.

**Irailaren 1ean**
- **19:00** Hortzmuga teatroa, Errementari plazan.



Oteizaren pieza bat Gandiaga Topagunean. ARANTZAZU GAUR FUNDAZIOA

# Gandiaga Topaguneak hartuko ditu Oteizak egindako lanak

Oteizaren lanen erakusketa gaur irekiko dute eta urriaren 27ra arte egongo da Gandiaga Topagunean

**M.R.** OÑATI

Gaurtik –19:00etan irekiko da– urriaren 27ra bitartean egongo da ikusgai, Arantzazuko Gandiaga Topagunean, *Oteiza eta Arantzazuko estatuaria, 1950-1969* erakusketa. Bertan, Oteizak egindako eraikuntza-lanak egongo dira ikusgai –1950ean hasi zirenetik 1969an amaitu artekoak–.

**50 eskultura**

Proiektuaren xehetasunak 50 eskultura inguruen bitartez azalduko dira. Horrez gain, Arantzazuko Santutegiko Artxiboko eta Oteiza Museoko Ikerkuntza Zentroko dokumentazio, argazki, prentsa eta ikus-entzunezko ugari ere izango dira.

**Bisita gidatua**

Erakusketa inauguratzearekin batera, bihar, zapatua, bisita gidatua izango da Gandiaga Topagunean –abuztuan eta urrian izango dira hurrengoak–. 12:00etan hasiko da bisita, eta aurrez izena ematea komeni da, 943 71 65 75 telefonoan. Doakoa izango da eta Elena Martin, erakusketa-proiektuaren komisarioa arituko da gidari lanetan.

## Futbol sailak batzar orokorrarekin itxi du denboraldia

Urtero bezala, Aloña Mendiko futbol sailak batzar orokorra egin zuen aurreko astean, denboraldiaren balorazioa egiteko. Ondoren, afaria egin zuten eta aipamenak eta sariak banatu zituzten. Aloña Mendiko futbol sailak denboraldi honetan 166.967 euroko diru sarrerak izan ditu, eta 149.717 euroko gastua; hala, urteko etekina 17.250 euroko izan da.

Afariaren ostean, urteko aipamenak eta sariak banatu zituzten. Modu horretan, talde bakoitzak hainbat sari jaso zituen eta aipamen berezia Mikel Aginagalderi egin zioten, hamar urtez futbol sailean egindako ibilbideagatik.

## Lau kontzertu, bihar, Xagu tabernaren itxierarako

San Anton kalean kokatuta dagoen Xagu tabernak ateak itxiko ditu bihar, zapatua. Itxiera modu berezian egin nahi dute, eta, horretarako, kontzertuak antolatu dituzte; 18:00etan hasiko dira.

Guztira, lau emanaldi izango dira: bi talde eta bi bakarlari arituko dira zuzeneko musika eskaintzen. Aitor Regueiro oñatiarra eta Paul Sarramendi aretxabaletarra arituko dira bakarlari gisa. Horrez gain, Crap talde arrasatearra eta Azkaiter Pelox hiruko bergararra arituko dira. Era horretan, musika eskaintza zabala izango da, bihar, arratsaldean, Xagu tabernaren agur ekitaldia ospatzeko.

# Udazabal19












## EKAINA

**28** — Arrasate Musikal Big Band

Musika | 22:30 | Monterron parkean

## UZTAILA

**05** — "Block" | Amaia Elizaran

Dantza | 20:00 | Zaldibar frontoian

"Madera" | Denis Santacana

Dantza | 20:00 | Zaldibar frontoian

**07** — Desahucio | Cia Barsanti

Antzerkia | 20:00 | Maiatzaren bata plazan

**12** — "Maurizia naz" | Aukeran

Dantza | 20:00 | Zaldibar frontoian

**13** — Koselig | Cia Capicúa

Zirkoa | 20:00 | Biteri plazan

**20** — The Allnighters

Kontzertua | 22:30 | Herriko plazan

**24** — Bert

Folklore Jaialdia | 22:30 | Monterron parkean

**25** — Kalakan eta Alexandre Arkhintcheev

Musika | 22:30 | Monterron parkean

**28** — Hezurbeltzak

Musika | 20:00 | Aldai parkea



Selekzioarekin jokatuko duten zazpi jokalariak. AGUSTIN OIANGUREN

# Burdinolako zazpi jokalari, selekzioarekin

HOCKEYA Galizian jokatuko den autonomia erkidegoen arteko txapelketan parte hartuko dute Euskadiko selekzioarekin. Bergarako taldeak indarra hartu du, eta horren erakusle da Asier Arpon selekzionatzaileak zazpi jokalari hartu izana

**Arantzazu Ezkibel Galdos** BERGARA

Burdinolako zazpi jokalari Galizian daude; atzo joan ziren, eta domekara arte egongo dira han. Izan ere, Euskadiko selekzioarekin jokatuko dute autonomia erkidegoen arteko txapelketa: aurrean izango dituzte Valentziako, Andaluziako, Aragoiko eta Galiziako selekzioak.

**Emakumezkoak, sei**

Bilboko Metropolitano taldeko elite mailako jokalari Asier Arpon da hautatzailea. Euskadiko selekzioak hiru talde izango ditu Galizian: alebin taldea –13-14 urte–; infantil taldea –15-16 urte–; eta emakumezkoen 20 urtez beherakoa.

Emakumezkoen talderako Burdinolako sei jokalari aukeratu dituzte: Maddi Delgado Estrella arrasatearra; Edurne Ormaetxea Arriaran eta Ione Oianguren Lopez de Bergara aramaioarrak; Itxaso Markiegi Baskarran eta Ainhoa Salillas Solaun bergarararrak; eta Onintza Ibarzabal Camacho soraluzetarra. Pello Gallastegi Lete bergarararrak alebinekin jokatuko du –talde mistoa izaten da–.

**Irabazteko asmoz joan dira**

Nesken taldea "txapelketa irabaztera" joan dela azaldu du Agustin Oianguren Burdinolako entrenatzaileak: "Iazko txapelketan hirugarren postua eskuratu zuten, baina aurten talde indartsua dute eta irabaztera joan dira", azaldu du. Selekzioko hainbat jokalari Urrezko Ligan jokatzen duen Metropolitano taldekoak dira.

Oianguren "pozik" dago hautatzailea Burdinola taldeko jokalariekin gogoratu delako: "Liga bukaera polita izan dugu. Ligako azkeneko partidua irabazi genuen, eta, gainera, Euskadiko Kopa ere irabazi dugu. Taldeak nolabaiteko izena hartu duela esan daiteke", gaineratu du. Izan ere, Euskadiko Kopako lau txapeletatik bi Burdinolak irabazi ditu –emakumezkoena eta alebin mailakoa–.

"Taldeak indarra hartu du; arazoa da entrenatzeko ordu gutxi ditugula, astean hiru bakarrik. Horregatik, domeka arratsaldeetan egiten ditugu entrenamenduak eta partiduak", gaineratu du Oiangurenek.

**DOMEKARA ARTE IRAUNGO DU AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEKO TXAPELKETAK**

**Jokalariak pozik daude**

Oianguren eta Salillas jokalariendako ez da izango selekzioarekin jokatuko duten lehenengo aldia; besteendako bai, ordea. "Jokalariak pozik daude. Ligan ezinean ibili gara, baina Kopa irabazi dugu eta orain, gainera, selekzioarekin jokatzea izugarria da", nabarmendu du Oiangurenek. Txapelarekin itzultzea izango da euren asmoa.

# Torreauzoko krosa egingo dute domekan, babes zabalarekin

KROSA 10:30ean hasiko da 7,5 kilometroko lasterketa; sariez gain, zozketa ere egingo dute korrikalarien artean

**A.E.** OÑATI

Domekan jokatuko dute Torreauzoko krosa. Izen-ematea zabalik dago Mendizabal kirol dendan, Aloña Mendi tabernan eta *Herrikrosa.eus* webgunean. Egunean bertan, 10:00ak arte izena emateko aukera egongo da; taldeka izena emateko azkeneko eguna, baina, bihar, zapatua, izango da. Taldeka parte hartzeko, gutxienez, hiru pertsonako taldea izan beharko da. Abixaran-ek beti bultzatu izan du taldekako parte-hartzea eta emakumeena.




Gurutze Frades. IMANOL SORIANO

**Edalontzi berrerabilgarriak**

Edalontzi berrerabilgarriak ipiniko dituzte ura edateko lasterketan zehar; hala, antolatzaileek dei berezia egin dute edalontzi horiek bide bazterrean horretarako propio jarriko dituzten ontzietan uzteko, edo horien inguruan.

**Babes zabala**

Antolatzaileek ia 60 komertzioren eta eragileren babesa lortu dute. Lehenengo hiru emakumezkoek eta hiru gizonezkoek sariak eramango dituzte; eta, horrez gain, zozketa egingo dute parte hartzaileen artean.

## PARAPENTEA Euskadiko txapelketa jokatuko dute uztailaren 6an

Debagoieneko hainbat parapentelarik parte hartuko dute uztailaren 6an, zapatua, jokatuko duten Euskadiko parapente txapelketan. Agurainen (Araba) izango da txapelketa, 09:00etan hasita. Eguraldi txarra egingo balu astebete atzeratuko litzateke txapelketa. Lehiaketaren ondoren, afaria eta sari banaketa egingo dute.

## TXIRRINDULARITZA Kadete mailako Arrasate Saria, uztailaren 7an

Dorletako Amak antolatuta, uztailaren 7an kadete mailako IV. Arrasate Saria jokatuko dute. 16:00etan hasiko da lasterketa, Garibai etorbidean. Hasiera neutralizatua izango da, Musakolaraino. 58,7 kilometroko lasterketa izango da eta Azkoaga igo beharko dute 45. kilometroan. Helmuga Garibain izango da, 17:30 inguruan.

## ZIKLISMOA Zirkuitu berria izango du aurtengo Kantoikrit lasterketak

Uztailaren 13n egingo dute, Oñatiko kaleetan. Aurten, gainera, zirkuitu berria estreinatuko dute Kantoikrit sarian. Berria bai, baina betiko berezitasuna izango duena: harbidea. Lasterketa 22:00etan izango da. Txirrindulariek 15 bira eman beharko dizkiote zirkuituari; guztira, 27 kilometro. Aurten, lo egiteko aukera ere izango dute.

## MENDIKO BIZIKLETA Lekua dago EskoXtrem proban parte hartzeko

Uztailaren 6an jokatuko dute EskoXtrem mendiko bizikletako proba. Bi ibilbide antolatu dituzte: luzea, 49 kilometrokoa eta 2.000 metroko gorabehera duena; eta motza, 39 kilometrokoa eta 1.500 metroko gorabehera duena. *Kirolprobak.com* atarian eman daiteke izena; antolatzaileek azaldu dute oraindik geratzen direla plazak.

# "Entrenatzaileok baloia edukitzea dugu gustuko"

**AITOR LOPEZ REKARTE** FUTBOL ENTRENATZAILEA

Espainiako Federazioak eskaintzen duen UEFA Pro entrenatzaile titulua atera berri du arrasatearrak. Xabi Alonso, Xavi Hernandez eta Raul Gonzalez izan ditu ikaskide

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARRASATE

Irailean aulkiren batean eserita egoteko esperantza duen arren, egun, talde barik dago. UEFA Pro lizentzia ateratzearen esperientzia azaldu du arrasatearrak.

**Entrenatzaile titulua atera duzu.**

Bai; Madrilen egon naiz ia bi hilabete, eta nahiko kurtso gogorra izan da. Normalean urtebeteko lana izaten dena sei astean egin dugu. Ordu asko sartu ditugu. Nabarmendu behar da, baina, gu pribilegiatu hutsak garela. Holako titulu bat hain epe motzean egitea ez da normala.

**Ikaskide izan dituzu goi mailako futbolari ezagunak. Eurengandik ere ikasi duzu?**

20 izan gara taldean, eta horietako batzuk ezagunak. Bai, horiengandik ere ikasi dut; esperientzia handia dute eta futbolak esparru asko ukitzen ditu.

**Futbola asko aldatu dela diozu, eta entrenatzaileak esparru guztiak kontrolatu behar dituela. Zergatik?**



Lopez Rekarte, Mojategin. IMANOL SORIANO

Bai, esparru guztiak kontrolatu eta kudeatu behar ditu entrenatzaileak. Hor lana dago. Taldearekiko kudeaketa, taldea nola formatzen duzun, elkartearen beraren kudeaketa... eta gaur egun zailena izan daitekeena da sare sozialak kudeatzea. Uste dut hor dagoela gakoa. Horiek kontrolatzea ia ezinezkoa da, baina, behintzat, ondo kudeatzea. Erreminta oso onak dira, baina behar da denon artean arau batzuk jartzea ahalik eta ondoen erabiltzeko sare sozialek eskaintzen dituzten erremintak.

**Jokatzeari utzi zenionean, futbola alde batera utzi zenuen. Urte batzuk pasa dira entrenatzen hasi zarenera arte. Zergatik?**

Jokalari moduan, futbolarekin izandako azkeneko harremana izan zen apur bat gogorra. Bizi izan nituen esperientziak izan ziren: Reala Bigarren Mailara jaistea; gero, Almeriara joan nintzen, baina urte bakarra egin nuen han; handik bueltan talde barik nengoen eta Eibarren bukatu nuen, baina Eibar ere Bigarren Mailara jaitsi zen... Esperientzia horiek nekatu egiten dute.

**Zerk piztu zizun futbolera bueltatzeko gogoa?**

Beste gauza batzuk egiten ibili naiz eta denbora pasa denean galdetu diot neure buruari ea gustuko dudan zer egin dezakedan. Argi nuen erosoen futbolean nengoela eta erabaki nuen probatzea. Formatu egin nintzen: Kirolene-k eskaintzen duen goi mailako titulua lortu nuen. Hor konturatu nintzen zelaian egotea, jokalariekin egotea... asko gustatzen zaidala. Nire lanbidea hori izan daitekeela ikusi nuen. Baina oraindik asko daukat egiteko. Gaur egun, talde barik nago. Azkeneko lau urteak Deusto Donostian egin ditut entrenatzaile, Ohorezko Erregional Mailan.

**Ze futbol estilorekin identifikatzen zara?**

Estilo askorekin, baina nik uste dut entrenatzaileei gustatzen zaiguna baloia edukitzea dela. Hala ere, gakoa da egokitu egin behar dugula edozein egoeratara. Saiatzen naiz alderdi guztiak lantzen, eta dituzun jokalarien arabera modu batera edo bestera entrenatu. Daukagun esperientzia eta ideiak ordenatzea tokatzen da orain. Eta egokitu egin behar duzu zure jokalariei eta baita aurkariari ere.

**Ze egoeratan zaude orain?**

Ate joka nabil, jendeari deitu... eta bidea egiten. Deuston izan dudan esperientzia oso ona izan da; kategoria horietara egokitzea ez da erraza; jokalariak ez dira profesionalak. Nahiko nuke profesionaltasunera bideratuta dauden jokalariekin lan egin.

**Lehenengo Mailan dauden bost euskal taldeek entrenatzaile euskaldunak dituzte.**

Mirestekoa da. Ez da erraza holako herri txiki batean horrenbeste talde egotea Lehenengo Mailan, eta, gainera, etxeko entrenatzaileekin. Harremana dut ia gehienekin. Ez da erraza izango mantentzea, Lehenengo Maila oso zorrotza delako, eta emaitzek agintzen dutelako.

**"GURAKO NUKE PROFESIONALTASUNERA BIDERATUTAKO JOKALARIEKIN LAN EGIN"**

## Kortazar, onena Zumaian

Zumaia Trail mendi lasterketa gogorrean ez zuen aurkaririk izan Oihana Kortazar elgetarrak (4.10.58). Haren atzetik sartu ziren Rosa Navarro (18 minutura) eta Mireia Pons (25 minutura). Gizonezkoetan, ostera, Oier Ariznabarretak irabazi zuen (3.34.47). Maratoiak dituen 42,2 kilometroei beroa gehitu zitzaien domekan jokatutako proban.



BALEIKE.EUS

## Aritz Kortabarria Espainiako txapelketan izango da

Antzuolako txirrindulariak 23 urtez azpikoen Espainiako txapelketan parte hartuko du bihar, zapatua. Murtzian izango da lasterketa.

Eulen taldeko txirrindularia Euskadiko selekzioarekin arituko da. Ander Altuna arduradunak hautatu du antzuolarra beste bederatzi lagunekin batera. Selekzioan lagun izango ditu Kortabarriak: Jon Agirre, Xabier Mikel Azparren, Iker Ballarin, Oier Ibarguren, Unai Iribar, Oier Lazkano, Mikel Mujika, Ibon Ruiz eta Iñigo Elosegi. Aurten egindako lan onaren fruitua izan da Kortabarriarentzat selekzioaren deia jaso eta Murtzian aritzeko aukera izatea.

## Arrate Bergarak San Fermin txapelketa jokatuko du

Bigarren aldiz antolatu dute emakumezkoen San Fermin pilota txapelketa. Zortzi bikote lehiatuko dira: lau nagusien mailan eta beste lau 18 urtez azpikoetan. Hala, Tuteran jaio baina Bergaran bizi den Arrate Bergara pilotariak 18 urtez azpikoen kategorian jokatuko du.

Finalerdiak uztailaren 6an eta 7an izango dira, Lizarran. Bergarak Katixa Agorretarekin osatuko du bikotea; eta Leire Oskozen eta Ane Mendibururen aurka jokatuko dute. Finalak uztailaren 13an jokatuko dituzte, Iruñeko Labrit frontoian, 11:30ean. Euskal Telebistak zuzenean eskainiko ditu finaleko pilota partiduak.

# Eskoziako zine jaialdian Kimuak katalogoarekin

Edinburgon eskaini dute, astean, Iban Del Campo arrasatearrak zuzendu duen zientzia fikziozko 'Espedizio handia' film laburra; datorren urteko Kimuak katalogoan Jesus Mari Lazkanoren 'Artiko' eta Aitor Arregi oñatiarraren 'Mateoren ama' izango dira

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Etxepare Euskal Institutuaren bitartez eta Euskadiko Filmategiaren laguntzarekin antolatutako programa da Kimuak, eta euskal film laburren sustapena eta banaketa ditu helburu.

Urtero egiten duten deialdian jasotako lanen artean sorta bat aukeratzen dute eta horiekin osatzen dute urteroko katalogoa. Debagoieneko sortzaile askoren lanak jaso izan dituzte dagoeneko 22 urteko ibilbidea duen ekimenean; iazkoan, Iban Del Campo Arrasateko zinegilearen *Espedizio handia* aukeratu zuten, eta aurtengoan, Debagoieneko beste bi ordezkari izango dira: Jesus Mari Lazkano Bergarako margolariak Josu Venero zinegilearekin eta Xabi Paya bertsolariarekin elkarlanean egin duen *Artiko* dokumental itxurako film laburra, batetik, eta Aitor Arregi oñatiarrak Moriarti ekoiztetxean lankide duen Jose Mari Goenagarekin egin duen *Mateoren ama*, bestetik.



Arrasateko zinegile Iban Del Campo, Edinburgoko zine jaialdi eguaztenean. I. C.

### Eskozian, hiru egunerako

Etxepare Euskal Institutuak ScotlandGoesBasque egitasmoa abiatu zuen urtarrilean, Eusko Jaurlaritzarekin; euskal musikariak izan ziren lehen bidaia hartan protagonista, eta oraingoan, euskal zinegileak joan dira; horien artean, Iban Del Campo arrasatearra.

Eguaztenean hartu zuen Eskoziarako bidea eta gaur, egubakoitza, itzuliko da etxera, *Espedizio handia* filma eskaini eta haren gaineko solasaldia egin ondoren. "Munduko Jaialdi zaharrena da, 70 urtetik gora ditu, eta luxua da bertan izatea. Jaialdiko zine areto nagusian egin genuen aurkezpena eta oso giro ona izan zen. Bost film labur eskaini zituzten eta horietako lau zuzendari ginen bertan. Bertsio originalean, euskaraz, erakutsi genuen, ingelesezko azpitituluekin. Ikusleei gustatu egin zitzaiela esango nuke, eta askotariko galderak egin zizkidaten gero; esaterako, artxiboko irudien erabilerari eta sormen prozesuari buruzkoak. Oso gustura nago, gozatzen. Nabari da urteetako eskarmentua dutela jaialdia antolatzen; oso handia da eta eskaintza zabala dago", kontatu du, pozik, Del Campok, Edinburgoko jaialdiaz.

### 30 jaialditan baino gehiago

Iazko Donostia Zinemaldian abiatu zuen *Espedizio handia*-k jaialdietako bira, eta, harrezkero, jaialdi askotan izan da. "Oso pertsonala da eta zalantza nuen ze harrera izango zuen, eta oso pozik nago. Gehienbat, fantasiazko zine zirkuituetan ibili da, eta, horrez gain, Estatuko jaialdiei dagokienez, adibidez, Aguilar del Campon eta Medina del Campon, eta urrian Badalonan izango da. Frantziako jaialdi batzuetan eta Hego Amerikan ere ibili da eta Eskoziakoarekin pozik baino poziago nago".

### Lazkanorena eta Arregirena

Bestalde, datorren urteko Kimuak katalogoa osatuko duten zazpi film laburrak aukeratu dituzte, eta, ekimenaren bultzatzaileen esanetan, sorta berriak fikzioa, zientzia-fikzioa, animazioa eta ezaugarri ezberdinetako dokumentalak jasotzen ditu.

Jesus Mari Lazkano Bergarako margolaria *Artiko* lanarekin estreinatuko da Kimuak-en: "2017an, AEBetako Artic Circle Fundazioak Artikora antolatu zuen espedizio batean parte hartzeko aukera izan nuen. Zientzialariak eta askotariko sortzaileak batu gintuzten belaontzi eder baten hilabetez, eta bakoitzak bere lanak zituen, nirea, hango paisaiak jasotzea izan zen; filmak hango marrazkiak eta bideoak jasotzen ditu".

Aitor Arregik badu aurrez Kimuak katalogoan lan bat, eta Jose Mari Goenagarekin batera zuzendu duen *Mateoren ama* izenekoa izango da sorta berrian. Fikziozko drama da eta, hain zuzen, Mariasun Pagoaga, Itziar Aizpuru, Aitziber Garmendia eta Iñigo Aranburu aktoreekin filmatu dute.




Cannes-erako kartela. I.C.

## 'Glittering Misfits' lan berria bidean

Film laburrak egin ditu Del Campok, eta lehen film luzea bukatzear du orain: "Orain dela hamar urte, New Yorkeko kabaret artista *performer*-ekin dokumental bat grabatzen hasi nintzen, eta berriz heldu diot proiektuari. *Glittering Misfits* du izena, eta azken hamarkadan New Yorken indarra duen arte diziplina bati buruzkoa da; oso punkak dira artista horiek. Satira politikoa eta kabareta nahasten dute".

Malagako jaialdian aurkeztu zuen zirriborroa, eta han, Cannes-koan erakusteko aukera irabazi zuen. "Zine industriako ordezkariekin egon ahal izatea aberasgarria izan zen. Edinburgora ere ekarri dut, bertako ekoiztetxeei erakusteko. Aurten estreinatzeko asmoa dut".

NOR BAINO NOR
GOIENA TELEBISTA
UZTAILAREN 4AN, EGUENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
BERGARAKO HERRIA PROTAGONISTA
HUHEZIKO IKASLEEK EKOIZTUTAKO ENTRETENIMENDU SAIOA
goiena
Zu hemen zaude.



# Lope de Agirre, liburu berrian protagonista

Joseba Urretabizkaia argazkilariak argitaratu du, Alvaro Bermejo idazlearen testuan oinarrituta dago eta Rafa Aranburu oñatiarra –Lope de Agirreren azalean– ageri den argazkiekin osatuta; uztailaren 5ean aurkeztuko dute, kultura etxeko zine aretoan

**A. Aranburuzabala** OÑATI

Ibilbide luzea du argazkigintzan Joseba Urretabizkaia tolosarrak, eta arlo askotan jardun du: argazki agentzia eta laborategia izan zuen, eta diseinuaren eta komunikazio arloan ere lan asko egin du.

**Uztailaren 5ean aurkezpena**

Orain dela bi urte, paper arlorantz bideratu zuen bere bidea, eta hala sortu zuen Xibarit argitaletxea, euskal kulturarekin lotutako gaiak azaleratzeko asmoarekin. *Jentilak* bildumarekin herri kiroletako adineko jendearen biografia batzen dituzten zazpi liburu argitaratu dituzte; eta paraleloan, beste bi bilduma dituzte: *Origen* eta pertsonaia historikoei buruzkoa bestea; azken hori Lope de Agirreri eskainita zabalduko dute.

Uztailaren 5ean aurkeztuko dute, Oñatiko kultura etxeko zine aretoan, 19:00etan; liburua aurkeztu ostean, Agustin Goenaga oñatiarrak zuzendu zuen *Jainkoaren hasarre* (1983) film laburra eskainiko dute.

**Erronka, argazkietan**

Alvaro Bermejo idazleari eta lagunari eskatu ziola testua idazteko dio Urretabizkaiak: "Loperen biografia eta hari buruzko iritziak, esanak eta istorioak batu ditu, eta Joxemi Saizarrek itzuli du euskarara".

Testuaz gainera, 70 argazki jasotzen dituela dio: "Pertsonaia historikoa izanik, irudietan zer erakutsi da zailena; hortaz, horiek sortzea erabaki nuen. Loperen aurpegia oñatiarra izatea nahi nuen, eta, hango ezagun baten bitartez, Rafa Aranburuiri proposatu genion, eta baiezkoa eman zigun. Agustin Goenaga argazkilaria eta zinegilea aurkeztu zidaten geroago, eta hark asko lagundu digu proiektuan. Objektiboaren aurrean ere jarri zen *Marañon* baten azalean".



Rafa Aranburu oñatiarra, Lope de Agirreren itxura hartuta. JOSEBA URRETABIZKAIA



Agustin Goenaga oñatiarra –ezkerrean–, Araozko Sandaili ermitan. J.U.


Goiena Klubaren txokoa

**Goiena Klubeko ekaineko sariak!**




**Arrasateko Trikitixa Eskolako CDa**
Parte hartzeko sariaren izena: Trikitixa



**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
ARRIKRUTZ oñatiko kobak



**Otarrea**
**Bidezko merkataritzako produktuak.**
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

**PARTE HARTZEKO:**
**Posta elektronikoz:** kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

**Irabazi bi lagunendako otordua**

HILARION JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.





*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...

Bazkidetu orain 2019rako
56€ ordainduta
Deitu: **943 25 05 05**
*kluba@goiena.eus*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

OROIGARRIA

## Ion Etxebarria Arregi



2019ko ekainaren 22an hil zen, 59 urte zituela.

*Bidai on bat izan, Ion.*

Zure lagunak.
Arrasaten, 2019ko ekainaren 28an.

OROIGARRIA

## Alex Zabala Martinez



Gure Talo

*Zure irriparriai esker,*
*Mondraue leku hobie izen da beti.*
*Eskerrik asko danagaittik, lagun.*
*Bizitzaren bigarren partien ikusiko gare.*

Berrogei printzipalak.
Arrasaten, 2019ko ekainaren 28an.

OROIGARRIA

## Alex Zabala Martinez



(Ikastolako gurasoa eta Pilare Fernandez de Arroiabe lankidearen senarra)

Gure bihozmina adierazten diegu familiakoei.

arizmendi ikastola

Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak.
Leintz bailaran, 2019ko ekainaren 28an.

ESKER ONA

## Ion Etxebarria Arregi



2019ko ekainaren 22an hil zen, 59 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2019ko ekainaren 28an.

ESKER ONA

## Salome Altuna Errasti



Jose Mari Aranzabal Albizuren alarguna

2019ko ekainaren 24an hil zen, 88 urte zituela.

*Halakoetan, maitasun hitzak, eskertzak, sentimenduak,*
*irakaspenak... ahaztu ezinak.*
*Agur eta mila esker, ama eta aitta.*
—
Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2019ko ekainaren 28an.

ESKER ONA

## Rikardo Larrañaga Retolaza



2019ko ekainaren 10ean hil zen, 72 urte zituela, Angiozarren.

Eskerrik asko bihotzez egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi diguzuenoi, baita hileta etorri eta gurekin egon zareten guztioi ere. Besarkada handi bana familiaren partetik.

Bergaran (Angiozar), 2019ko ekainaren 28an.

ESKER ONA

## Justina Balzategui Olabarria



Tomas Lasaren alarguna

2019ko ekainaren 20an hil zen, 97 urte zituela.

Lerro hauen bidez Justinaren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2019ko ekainaren 28an.

ESKER ONA

## Juanito Lizundia Raizabal



2019ko ekainaren 22an hil zen, 78 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Antzuolan, 2019ko ekainaren 28an.

URTEURRENA

## Francisco Romero Guerra



2018ko ekainaren 29an hil zen, 64 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 30ean, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Arrasaten, 2019ko ekainaren 28an.

# HILDAKOAK

**Juan Berasategi Arrieta.** Bergaran, ekainaren 20an.

**Justina Balzategui Olabarria.** Bergaran, 20an. 97 urte.

**Alex Zabala Martinez.** Arrasaten, 21ean. 53 urte.

**Juan Pedro Merino Pavo.** Aretxabaletan, 21ean. 86 urte.

**Ion Etxebarria Arregi.** Arrasaten, ekainaren 22an. 59 urte.

**Juanito Lizundia Raizabal.** Antzuolan, 22an. 78 urte.

**Pilar Perez Gutierrez.** Arrasaten, ekainaren 23an. 90 urte.

**Salome Altuna Errasti.** Bergaran, ekainaren 24an. 88 urte.

**Pablo Biziola Velasco.** Bergaran, ekainaren 24an. 77 urte.

**Felix Agirre Igarza.** Bergaran, ekainaren 25ean. 87 urte.

# GUARDIAKO FARMAZIAK

| **ARRASATE** *EGUNEZ* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 28 | FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26 |
| Zapatua, 29 | IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39 |
| Domeka, 30 | SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74 |
| Astelehena, 1 | ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65 |
| Martitzena, 2 | RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09 |
| Eguaztena, 3 | ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30 |
| Eguena, 4 | ALBERTO AZKOAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15 |

| **BERGARA** *EGUNEZ* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 28 | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |
| Zapatua, 29 | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| Domeka, 30 | MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15 |
| Astelehena, 1 | URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74 |
| Martitzena, 2 | ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87 |
| Eguaztena, 3 | OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05 |
| Eguena, 4 | ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63 |

| **OÑATI** *EGUNEZ BAKARRIK* | |
|---|---|
| Egubakoitza, 28 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Zapatua, 29 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Domeka, 30 | IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22 |
| Astelehena, 1 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Martitzena, 2 | GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 3 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |
| Eguena, 4 | JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28 |

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2019ko abuztuaren 30era arte:**
ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*
**2019 osoan:**
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.


**OROILORE**
Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



*Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.*

*Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.*

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

# TXUTXU-MUTXUAK













**1. Altsasu elkartean bazkaltzen**
Mizpirualdeko egoiliarrak egon ziren. "Primeran pasatu genuen. Bazkaria ederra zegoen. Horregatik guztiagatik, eskerrik asko elkartekoei eta boluntarioei".

**2. Kalebarrengo danborrada**
Antzuolako umeek gogor astindu zituzten danborrak, San Juanen omenez, hilaren 23an. Aurretik, merienda egin zuten elkarrekin. Ederto pasa zuten.

**3. Etorkizuneko txirrindulariak**
Antzuolako kaleetan batu ziren ziklistak, Gipuzkoako eskolarteko lasterketatan. Alebin eta infantil mailetako txirrindulari mutilak eta neskak elkartu ziren.

**4. Bihar ezkonduko dira**
Itxaso eta Lartaun Aretxabaletako udaletxean ezkonduko dira. "Zorionak, bikote, familia osoaren eta, batez ere, Prim@s & Co!-ren partetik! Jarrai dezala festak!".

**5. "Zorionak, bikote!"**
Tania Nafarrate eta Josu Jimenez hilaren 22an ezkondu ziren. "Egun zoragarria pasa genuen zapatuan! Kuadrillakoen partetik, izan zaitezte zoriontsu!".

**6. Tantaia jaso zuten**
2001ean jaiotako aretxabaletarrek igo zuten tantaia aurreko domekan. 60 bat gazte elkartu ziren. Oro auzotik eraman zuten, eta gauerdia baino lehen altxatu zuten.

**7. Hamarkada bat ezkonduta**
2009ko ekainaren 27an ezkondu ziren Nebat Roo eta Itziar Gardoki. Hamar urte bete dituzte elkarrekin, zoriontsu, lehen egunean bezala. "Maite zaitut!".

## Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidaliguzu argazkia!

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *berriak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

**Ordezkaritzak**
Zatoz Goienaren ordezkaritzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

**Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.**



# ZORION AGURRAK



OÑATI
**Mila Inza**
Uztailaren 3an, 54 urte. Zorionak eta urte askotarako, Mila! Primeran pasatu eguna eta aprobetxatu. Muxu potolo bat.



ARETXABALETA
**Magali Arriola Uralde**
Uztailaren 3an, 5 urte. Zorionak, maittia! Zu bezain egun alaitsua eta magikoa ospatuko dugu elkarrekin! Muxu erraldoi bat, etxeko guztion eta Eisiren partetik!



ARAMAIO
**Lur Agirre Arriolabengoa**
Uztailaren 3an, 4 urte. Zorionak, *poxpolu*! Ederto pasatu zure egunien. Zoragarrixe za eta pilo bat gure zaittuau!



OÑATI
**Ane Buquete Diaz de Gereñu**
Uztailaren 1ean, 8 urte. Zorionak, Ane, zortzi urteengatik! Primerako eguna pasatu eta segi horrela. Asko maite zaitugu denok. Milaka muxu!



BERGARA
**Marta Molina**
Ekainaren 30ean, 19 urte. Zorionak, Marta! Ondo pasatu zure eguna! Muxu potolo bat!



ARRASATE
**Maider Barandiaran Garai**
Ekainaren 30ean, 4 urte. Zorionak, printzesa! Neska handi eta zoragarria egiten ari zara benetan! Urtebetetze egun zoragarri bat izan!



ARRASATE
**Ekain Rodriguez Sanzberro**
Ekainaren 30ean, 5 urte. Zorionak, Ekaintxo! Iratiren eta Aimarren partetik.



BERGARA
**Elene Contreras**
Ekainaren 29an, 6 urte. Zorionak, maitxia. Zure poza egunero gurekin partekatzearren, mila esker. Besarkada handi bat. Ondo pasatu zure eguna. Aitatxo, amatxo eta June.



BERGARA
**Pello Garitano Mendibil**
Ekainaren 29an, 80 urte. Zorionak, Pello, eta ondo ospatu urtebetetze eguna. Muxu handi bat, familia osoaren eta, bereziki, biloben partetik.



ARETXABALETA
**Pakita Karames**
Ekainaren 28an, 67 urte. Zorionak, amama! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Asko maite zaitugu. Unairen eta Beñaten partetik.



ARETXABALETA
**Alana Alonso Panadero**
Ekainaren 28an, 5 urte. Zorionak, Alana! Ondo pasatu eguna eta muxu handi bat, familia osoaren partetik!



ARETXABALETA
**Ainhitze Kerejeta Abril**
Ekainaren 27an, 13 urte. Zorionak, printzesa! Oso-oso ondo pasatu, etxekoen partetik.



BERGARA
**Markel Garitano Atxa**
Ekainaren 27an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, familia osoaren partetik. Ondo ospatu eguna.



ARETXABALETA
**Ane Miren Zabala Ibarra**
Ekainaren 27an, 38 urte. Zorionak, amatxo, zure urtebetetzean! Muxu handi bat familia osoaren eta, batez ere, aitatxoren, Agateren eta Kermanen partetik.



ARETXABALETA
**Markel Barandiaran Otxoa**
Ekainaren 26an, 7 urte. Zorionak, mutiko handi, eta muxu asko danon partetik!



BERGARA
**Iñigo Osa Loiti**
Ekainaren 25ean, urtebete. Zorionak, Iñigo! Urte bat! Patxo handi bat danon partetik eta primeran pasatu zure urtebetetze egunian!



OÑATI
**Aratz Idigoras Lopez**
Ekainaren 25ean, 8 urte. Zorionak, maitia. Primeran pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu pila bat, familia osoaren partetik!



OÑATI
**Amets eta Kerman**
Ekainaren 25ean, 5 urte. Zorionak, bikote! Amamaren eta aittaittaren partetik, ondo-ondo pasatu.



ARRASATE
**Gorka Maria Seco**
Ekainaren 24an, 26 urte. Zorionak, tio Gorka! Mila kilo zorion etxeko danen eta, bereziki, Alaiaren eta Juleren partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
**Julen Orueta Diez**
Ekainaren 23an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure egunian eta patxo potolo-potolo bat, familia osoaren partetik! Asko maite zaitugu!



OÑATI
**Niko Regueiro Madina**
Ekainaren 23an, 4 urte. Zorionak, Niko! Patxo handi bat, etxeko danen partetik eta *atxutxoia*, Lukaninoten partetik.
.



ARETXABALETA
**Maiu Berridi Irure**
Ekainaren 21ean, 4 urte. Zorionak, Maiu! Lau urte jada! Ederto ospatu, laztana. Muxu handi bat, etxekoen partetik.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *https://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

# AGENDA

**EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 28

OÑATI **Oteizari buruzko erakusketa Arantzazun**
*Oteiza eta Arantzazuko estatuaria 1950-1969* delako bilduma ikusgai, urriaren 27ra arte.
***Gandiaga Topagunean, 10:00etan.***

ELGETA **Tio Teronen Semeak**
*Festamentua* dantza ikuskizuna egingo dute Ferixa Nagusietan. Debalde.
***Mendizaleen plazan, 19:00etan.***

ESKORIATZA **San Pedro Jaiak: Bezpera**
19:00etan, txupinazoa eta pregoia, herriko txistularien eskutik; eta 22:30ean, nagusien danborrada.
***Fernando Eskoriatza plazan.***

OÑATI **Zubillagako jaiak**
19:00etan, txupinazoa eta Pello basurdearen jaitsiera; 19:30ean, barbakoa frontoian, Domeketarrok taldeak girotuta; eta 22:00etan, toka txapelketa.
***Zubillagan.***

OÑATI **Elkartasun afaria**
Parrokiako misio taldearen eskutik. Guinea Konakryko proiektuaren inguruko xehetasunak emango dituzte.
***Bidaurretan, 20:00etan.***

OÑATI **'Debagoiena harrotasunez' ekimena**
20:00etan, bailarako mani-festa-akzioa, Foruen plazatik abiatuta; eta 22:30ean, *Pintxada*, Antixenean.
***Oñatiko txokotan.***

OÑATI **Ganbara eta Hots abesbatzak**
*Antzinako sekretuak* izeneko emanaldia egingo dute, debalde. Autobusak egongo dira Oñatitik, bi eurotan.
***Arantzazuko santutegiaren kanpoko aldean, 22:00etan***

ARRASATE **Arrasate Musikaleko Big Band**
Udazabal egitasmoaren lehen kontzertua. Rocka, funka, bossa nova eta bestelako doinuak izango dira nagusi.
***Monterronen, 22:30ean.***

ELGETA **Modus Operandi eta Gora Herria taldeak**
Ferixa Nagusiak.
***Mendizaleen plazan, 23:15ean.***

ESKORIATZA **Puro Relajo taldea**
Sanpedroak.
***Fernando Eskoriatza plazan, 00:30ean.***

## ZAPATUA 29

OÑATI **Eskubideen aldeko mendi martxa**
Gure Esku-ren eskutik, Arantzazutik Urbiara.
***Arantzazun, 10:00etan.***

OÑATI **Herrixa Kantuan**
Ikasturteko azken kantu jira egingo dute musika eskolakoek eta ikastolakoek.
***Foruen plazan, 12:00etan.***

ANTZUOLA **San Martzial jaiak**
10:00etan, etxafuegoak; 11:00etan, plater jaurtiketa; 16:30ean, plater tiroketa; 18:30ean, txokolate-jana; 20:00etan, trikitilariak; 21:00etan, afaria; eta ostean, suzko erruberak eta erromeria.
***San Martzialen.***

OÑATI **Zubillagako jaiak**
11:30ean, haur parkea; 12:00etan, meza; 13:00etan, gazteendako toka txapelketa; 16:30ean, haur parkea; 17:00etan, mus txapelketa; 19:30ean eta 22:00etan, Gauargi taldea.
***Zubillagan, 12:00etan.***

OÑATI **'Oteiza eta Arantzazuko estatuaria': bisita gidatua**
Erakusketan, bisita gidatua.
***Arantzazuko Topagunean, 12:00etan.***

OÑATI **Torreauzoko jaiak**
12:00etan, etxafuegoak; 13:00etan, poteoa; 16:00etan, mus txapelketa; 17:00etan, Potx magoa, eta ostean, txokolate-jana; 19:00etan, Jabi Sound; eta 20:30ean, meza.
***Torreauzon.***

ESKORIATZA **Zarimutzeko jaiak**
12:00etan, meza Gesalibar eta Garagartza auzoetako koruekin; eta ostean, luntxa.
***Zarimutzen.***

OÑATI **Garagaltzako jaiak**
13:30ean, etxafuegoak; 14:00etan, meza, mus txapelketa eta jolasak.
***Garagaltzan.***

OÑATI **Xagu tabernaren agur kontzertua**
Aitor Regueirok, Paul Sarramendik, Azkaiter Peloxek eta Crap-ek egingo dute emanaldia. Debalde.
***Xagu tabernan, 18:00etan.***

BERGARA **Erraldoi konpartsaren kalejira**
Kalerik kale ibiliko dira.
***Bergaran, 18:30ean.***

OÑATI **'Industrializazioa Oñatin' kontzertua**
Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte abesbatzen eskutik.
***Cartonajes Arregin, 19:00etan.***

ESKORIATZA **'Meeting point' dantza ikuskizuna**
Ertza taldearekin, San Pedro jaietan.
***Fernando Eskoriatza plaza, 19:30ean.***

BERGARA **'Mila esker eta gero arte, Alfredo' kontzertua**
Alfredo Gonzalez Chirlaqueren omenez, Bergarako Orkestra Sinfonikoaren eta lagunen eskutik.
***Pilotalekuan, 22:00etan.***

ESKORIATZA **'Musikal guztiak ia ia' ikuskizuna**
Demode Quartet taldea, Sanpedrotan.
***Gorosarri plazan, 22:30ean.***

ELGETA **Aizu! musika taldea**
Kortaturen tributu taldea, Ferixa Nagusietan.
***Mendizaleen plazan, 23:05ean.***

## DOMEKA 30

BERGARA **San Martzial erromeria**
07:30ean, igoera, eta ostean meza; 09:30ean, alborada; 10:00etan, igoera gurdiekin; 11:00etan, meza; 12:00etan, dantza emanaldia; 15:30ean, jolasak; 17:00etan, herri kirolak eta irrintzi lehiaketa; 18:00etan, erromeria; eta 19;30ean, Incansables txaranga.
***San Martzialen.***



DISKOFAGIA

ARAMAIO **Diskofagia bikotearen kontzertua**
Ruthek eta Ikerrek osatzen dute Diskofagia bikotea. Musika akustikoa egiten duen taldeak emanaldia egingo du Musika Festibalaren baitan. Rock eta pop doinuak jotzen dituzte, eta oso entzutetsuak dira egiten dituzten kantu mitikoen bertsioak.
***Gaur, egubakoitza, Sastiñan, 20:00etan.***

OÑATI **Torreauzoko jaiak**
09:00eta, etxafuegoak; 10:30ean, Torreauzoko 22. krosa; 12:30ean, meza; eta 13:00etan, luntxa eta Oñatz taldekoen saioa.
***Torreauzon.***

ELGETA **Azoka**
Ganadua, erakusketa, artisauak... Ferixa Nagusiko azoka.
***Mendizaleen plazan, 09:00etan.***

OÑATI **Koiskarko jaiak**
Jesusen Bihotza jaia ospatuko dute. 11:00etan, meza; eta ostean, luntxa eta soinu-joleak.
***Koiskarren.***

OÑATI **Zubillagako jaiak**
11:00etan, meza; 11:45ean, luntxa erretiratuendako; 12:45ean, Oñatzekoen saioa; 13:15ean, pilota txapelketako finala; 17:00etan, txorimaloak; 17:30ean, zinta lasterketa; 18:30ean, txokolate-jana; 19:00etan, bakarrizketa saioa; eta 21:00etan, jaien bukaera.
***Zubillagan.***

ANTZUOLA **San Martzial jaiak**
11:00etan, egunsentikoa txistulariekin; 11:30ean, San Martzial igoera; 12:00etan, meza, eta ostean, gazta pintxoak eta ardoa; 13:00etan, Oinarin taldekoen saioa; 14:30ean, bazkaria eta trikitilariak; eta 21:00etan, bukaera.
***San Martzialen.***

OÑATI **Garagaltzako jaiak**
12:00etan, meza eta luntxa.
***Garagaltza auzoan.***

OÑATI **'Industrializazioa Oñatin' kontzertua**
Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte abesbatzen eskutik.
***Stadler enpresan, 12:00etan.***

BERGARA **'Bergara Hiria' argazki lehiaketako lanak**
Saritutako lanak ikusteko aukera, uztailaren 7ra arte.
***Aroztegin, 12:00etan.***

ESKORIATZA **'Zapatos en el aire' ikuskizuna**
Antzerkia, dantza eta zirkua bateratzen dituen ikuskizuna, San Pedro jaietan.
***Gorosarri plazan, 12:00etan.***

ESKORIATZA **Onki Xin eta Nogen taldeak**
San Pedro jaietan.
***Fernando Eskoriatza plazan, 23:00etan.***

## ASTELEHENA 1

OÑATI **Arte udalekuak: hasiera**
Marrazkiak, margoak, eskulturak... landuko dituzte hilaren 26ra arte.
***Eltzian, 10:00etan.***

OÑATI **Udaleku irekiak: hasiera**
Askotariko ekintzak egingo dituzte hilaren 26ra arte.
***Gaztelekuan, 10:00etan.***

OÑATI **Herri Eguneko artisau azoka: izen-ematea**
Gaurtik hilaren 12ra arte eman daitezke izena urriaren 5eko azokan

parte hartu ahal izateko. Bi bide: 943-78 03 53 edo *kultura. idazkaritza@onati.eus*.
***Kultura etxean, 10:00etan.***

**OÑATI 'Ezustekoak' erakusketa**
Orbelaun taldeko kideen lanak ikusgai: Angel Mari Milikua, Imanol Artola, Iñaki Jauregialtzo eta Esteban Kerexeta. Urriaren 15era arte.
*Turismo Bulegoan, 15:30ean.*

## MARTITZENA 2

**OÑATI Sanmigeletarako azala aukeratzeko lehiaketa**
Zabalik dago lanak aurkezteko epea, hilaren 15era arte. Bi bide: 943-78 03 53 edo *kultura. idazkaritza@onati.eus*.
***Kultura etxean, 10:00etan.***

**ESKORIATZA 'Eskoriatzako udaletxeak' erakusketa**
Eskoriatzarrek euren erabakiak hartzeko izandako leku ezberdinen errepasoa egiten duen bilduma. Ikusgai, uztailaren 10era arte.
***Ibarraundin, 12:00etan.***

**ARETXABALETA 'Tulipan txikia' antzezlana**
Aratz elkarteko kideen lan berria ikusteko aukera. Debalde.
***Zaraia aretoan, 19:00etan.***

**BERGARA 'Ploey. Bakarrik hegan inoiz ez' pelikula**
Aire libreko zinema-emanaldia, euskaraz eta debalde.
***Espoloian, 19:00etan.***

## EGUAZTENA, 3

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Herriko baserrietako eta sasoiko produktuak erosteko azoka.
***Oxirondon, 18:00etan.***

**BERGARA 'Dr. Bubble eta Mc Fly' kale ikuskizuna**
Kimikari bat eta bere laguntzailea dira Compañia Nogusanok kalean erakutsiko duen antzezlanaren protagonistak. Paolo Di Gianvincenzo eta Jon Zumelaga dira aktoreak. Debalde.
***Errekalde parkean, 19:00etan.***

**ARETXABALETA 'Turistreando' antzezlana**
Trapu Zaharra taldearen kale antzerkia. San Fernando bidaia-agentziak pertsonalizatutako bidaia birtualen eskaintza kaleratu du. Mila Espiga eta Santi Ugalde dira protagonistak. Debalde.
***Durana kalean, 19:00etan.***

**ARRASATE 'El último fotograma' liburuaren aurkezpena**
John Anduezak eta Koldo Anasagastik idatzitako liburua aurkeztuko dute egileek. Aurkezle lanak Ane Odriozola idazleak egingo ditu.
***Jokin Zaitegi gelan, 19:00etan.***

## EGUENA 4

**ARRASATE Hazilan: aurkezpena**
Gazte kualifikatuen laneratzea errazteko helburua duen ekimena aurkezteko ekitaldia. Proiektuaren zazpigarren ekitaldia irailaren 9an hasiko da.
***Mankomunitatearen egoitzan, 10:00etan.***

**OÑATI Garbigune ibiltaria**
Herritarren materiala batzeko.
***Azoka ondoan, 10:00etan.***

**BERGARA 'Biribilak mendian' erakusketa**
Gorteek Euskal Herriko nekazaritzan izan duten garrantzia ezagutzera ematea da erakusketaren helburua: XVII. eta XVIII. mendeetako zirriborroak, biribilegi buruzko antzinako testuak, garaiko mugarriak... ezagutzeko aukera.
***Laboratoriumen, 10:00etan.***

**OÑATI Broken Brothers Brass Band taldea**
Funk, gospel eta jazz doinuekin girotuko ditu kaleak Iruñeko bandak, *Kalean* egitasmoan.
***Kaleetan, 19:00etan.***

**BERGARA 'Gótico y renacimiento en San Pedro de Ariznoa' hitzaldia**
Jesus Muñizek egingo du berba, gazteleraz, *750 urte eta aurrera. Hiribilduaren aurretik* ekimenaren baitan.
***Irizarren, 19:00etan.***

## ZINEMA

**GASTEIZ**

**BOULEVARD**

**Muñeco diabolico**
Egunero, martitzena izan ezik: 12:55, 15:55, 17:55, 19:55, 21:55, 23:55. Martitzena: 15:55, 17:55, 21:55.

**Los Japon**
Zapatua eta domeka: 12:30. Egunero: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30. Egubakoitza eta zapatua: 00:30.

**Tu mejor amigo**
Zapatua eta domeka: 12:50. Egunero: 15.50, 18:05, 20:20.

**Toy story 4**
Egubakoitzetik domekara: 12:30, 13:30, 16:00, 16.45, 18:15, 19:00, 20:30, 21:15, 22:40. Astelehenetik eguenera: 16:00, 16:45, 18:15, 19:00, 22:40. Egunero, martitzena izan ezik: 17:30, 19:45, 22:00. Martitzena: 17:30, 22:00.

**Aladdin**
Zapatua eta domeka: 13:15. Egunero: 16:00, 17:00, 18:45, 21:30. Egubakoitza eta zapatua: 00:15.

**Godzilla**
Egunero, martitzena izan ezik: 13:20, 16:55, 19:35, 22:15. Martitzena: 16:55, 19:35.

**Rocketman**
Egunero: 17:00.

**La influencia**
Egunero: 15:50, 22:45.

**Vitoria, 3 de marzo**
Egunero: 18:00.

**Vengadores**
Egubakoitza eta zapatua: 23:30. Egunero: 21:15.

**Lo dejo cuando quiera**
Egubakoitza eta zapatua: 00:10. Egunero: 20:40.

**El sotano de Ma**
Egunero: 22:50.

**John Wick**
Egunero: 19:30.

**X-Men**
Zapatua eta domeka: 12:20. Egunero: 22:00.

**GORBEIA**

**Los vengadores**
Egunero, domeka izan ezik: 21:50. Domeka: 11:45, 21:50.

**Vitoria, 3 de marzo**
Egunero, domeka izan ezik: 20:35, 22:30. Domeka: 12:00, 20:35, 22:30.

**Aladdin**
Egunero: 17:00, 19;45, 22:15.

**Mr. Link**
Egunero, domeka izan ezik: 17:45. Domeka: 12:00, 17:45.

**X-Men**
Egunero, domeka izan ezik: 20:00. Domeka: 12:15, 20:00.

**Enemigos intimos**
Egunero: 20:15, 22:30.

**Toy story 4**
Egunero: 22:20.

**La influencia**
Egunero: 16:50.

**Godzilla**
Egunero, domeka izan ezik: 17:15, 19:45. Domeka: 11:45, 17:15, 19:45.

**Tu mejor amigo**
Egunero, domeka izan ezik: 18:15, 20:25, 22:30. Domeka: 12:00, 18:15, 20:25, 22:30.

**Matrix**
Egunero: 19:10.

**Muñeco diabolico**
Egunero: 16:50, 18:40, 20:30, 22:30.

**Azahar**
Egunero, domeka izan ezik: 16:30, 18:50. Domeka: 12:15, 16:30, 18:50.

**Los Japon**
Egunero: 16:50, 18:45, 20:40, 22:30.

**FLORIDA**

**Aladdin**
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 17:00, 19:45. Astelehena eta martitzena: 12:00, 15:00, 17:30. Eguaztena eta eguena: 12:00, 15:00, 17:30, 20:00.

**Dilili en Paris**
Egubakoitzetik eguenera: 12:00.

**Dumbo**
Egubakoitzetik eguenera: 12:00.

**El secreto de la abejas**
Egubakoitzetik eguenera: 20:00.

**Esto no es Berlin**
Egubakoitzetik domekara: 18:20. Astelehenetik eguenera: 17:30.

**Instinto maternal**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30. Astelehena eta martitzena: 20:00, 22:30. Eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00, 22:30.

**La banda**
Egubakoitzetik domekara: 18:30. Astelehenetik eguenera: 15:30.

**La biblioteca de los libros rechazados**
Egubakoitzetik domekara: 17:30, 22:30. Astelehenetik eguenera: 15:30, 17:30, 22:30.

**Los Japon**
Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30. Astelehenetik eguenera: 15:15, 17:30, 20:00, 22:30.

**Los muertos no mueren**
Egubakoitzetik domekara: 16:20, 20:20, 22:30. Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Men in black**
Egubakoitzetik eguenera: 12:00, 22:30.

**Toy story 4**
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:20, 18:25, 20:30, 22:30. Astelehenetik eguenera: 12:00, 15:20, 17:30, 20:00, 22:30.

**Vitoria, 3 de marzo**
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 16:30, 20:30.

## KRITIKA

**Toy story 4** ★★★☆☆
**Zuz.:** Josh Cooley. **Herr.:** AEB (2019). **Mota:** Animaziozkoa. **Iraupena:** 100 minutu.

# Sendotasuna eta distira

**ANTONIO ZABALA**


FOTOGRAMAS

Animaziozko generoan *Toy story* klasiko bihurtu da. 1995. urtean, lehenengo filma estreinatu zen. Orain, 24 urte geroago, *Toy story 4* heldu da gure aretoetara. Horrek esan nahi du ia belaunaldi berri bat sortu dela pasatutako urteetan. Lehenengo filma estreinatu zenean haurrak zirenek film horietako jarraitzaileak izaten jarraitu dute, eta tarte honetan jaiotako haurrek pertsonaien istorio berriak ikusi gura dituzte. Sendotasuna eta distira izan dira lau filmen ezaugarri aipagarrienak. Gidoiak beti oso sendoak izan dira. Istorioek elkarren artean antza handia izan arren, kontatzeko modua oso egokia izan da. *Toy story* abentura generoaren barruan koka genezake. Horrela, argi dago ekintza eszena ugari egon behar direla, eta horiek benetan liluragarriak dira. Eta ekintzarekin batera gidoilariek oso ondo dakite barnean umorea eta sentimenduak nahasten. Eta hor dago gakoa: irudiaren aldetik, animatzaileek lortzen dituzten emaitzak ikusgarriak dira, eta istorioaren aldetik, dena oso ondo neurtura dago, osagai bakoitzak bere efektua lor dezan. Film batetik bestera, pertsonaia berriak agertzen dira, eta gizartean izaten diren aldaketak ere bertan islatuak agertzen dira. Egileek formulari puntua aurkitu diote. Hori horrela, *Toy story 4*-n dena ezaguna egiten zaigu, baina, hala eta guztiz ere, formulak funtzionatzen jarraitzen du.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

goiena
Zu hemen zaude.

AZKEN BERBA



IDOIA ETXEBERRIA

## Berriz irribarrez

Irribarreari buruz idatzi nuen aurrekoan. Esan nuen pertsona irribarretsuak erakargarriak izan ohi direla. Baina irribarrea ez dela beti pozaren adierazle: sentimendu asko ezkuta ditzakeela. Horretaz gainera, bi eratako irribarreak daudela: benetakoa eta faltsua. Bata beharrezkoa, bestea antzua.

Irribarrea ez da kultura guztietan berdin interpretatzen. Munduko 44 kulturatan egin dute ikerketa, 4.500 lagunekin, kontinente guztietan: pertsona irribarretsuen eta serioen argazkiak erakutsi dizkiete, eta puntuarazi. Argazki berak guztiei. Eta emaitzak desberdinak izan dira.

Inteligentziaren eta zintzotasunaren pertzepzioak neurtzea zen helburua. Japoniarrei, indiarrei eta korearrei, adibidez, irribarre egiten ez dutenak adimentsuagoak iruditu zaizkie. Alemanei, suitzarrei eta malaysiarrei, justu kontrakoa. 18 kulturatan bakarrik lotu dute irribarrea inteligentziarekin. Zintzotasunari dagokionez: irribarre egiten dutenek mesfidantza sortzen dute Indian eta Argentinan. Suitzan, Australian edo Filipinetan, ordea, irribarreak zintzotasuna adierazten du. 37 kulturatan lotu dute irribarrea zintzotasunarekin. Eta euskaldunok, nola interpretatzen dugu irribarrea?

Eta euskaldunok, nola interpretatzen dugu irribarrea?

BUKATZEKO

# 'La línea invisible' filmatzen Bergaran

Movistar-ek ekoitzitako telesaila grabatzen arituko dira ekainaren 27tik uztailaren 15era Bergaran. Mariano Barrosok zuzendua, ETAren jatorrian oinarrituta dagoen piezak eguaztenean egin zuen 'casting'-a, frontoia betetzeko 180 lagunen bila

**Jone Olabarria** BERGARA

Atzo hasi ziren *La línea invisible* telesailaren grabaketa lanak Bergaran. Hiru astez arituko dira herrian filmatzen; batez ere, Bidekurutzeta kaleko 15. zenbakian, baita inguruko kaleetan ere. Mariano Barroso zuzendariaren gidaritzapean, ETAren sorrera lantzen du telesailak, Movistar-ek ekoitzitakoa. Telesaila 45 minutuko 6 kapitulutan egongo da banatuta, eta ETAren lehen uneak soilik ez, bere protagonisten istorio pertsonalak ere kontatuko ditu.

Euskal Herriko paraje ezberdinetan arituko dira grabaketan lanetan udan zehar. Bergarako kasuan, egun gehienetan Bidekurutzeta kaleko 15. zenbakian barrualdeko eszenak filmatuko diren arren, datorren astelehenean Udal Pilotalekuan arituko dira errodatzen.

Hala, uztailaren 1ean, astelehena, 60ko hamarkadako pilota partidu bat irudikatuko dute frontoian, eta, antolakuntzatik diotenez, egun osoz arituko dira lanean. Grabaketa lanek irauten duten bitartean, zenbait kale moztu eta trafikoan aldaketak egongo dira.



Grabaketa taldea eguenean San Pedro kalean. GOIENA

### 180 figuranteren bila

Eguaztenean, hilak 26, egin zuten *casting*-a Oxirondo azokan; izan ere, frontoian filmatuko den eszenarako 180 estra behar dituzte. Edozein pertsona aurkez zitekeen *casting*-era, baina, batez ere, gizonezkoen beharra dutela azaldu du bertako arduradun Aitor Blancok: "Hogei bat emakume behar ditugu; gainerakoak, gizonak. Ezaugarri fisikoei dagokienez, 60ko hamarkadan girotutako eszenak grabatuko direnez, bizar gabekoak eta ile motza dutenak behar ditugu".



Bidekurutzeta 15eko etxea. GOIENA



Gazte bat 'casting'-ean . GOIENA

Hainbeste figurante lortzea, baina, ez da lan erraza; are gutxiago, gizonezkoen kasuan. "Emakume gehiago aurkezten dira beti, eta oraingoan ere hala izan da. Guztira, 70 bat lagun aurkeztu dira eta horietatik 45 bat emakumezkoak izan dira. Oraindik ere gizon gehiagoren bila gabiltza, 18 eta 70 urte bitartekoak".

Gauzak horrela, estra bezala parte hartzera animatzen ditu herritarrak, eta oraindik ere aurkezteko aukera dagoela adierazi du, *www.modfie.com* webgunera sartuta. Blancok azaldu duenez, bertan izena eman, argazki bat bidali eta antolakuntzako kideak interesa dutenekin jarriko dira harremanetan. Egun osoko lan ordaindua izango dela gaineratu du.

FERIXA NAGUSIKO JAIAK ETA SANPEDROAK 2019
GOIENA TELEBISTA, ELGETAKO ETA ESKORIATZAKO JAIAK
UZTAILAREN 2AN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
AITOR AGIRIANOK GIDATUTAKO SAIOA
goiena
Zu hemen zaude.

